

Zu hemen zaude.

goiena



BERGARAKO LACOR-IBILI TALDEA, GIPUZKOAKO ENPRESARIK ONENA

Bazkundeak saria eman dio; sukaldeko eta ostalaritzako tresnerian erreferentia da nazioartean / 4

Iosu Rodriguez –Ibiliko gerentea–, Izaskun Larrañaga –Lacor-Ibili Taldeko zuzendari nagusia– eta Joseba Azkargorta –Lacorrekoko gerentea–, Bergarako lantegian. XABIER URZELAI

**Lanbide Heziketaren
aukerak plazara
Debagoieneko 'Goiaz!'
azokan, Garaia Parke
Teknologikoan / 3**

SINADURAK

LANDER BELOKI
MENDIZABAL / 8

IBON
ARRUPE / 11

MARKEL
ARRIOLABENGOA / 17

LUKENE
IGARTUA / 35

MARIA
AGIRRE / 48



**Realak Walking
Football ekimena
abiatu du Arrasaten,
55 urtetik gorakoak
futbolean aritzeko / 12**

**Arrasate-Udalatx
lasterketan 350 lagun
ibiliko dira lehian
domekan, bi urteko
hutsunearen ostean / 38**



Rosa Ayerbe
historialariari
elkarriketa

Abangoardian
dauden demokrazia
eredu berriak

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Yula Krekoten, Max Oblomsky eta Tania Oblomska, Oñatin. Y.K.

Debagoienera iristea lortu dute, bihotzaren zati bat Ukrainan utzita

Otsailaren 24an sartu ziren tropa errusiarrak Ukrainan. 05:30ean entzun zituen lehenengo bonbak Yula Krekotenek, eta 24 orduren buruan, amarekin eta anaiarekin batera, Oñatira bidean zen, motxila txiki bat soinean hartuta

Uxue Igarza Loiola OÑATI

6 urte zituenetik ezagutzen du Oñati Yula Krekoten ukrainarrak. Urtero etorri izan da harrera familiarekin uda igarotze-
ra, eta batxilergo ikasketak ere bertan egin ditu. Gerrak, baina, Ukrainan harrapatu zuen.

Lagun baten deiak esnatu zuen Krekoten otsailaren 24an; gerra piztu zela esan zion. "Egoera arraroa zen aurreko hilabeteetan ere. Lanera joaterakoan tankeak eta soldaduak ikusten nituen, eta supermerkatuetan kontserba-poteak eta latak agortzen ari ziren", kontatu du. Bere ama Tania Oblomskak, ordea, ez zuen susmo hori: "Amak esaten zidan propaganda hutsa zela; jendea beldurtzeko estrategia, alegia". Ama esnatzea izan zen Krekotenek egin zuen lehenengo gauza. "Terrazara joan ginen eta lehergailuen eztandak entzuten

ziren. Katua, izututa, etxera sartu zen. Telebista piztu genuen eta gauza bakarra zegoen kate guztietan: gerra. Presidentearen mezua ari ziren helarazten; egunerokotasuna erabat aldatuko zela iragartzen ari zen Zelenski".

Ihes egiteko asmorik gabe

"Ez genekien zer egin, oso urduri geunden, beldurtuta, eta gure dokumentazioa batzen hasi ginen", dio Krekotenek. Izan ere, onartu du sekula ere ez zitzaizela burutik pasa halako egoera baten aurrean zein pauso jarraitu behar ziren.

ETXERATZE-AGINDUA URRATUTA, MUGARA IRISTEA LORTU ZUTEN YULA KREKOTENЕК ETA BERE SENIDEEK

Supermerkatuetan janaria agortzen hasi zela azaldu du, eta ihesari emandako autoek kilometroetako ilarak osatzen zituztela: "Pentsatu genuen alferrikakoa zela alde egiten saiatzea; ilarak ikaragarriak ziren eta gasolindegia itxita zeuden".

Egunak aurrera egin ahala, baina, iritziz aldatu zuen familia: "Motxila txiki bat prestatu genuen bakoitzak, badaezpada. Egoera larritzen ari zen, eta beldur ginen etxean ere".

Etixeratze-aginduari, planto

19:00etatik 07:00etara etxean geratzeko agindua jaso zuten ukrainarrek egun hartan. "Agindua ezin zen pandemian emandakoarekin alderatu. Kasu honetan, araua urratzeak heriotza ekar zezakeen", azpimarratu du. Nolanahi ere, herrialdetik ihes egitea erabaki zuen familia:

"Herria isilik zegoen. 05:00etan, etxeratze-agindua urratuta, Odesara bidean jarri ginen. Tankeak, helikopteroak, poliziak eta militarrek bakarrik zeuden; ez genekien errusiarrak edo ukrainarrak ziren, baina ukrainarrak izatea espero genuen". 170 kilometro orduko abiaduran eta gelditu gabe zeharkatu zuten herrialdea; 10:00etarako mugan zeudela azaldu du Krekotenek.

Moldavia, Errumania, Alemania... Bide luzea egin dute Oñatira iristeko. Gainera, onartu dutenez, muga zeharkatuta ere ez zuten lortu beldurrari izkin egitea: "Lehenengo gaua Moldavian igaro genuen, baina ez genuen lorik egin; gerra orpo orpo sentitzen genuen oraindik".

Bihotza eta burua, Ukrainan

Yula Krekoten, Tania Oblomska eta Max Oblomsky Oñatin dau-
de, baina oraindik ez da gerra bukatu eta Ukrainan dituzte bihotza eta burua: "Senide batzuk han geratu dira; nire aita, esaterako. Batzuekin harremanetan gaude, baina beste batzuekin ez dugu lortzen. Oso gogorra da eta errudun sentitzen gara". Argi

dute, baina, "euren biziak salbatzeko" egin dutela hautu hori.

Oñatiarrei eskertuta

Yula Krekoten lanean ari da Oñatin; sukaldaria da. Anaia Max Oblomsky eskolan hasi da eta pozik dago lagun berriekin. Eta haien ama Tania Oblomska, berriz, euskara ikasten hasia da. "Amak duen erronka handiena hizkuntzarena da, baina ikasteko irrikan dago. Ni ari naiz irakasle lanetan orain, eta eskolak hartzen hasiko da berehala", kontatu du alabak. Gainera, Krekoten Larraña Etxean ere ari da bertan dauden ukrainarrei hizkuntzarekin laguntzen.

Momentu honetan hirurak harrera familiaren etxean bizi dira, baina haien nahia "bizitza berri bati ekitea" da: "Laguntza eskatu nahi diegu oñatiarrei; etxe bat nahi dugu bizitzeko. Agian, ez dugu behar bezala, hilabetero, alokairua ordainduko, baina lanean ari naiz, eta zerbait egin dezakegu".

Halere, epe luzerako helburua beste bat da: "Ez dakigu noiz, baina Ukrainara bueltatuko gara; gure benetako etxera".

Bide zailaren ostean, Bergaran

Amair Sainz, Josetxo Lizarralde eta Aner eta Nahia seme-alabek lortu dute Makar Kovalenko etxera ekartzea. Ukrainatik udak pasatzera etorri izan da Makar orain arte Bergarara. Bidea "oso gogorra" izan dela azaldu du Sainzek: "Beldurrezko pelikula izan da ihesaldia; batzuk bidean geratu direla ikusi du haurrak".

Gerraren lehenengo egunean inguratu zuten mutikoaren etxea tropa errusiarrek. Sotoan ezkatututa egon behar izan zuten, eta Bergarako familiak komunikazioa galdu zuen haiekin bi astez. "Martxoaren 13an jaso genuen lehenengo deia eta hurrengo egunean jakin genuen Errumaniako mugara bidean zirela", dio Sainzek. "Gau hartan bertan, Bartzelonara joan ginen autoan —bertan Makarren arreba Nadiaren harrera familiarekin elkartzeko— eta hurrengo goizean denok Errumaniarako hegazkina hartu genuen", jarraitu du.

Oztopo eta arazo guztien gainetik, lortu zuten Makar, Nadia eta haien lehengusuarekin mugan elkartzea. "Unerik gogorrena ama eta haurren arteko agurra izan zen", azaldu du Sainzek.

Behin Bergarara etorrita, Sainzek dio Makar badoala "poliki-poliki moldatzen", baina zama psikologiko handia duela ere bai: "Normala den moduan, Ukrainara bueltatu nahi du hark. Udan etortzen denean badaki noiz doan bueltan, baina orain, berriz, ez". Aste Santuan Bartzelonara joateko asmoa dute, anai-arrebak elkarrekin egoteko.



Kartelak dio: Ongi etorri Makar. A.S.

Lanbide Heziketaren eskaintza, plazara

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka, 'Goiaz! 2022', egin da aste honetan. Profesionalek azaldu dutenez, Lanbide Heziketa geroz eta "prestigio" handiagoa hartzen ari da, baina aitortu dute oraindik "estigmatizatuta" dagoela gizartean

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Eguaztenean eta eguenean, Debagoieneko ikasleak, gurasoak eta Lanbide Heziketako profesionalak batu zituen *Goiaz!* azokak. Pandemiaren aurreko formatua berreskuratuta –baina oraingoan, Garaia Parke Teknologikoan, estreinakoz–, aurrez aurre hitz egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek, etorkizuneko aukerei begira jarrita.

Parte-hartze handia izan duela azaldu dute antolatzaileek, eta pozik agertu dira aurtengo edizioarekin. Debagoieneko Mankomunitateko Amaia Irizarren arabera, "garrantzitsua" izan da aurrez aurreko eredura itzultzea: "Ikastetxeek etortzeko gogo handia zuten. Ikasleen aldetik interes handia ikusi dugu eta guraso asko ere etorri dira informazio eske".

Irizarrekin bat egin dute Arizmendi Ikastolako Aitor Guridik eta Aretxabaleta Lanbide Eskolako Erik Linazisorok ere. "Eskertu dugu mugimendu apur bat, bi urteren ostean", esan du Guridik. Eta ildo beretik jo du Linazisorok ere: "Beharra zegoen aurrez aurrekora itzultzeko. Mezu elektronikoak eta bisita birtualak egin ditugu azken bi urteetan, baina egia da hau beste kontu bat dela".

Aukera, geroz eta zabalagoa

Azokaren helburu nagusia eskualdeko formazio-eskaintza –eta, bereziki, Lanbide Heziketa– ezaugaraztea da, eta, horretarako, bertako zazpi ikastetxek jarri dituzte informazio-guneak aurrean. Guztien eskaintzak batuta, 25 ziklo ikasteko aukera dago bailaran. Honako alor hauetan daude banatuta ikasketak: administrazioa eta kudeaketa; elektrizitatea eta elektronika; instalatze eta mantentze lanak; informazioa eta komunikazioa; fabrikazio mekanikoa; garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak; osasungintza; kultura zerbitzuak; eta jarduera fisikoak eta kirola.

Eremu txikia izateko "eskaintza zabala" dagoela azpimarratu du Linazisorok, eta Irizarrek gaineratu du urtetik urtera zentroek ahalegina egiten dutela ziklo berriak eskaintzeko.

Estigmak gainditu nahian

Urtetik urtera eskaintza berrituz eta egokituz joan arren, profesionalak azaldu dute oraindik badirela aurreiritziak Lanbide Heziketaren inguruan. "Gaur egun ere sumatzen dugu zikloak gutxiesteko joera dagoela; bigarren aukera moduan ikusten da Lanbide Heziketa", dio Guridik. Bestetik, gehitu du hori ez dela horrela beste herrialde batzuei



Ikasleak, azokan, proiektu bati begira. TXOMIN MADINA


erreparatuz gero: "Alemanian, Ingeniaritza ikasi nahi dutenei Lanbide Heziketaren bidea hautatzeko gomendatzen zaie". Linazisorok ere uste du "aurre-rapausoak" egiten ari dela gizartea, alde horretatik, baina onartu du "kosta egiten dela" estigma gainditzea. "Lanbide Heziketa ez da ikasi nahi ez duenarentzako bidea. Horren adibide da ikasle batzuk uniber-

tsitatera joaten direla zikloa egin ostean", zehaztu du.

Ikasteko beste modu bat

Debagoienaren ezaugarrietako bat industria ugari izatea da, baina zerbitzuen alorrean ere ez da atzean geratu, Arizmendiko Guridiren ustez: "Lan egiteko aukera asko dago hemen, eta norberak nahi duen hori lortzeko bidea irekitzen du Lanbide Heziketak". Horri lotuta, Irizarrek nabarmendu du zikloen eta enpresen arteko lotura "oso estua" dela.

Bukatzeko, Linazisorok azaldu du ikasi eta lan egiteko "beste modu bat" eskaintzen duela Lanbide Heziketak: "Oso praktikoa da, eta irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hurbilak dira. Gainera, taldeak ere bereziak dira, adin guztietako ikasleak elkartzen baitira eskoletan". Azoka amaitu den arren, zentroek jakinarazi dute ate irekiak egingo dituztela interesa dutenentzat eta webguneetan ere eskuragarri dagoela informazioa.




ARITZ ARREGI TXANTXIKU IKASTOLAKO IKASLEA

"Fisioterapia edo Jarduera Fisikoaren Gradua egin nahi dut, baina nota altua eskatzen dute. Ikusi dut hori lortzeko beste bide batzuk daudela"



AINERE CABALLERO KURTZEBARRIKO IKASLEA

"Batxilergoa egitea dut buruan, baina Erdi Mailako Zikloak ere aukera ona dira. Zaintzaren eta osasungintzaren alorrak gustatzen zaizkit niri, bereziki".



UNAI UNZALU ARIZMENDI IKASTOLAKO IKASLEA

"Batxilergoa zaila egiten zait, eta Lanbide Heziketaren aldeko hautua egin dut. Guztien artetik, azokan, Mikroinformatikako Zikloak piztu du nire interesa."

22. korrika

bertako

igogailuak | ascensores

EUSKARA,

GURE HELBURU KOMUNA

Amurrio & Donostia

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

ARABA

945 712 822

BIZKAIA

946 523 935

GIPUZKOA

943 903 450

NAFARROA

848 870 917

DEITU EDO BISITATU

www.bertako.eus

Bergarako Lacor-Ibili Taldea, 2022ko Gipuzkoako Enpresa

Gipuzkoako Bazkundearen saria jaso du sukaldeko eta ostalaritzako tresneria egiten duen eta bi familia-enpresaren bategitearen ondorio den taldea. "Nazioartekotze maila handia" eta "salmenta digitaleko estrategia irmoa" aitortu dizkiote sariarekin

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA 80 herrialde baino gehiagotan saltzen ditu produktuak Lacor-Ibilibik. "Kontsumoari lotutako produktuak" dira, "Gipuzkoako enpresen artean oso ohikoa ez den produktu mota", Gipuzkoako Enpresa saria ematean Bazkundeak azpimarratu zuenez; eta, berezitasun horri lotuta, enpresaren hainbat alderdi nabarmendu zituzten: produktuak azkar entregatzeko, logistika azpiegituran egindako inbertsioa; produktuaren garapenean, diseinuan eta berrikuntzan erakutsitako dinamismoa; online salmenta kanalararekin, besteak beste, merkatuaren eskakizunetara egokitu izana; bezeroen eta erabiltzaileen feedbacka lortzeko aukera ematen duen marketin digitaleko kanala garatu izana –merkatuaren joerak azkar

antzemateko eta marka merkatuan hobeto kokatzeko aukera ematen duena–; eta pandemiak ekarritako erronkari erantzuteko izan duen gaitasuna.

Azken horri dagokionez, Bazkundeak nabarmendu du Lacor-Ibili Taldeak bere historia-ko fakturazio marka ezarri duela –75 milioi eurotik gora, 2021ean–, pandemia aurreko salmentak %20 baino gehiago handituta: "Hori guztia posible izan da talde kohesionatu bat izateagatik, egoera berrietan aukerak bilatzearen aldeko apustua egiteagatik". Taldeak 180 langile inguru ditu.

Murekin lankidetzat

Lacor-Ibiliren produktuen garapena, diseinua eta berrikuntza nabarmendu ditu, besteak beste, Gipuzkoako Bazkundeak. Ibili-

ko zuzendari Iosu Rodriguezek dio "sarri berritzen diren eta etengabe merkatura egokitzen ari diren katalogo zabal eta dinamikoak" dituztela taldeko bi enpresek: "Dozenaka ideia berritzaile sortzen ditugu urtero. Geure diseinu taldearen eta kanpoko eragileen arteko elkarlanaren ondorio dira; Mondragon Unibertsitatearekin dugun harreman estua nabarmendu behar da, alde horretatik: eurekin dugun harremanak produktuen garapenerako hain beharrezkoak diren berrikuntza, freskotasuna, gaztetasuna, dinamismoa, purutasuna eta, zergatik ez esan, inozentzia, naturaltasuna eta bat-batekotasuna ere eskaintzen dizkigu".

Dibertsifikazioa –arriskuak prebenitzeko– da Bergarako enpresa taldearen arrakastaren



Iosu Rodriguez, Izaskun Larrañaga eta Joseba Azkargorta, sariarekin. XABIER URTZELAI

beste gako bat. Produktuari dagokionez, ostalaritzarako eta etxerako jardunda eta bakoitzarako, sukalderako zein mahairako, eskaintza zabala izanda; eta, "batez ere", dibertsifikazioa salmenta kanalei dagokienez, sarean eta kanal

fisikoan –merkataritza-gune handiekin, burdindegiekin, biltegi handiekin, etxetresna denda eta kateekin, ostalaritza hornitzaileekin...– jardunez: "Tamaina txiki eta ertaineko bezeroak dira, oro har, kantidadez ugari, eta Europa osoan sakabanatutakoak".

2021EAN 75 MILIOI EUROTIK GORAKO FAKTURAZIOA IZAN ZUEN TALDEAK, 180 LANGILEREKIN

Marketin digitala

Marketin digitalari ere zor dio, esan bezala, Lacor-Ibilibik bila-kaera baikorra. Iosu Rodriguezek dio taldean "beti" izan dutela "teknologia berriekiko in-

"Pandemiatik indartuta irtetea ez da kasualitatea"

IZASKUN LARRAÑAGA LACOR-IBILI TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gipuzkoako Bazkundeak emandako sariak gauzak ondo egiten ari direla esan nahi duela dio Larrañagak: "Enpresa berritzaileak, industrialak, esportatzaileak, sustraiak Gipuzkoan dituztenak saritzen dituzte, eta guri emateak esan nahi du enpresa horietakoa garela".

Nola hartu duzue Bazkundeak 2022ko Gipuzkoako Enpresa saria zuei eman izana?

Poz handiarekin jaso dugu. Azken urteak gogorak izaten ari dira merkatuarentzat, okororrean, zailtasunak kudeatzeko orduan, batez ere, eta halako sari bat jasotzeak berresten digu, ondorioz, gauzak ondo egin ditugula, eta energi-az betetzen gaitu, etorkizunean ere dakigun bezain ondo lan egiten jarraitzeko.



XABIER URTZELAI

Ez da, gainera, sari hau jaso duzuen lehen aldia.

Duela hogeitaz urte ere jaso zuen sari hau aurreko belaunaldiak, eta orain berrestea esan nahi du aitortzen digutela gauzak ondo egiten jarraitzen dugula. Belaunaldi

bakoitzak bere erara lortu ditu helburuak, baina beti balio beretan oinarrituta; balio haiei esker gaude gauden lekuan, eta haiek lantzen jarraitu behar dugu. Ez da kasualitatea pandemia gainditu ez ezik, bertatik indartuta irteten izana; lan egiteko eragatik eta pandemiaren aurreko urteetan hartutako erabakiengatik izan da. **Nazioartekotze maila handia nabarmendu du, besteak beste, Bazkundeak; nazioartekotzea, salmentei dagokienez, ekoizpenak Bergaran jarraitzen baitu –beste leku batzuetan ekoizten diren produktuak merkaturatu ere egingo duzue...–.** Bergaran ekoiztearen eta gure zenbait produktu munduko beste leku batzuetan egindakoak izatearen arteko konbinazioak

dakar gure katalogoa hain malgua izatea. Baina gure DNAn dago ekoizleak izatea, eta ekoizleak izatea gure herrian, Bergaran. Sustraidun enpresatzat dugu geure burua, eta horrela jarraitu nahi dugu. 80 urte daramatzagu Bergaran ekoizten, eta harro gaude horrela izateaz, zenbait unetan gerta daitezkeen zailtasunak gorabehera.

30.000 metro koadroko logistika zentroa duzue Dulantzin. "Online salmenta merkatuan ezartzen ari den joerari jarraikiz, eskaeren aurrean berehalako erantzuna eta produktuen entregan bizkortasuna lortzeko logistika azpiegiturretan egindako inbertsioa" ere azpimarratu du Bazkundeak.

Betiko merkatuari kasu egiteari utzi gabe, betiere. Logistikari dagokionez, gure merkatuko talde guztietara egokituko den askotariko zerbitzuen aldeko apustua egin dugu.



Gipuzkoako Bazkondeak saritutako enpresa guztietako ordezkariak, sari-banaketan. GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

teresa", eta milurteko berriko lehen urteetan hasi zirela marketin digitalarekin lanean: "Web-guneak garatzen hasi ginen, sareko posizionamendua lantzen eta gure bezero eta erabiltzaileekin sare sozialen bitartez harremanak izaten. Horrela sortu dugu sareko komunitate handi bat, egunero komunikatzen gara harekin, eta horrek laguntzen digu merkatuaren joera eta behar berriak azkar eta modu eraginkorrean ezagutzen eta ulertzen, eta produktuen garapena aurreikusteko, zerbitzua

hobetzeko eta abarrerako aukera ematen digu horrek".

Aurretik aipatutako guztiari pandemia batuta, enpresa bergararrak aurrez ikusi gabeko emaitzak iritsi ziren; hala azaltzen du Lacorreko zuzendari Joseba Azkargortak: "Hasiera

PANDEMIAN JENDEAK SUKALDERAKO HARTUTAKO JOERAK LAGUNDU EGIN DITU TALDEAREN EMAITZAK

batean, eta ohiko aisialdirako zeuden mugengatik, denbora sukaldean pasatzeko joera handitu egin zen. Gerora, baina, egonkortu egin da, hein handi batean, joera hori, eta, gaur egun, pandemia aurretik baino jende gehiago aritzen da sukaldean, izan beharragatik edo izan zaletasunagatik. Beste alde batetik, ostalaritza itxita eta telelana egitera behartuta, jende askok ez zuen sukaldean hasi beste erremediorik izan. Tresneria eskaria nabarmen handitzea ekarri zuten aipatu-

tako bi arrazoiekin". Eta Azkargortak dio egoera berriek eragindako beharrak aurreikusteko gai izan zirela, eta aparteko eskari horri erantzun ahal izan ziotela horrela.

Etorkizuna

Aurrera begira, Lacorren erronka da "hain emaitza onak ematen ari den digitalizazio prozesuarekin jarraitzea"; horrez gain, ostalaritza "behin betiko" errekuperatuko den itxaropena du enpresako zuzendariak, eta dio "egungo hornikuntza krisiak eta prezioenak" ahalik gutxien eragitea espero duela.

Ibiliri dagokionez, berriz, 80 urte beteko ditu aurreko enpresak, eta hazkundean egonkortzeko asmoz ospatuko du urtebetetzea: "Atzera begiratuta eta urteetako bilakaera aztertuta, aurreko bi urte berezi horien ostean, orain dugun helburua da azken urteetan lortutako hazkundearen zati handiena egonkortzen saiatzea".

Iosu Rodriguezen arabera, "ziurgabetasun garaian egon arren", arrakastara eraman dituen "estrategiaren kontzeptuak lantzen" jarraitzeko asmoa dute: "Batez ere, azken urteetan gehitu ditugun zenbait baliotan sakontzekoa: zintzotasunean eta ingurumenaren errespetuan, bereziki. Era honetara nahi dugu alaitz bizkorren beste bultzada bat lortzeko geure burua indartzea". Eta guztia, duten "pertsona talde oso profesionalarekin".

Aste Santu ostean, maskararik gabe barrualdeetan

Espainiako Gobernuaren esku-mena da maskararena, eta apirilaren 19ko Ministroen Kontseiluan onartuko da arau berria. Behin erabakia hartuta, Errege Dekretua aldatu behar da, eta Espainiako Gorteek onartu behar dute aldaketa. Ondorioz, Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen den unean izango da behin betikoa arau aldaketa; apirilaren 20 edo 21ean indarrean sartzea aurreikusten da. Carolina Darias Osasun ministroak aurreratu duenez, baina, gutxienez hiru eremutan derrigortasunak bere horretan jarraituko du oraindik: garraio publikoetan, zentro soziosanitarioetan eta osasun zentroetan.

Joseba Arregi presoak bigarren gradura itzularazi dute

"Haserre eta gaitzespena" adierazi ditu Etxeratek, Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskaltzak helegitea jarri ondotik, preso onatiarra bigarren gradura itzularazi dutelako: "Fiskaltzak, tratamendu-batzodearen [Martutenekoa, kasu honetan] irizpidearen [Jaurlaritzak onetsia] aurkako errekurtsioa sustatu du; baina batzordea da presoaren bizitzaren eta bilakaeraren nondik norakoak benetan ezagutzen dituen, eta, beraz, erabaki bat hartzeko modu objektiboan baloratu behar diren elementuak dituen; horregatik, ez dugu uste egokia denik, idazki batean oinarriturik, urrun dagoen auzitegian erabakia hartzea".

Ekidek 15 milioi euro inbertituko ditu San Andresko lantegian

Ekideren instalazio berriek 58.000 metro koadroko industria eremua hartuko dute –Fagor Etxetresnena izandakoa–. Eraberritze eta egokitzapen lanak 2022an egingo dituzte, eta lantoki berria 2023. urte bitartean jarriko da martxan, progresiboki. Jarduna San Andresera eramateko, 15 milioi euroko inbertsioa egingo du Ekide Groupek.

Fagor Electronica, nazioartekotzeagatik saritua

Lacor-lbilirentzat izan da Bazkondeak banatzen dituen sarietan garrantzitsuenak. Beste kategorien artean, baina, Arrasateko Fagor Electronicak ere jaso du aitortza, Enpresa Nazioartekotzea deritzona, hain justu ere, "nazioartekotzen aitzindari izateagatik –1992an jarri zuen Asian lehen ekoizpen planta; Mondragonen aurrenekoa–" eta "nazioartekotze bultzada berriutuagatik –bi urteotan beste lau herrialdetan ezarri da–", Bazkondeak arazoitu duenez.

520 langile eta zazpi lantegi ditu Fagor Electronicak, sei herrialdetan –Thailandian, Txilen, Mexikon, Turkian eta Kolonbian ere badago–. Esportazio maila

%70etik gorakoa du, eta, 2016tik aurrera, hainbat sektoretan osagai elektronikoak sartzen hasita eta kooperatibak nazioartean lortutako posizionamenduaren ondorioz –Toyota, Airbus, Robert Bosch, Grupo Antolin, Siemens, Electrolux, Eika, Copreci... ditu bezero–, atzerriko bigarren ezarpen prozesu bat egin behar izan du, bezeroak euren herrialdeetatik hornitzeko. Taldearen fakturazioa 75 milioi euro ingurukoa izan zen iaz, salmentak Europa, Asia eta Amerika artean banatuta.

Kooperatiban, gustura

Fagor Electronican "oso pozik" jaso dute Bazkondearen saria.




Fagor Electronican lanean. F.E.

Monica Vaz presidentearen arabera, nazioartekotzea eta lantegiak bezeroen herrialdeetan euren edukitzea ezinbestekoa da kooperatibarentzat, batez ere, Ekoizpen Elektronikoko Zerbitzuen

negozioan: "Zirkuitu logistikoa oso zaila da bezeroarengandik urrun bageaude". Geopolitika kontuan izanda ere, bezeroentzat oso garrantzitsua da gertu egotea, arriskuak gutxitzeko.



Osintxuko zubi zaharrean.



Antzuolakoak –ezkerrean– eta Elgetakoak Bergaran sartu ziren Korrika ofizialean.



Bergaran, Jardun euskara elkartearen lekukoa eramaten.



Angiozarkoak ere antxintxika, Bergaratik Elorregira bidean.

Ika, ika, ika... igaro da Debagoienetik Korrika

Apirilaren 1ean zeharkatu du Korrikak Debagoiena. Kanpoan hotz baina barruak bero, debagoienarrek bat egin dute euskararen festa handiarekin; herri guztiak zeharkatu ez baditu ere, ez da inongo ordezkartzarik falta izan



Elorregiko auzotarren izenean.



Furgoneta barrutik.



Potx, Lotx eta Izaskun, oñatiarren kilometroa egiten Elorregitik Arrasaterantz. ARGAZKIAK: AEK ETA GOIENA

22. korrika

HITZEN

GU ERE KORRIKAN EUSKARAREN ALDE!



Mondrakoen unea, euripean.



Arrasateko Erdur AEK euskaltegiko ordezkariak ere eraman zuten lekukoa.



Aretxabaletako Aratz elkarteko kideak lekukoarekin.



David Garcia, Maria Jesus Ibabe eta Ane Irazabal Goienakideek eraman zuten Goienaren lekukoa Aretxabaletan.



Eskoriatzako Udalak egin zuen herriko lehen kilometroa.



Lantokiko arropak jantzita korrika.



Leintz Gatzagan, aldapan gora pasa da Korrika aurtengo edizioan ere.



Gipuzkoako azken kilometroa eta Arabako lehenengoa egin zituzten aramaiorrek.



**GU ERE
KORRIKAN
EUSKARAREN
ALDE!**



ZABALIK

LANDER BELOKI MENDIZABAL

Gerraren eraginak ekonomian

Ukrainako inbasioak eragindako gerra ondorio latzak sortzen hasi da. Sarraski humanitarioa da denetan gogorrena, noski, baina ekonomian ere kalte larriak nabari dira. Inflazioa itzuli da eta bere lehen eragin gogorrak pairatzen hasi gara.

Ekonomia azken bi urteetako pandemiaren eraginetik irteteko egokieran zegoen unean, Europako erakundeek errekupeazioa bultzatzeko inoiz ez bezalako laguntza planak abian jarritako momentuan bertan, gerra sortu da Europa erdian. Sinesgaitza.

Berriki, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko (ELGA-OCDE) ekonomialari-buruak, Laurence Boonek, adierazi du lehengaien prezioen igoerek eta finantza merkatuen gorabeherak, gerrak aurrera egiten duen neurrian,

ERAGILE GUZTIEN ARTEKO ARDURA PARTEKATUA ERABAKIGARRIA IZANGO DA

BEG globala, gutxienez, %1 jaitsiko dutela, Errusian krisi ekonomiko sakona sortuz, eta inflazio globala, gutxienez, %2,5 igoko dela. Zifrak oso gutxi gorabeherakoak dira; gerra luzerako badoa, eragina okerragoa izan daiteke.

Egoera horren aurrean, hainbat neurri hartzeko konpromisoak adierazi dituzte agintariek. Errusiaren energiarekiko menpekotasuna murriztea beharrezkoa izango da, baina horrek denbora eskatzen du. Laburrera, enpresek eta familiek beren kostuetan dituzten igoerak gutxitzea bideratutako neurriak hartzea beharrezkoa izango da, jarduera ekonomikoan, enpleguan eta kontsumoan gerraren eragina moteldu dadin. Prezioen hazkuntzari dagokionez, oraingoz, energiarena eta elikagaienak izan dira, batez ere, igo direnak. Gizarteko eta ekonomiako eragile guztien arteko ardura partekatua erabakigarria izango da, prezio hazkuntza horiek ekonomiako gainerako prezioetara ez bideratzeko bere horretan, inflazioa kointurala izatetik egiturazkoa izatera pasatu ez dadin. Hori lortzen bada, krisi ekonomiko sakona saihesteko aukeran egon gintezke. Baina horretarako, lehen baldintza gerra lehenbailehen amaitzea da.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hitzekin

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Hitzeekin da 2022ko Korrikaren goiburua. Hitzekin egiten da hizkuntza. Baita euskara ere. Horregatik aproposa, egokia da aukeratutako goiburua. Egun hauetan ehunka kilometro egingo dira korrika euskararen aldeko konpromisoa agertzeko. Baina konpromiso hori hitzekin jantzi behar da gero. Euskaraz hitz egitea eta idaztea dugu erronka.

Edozein esparru jantzi behar da euskarazko hitzekin, euskarak ez duelako inolako mugarik

izan behar. Nolanahi ere, badira arreta berezia merezi duten esparruak. Unibertsitatea eta lan-mundua dira horietako bi.

Lan-munduko arlo askotan euskarak tokirik ez omen duelako, asko dira D ereduan ikasketak egin arren gerora unibertsitatean euskarari bizkarra ematen diotenak. Antza, mundu profesionala eta euskara ez dira bateragarriak hala pentsatzen dutenentzat.

Mundu profesionala euskaratzeko premiazkoa da aldeztu aurretik behar den moduan trebatzea. Hori da egin beharreko bestelako korrikaldia; unibertsitatean hasi beharrezkoa, alegia.

Alabaina, unibertsitatean euskal ikasleak ez ezik euskal irakasle eta gaiak ere behar dira.

Bestela esanda, eskariak eta eskaintzak eskutik joan behar dute.

Euskal ikasleak ugari ez izan arren ere, eskaintzari eutsi beharko litzaioke beti, badirelako euskaraz eskaini gabe utzi diren irakasgaiak, ikasle-kopuru urria aitzakia hartuta.

Zinez, Korrika baliagarri zaigu hori guztiori irudikatzeko, eta aurtengo goiburuak argiro erakusten digu zein garrantzitsua den hitzak baliatzea euskararen aldeko lanabesik aproposena bezala.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014**ISSN:** 2174-369X**Tirada:** 19.000 ale**Difusioa:** 18.723 ale**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO****KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Horrelako gehiago behar dugu; zorionak, Fagor!

OLATZ OLASO ETA AMAIA BALDA
EMUN AHOLKULARITZAKO KIDEAK
ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta Anton Abaddia saria Fagor Taldeari emateko ekitaldian egon ginen pasa den ostiralean. Fagor zoriontzea dagokigu beste ezer baino lehen eta aitortzea urteetan Fagorren euskararen biziberritzean lanean jardun dutenak.

Poztu gaitu ikusteak Fagorreko kide askorentzat Abaddia saria errekonozimendu bat ez ezik aurrera jarraitzeko bultzada bat ere badela.

Pentsatu nahi dugu sari honek Fagorri emango diola bultzada eta babesa hurrengo urteetarako bere buruari jarritako erronketarako, eta Fagorretik haratago, sari honek balioa digula herri gisa euskara planei dagokien lehenatasuna emateko.

Fagor Taldeko kooperatibetakoak bezalako esperientzia gehiago behar ditugu. Badaude egon, gutxienez hogeita bost urtean izugarritzko eginahalak egiten ari direnak euren enpresetan euskaraz lan egiteko, baina ari diren horiei batere meriturik kendu gabe, aitortu behar dugu gutxi batzuek asko egitearekin nekez euskaldunduko dugula lan mundua. Asko egingo

du ten asko behar ditugu eta horretarako estrategia eraginkorrak eta bateratuak behar ditugu: arlo sozioekonomikoak heldu egin behar dio euskararen biziberritzean daukan erantzukizunari, gizarte eragileek babestu eta hauspotu egin behar dute sustapen hori eta erakunde publikoek araua eta baliabideak barnebilduko dituen marko egokia eskaini behar diete enpresei.

Ez genuke bukatu nahi Fagorri eskerrak eman gabe. Bidelagun hitza oso erraz erabiltzen dugu sarritan, baina Fagor eta Emunen arteko harremana bezalakoak dira bidelagun hitzari balioa ematen diotenak. Fagorrek alboan gaitu euskara indartzeko prozesuan, behar duen horretara egokituz eta, era berean, iparra inoiz ahaztu gabe. Eta Emunek Fagor alboan dauka, esperimintatzeko prest, erabaki zailetan konfiantza emanez eta erantzukidetasuna egunerokora ekarriz. Elkarren konfiantzan oinarritutako harremanek lur emankorra eraikitzen dute eraldaketa prozesuetarako.

Eskerrik asko, beraz, Fagor, eta zorionak egindako ibilbidearengatik. Patxi Saezen elefantetik eta Anton Abaddia sarira, balio dezala azken honek euskara planak behar adina hauspotzeko.

Agur eta ohore, Andoni!

AMAIA ANTERO INTXAUSTI
ARETXABALETA

Apirilak 4 dituen honetan, eta sentitzea baino esatea errazagoa den une hauetan, betirako hartu zaitu loak, Andoni. Eta maite zaitugunok triste gaude. Bai, sentitzen dugun maitasunaren tamainakoa izaten baita galerak eragiten duen samina.

Baina tristura horri leku egin ahala, barruagotik, sakonagotik datozen esker oneko hitzak eta sentipenak agertzen dira. Ederra izan da zu bidelagun, lagun izatea, Andoni. Euskalgintzak elkartu gintuen lehenik. Geroztik, herrigintzaren beste eremu batzuetan jardun dugu elkarrekin; hain gure sentitzen dugun ikastolan, bereziki.

Eta bidean ikasi dugu pertsonarik gabe komunitaterik ez dagoen moduan, ez dagoela pertsonarik komunitaterik gabe. Komunitatea zaintzea pertsonari garatzeko behar duen hori ematetik datorrela, hain zuzen ere. Eta nekez egin dezakegula lan herri libre baten alde geure barruko mamuen eta loturen esklabo garen artean. Abertzaletasunak, euskarak, ikastolak, kooperatibagintzak, beste herri batzuekiko interkooperazioak eta baserri munduak mugitu zaituzte, Andoni. Eta horren

guztiaren oinarrian pertsona oso eta sendoak garatzen laguntzeak. Ze ederra izan den zu testuinguru horietan guztietan jarduten ikustea... Gure agropunk abertzale maitagarria...

Anderrek dion moduan, urtetan neurtu ohi dugu pertsona baten bizitza, baina bizitakoaren intentsitatearen arabera neurtu beharko genuke benetan. Eta zuk, Andoni, hiru bizitza edo gehiago bizi izan dituzu. Bejondeizula!

Ikastola, aitortzeko moduko eredia izeneko idatzia izan da zure azken ekarpena. Hezkuntza-lege posible baten atarian gauden honetan, zenioen hezkuntza-eremuan dugun "lorategi botaniko organizazional honetan" berezko balioa duela dibertsitateak. Uste dut eragile bakoitzari egindako ekarpena aitortzea eta horri guztiari leku egitea desio zenituela. Nik, behintzat, bai. Ea horretan herri honek hain beharrezkoa duen elkarlan eta batasunean urratsak ematen jarraitzeko gai garen.

Pertsonak, bere onenean kokatuta dagoenean, dir-dir egiten du. Eta, argi-ilunak argi-ilun, dir-dir egiten duten pertsona asko daude, zorionez. Beste asko, zu moduan, joan egiten zaizkigu, baina dir-dir egiten jarraitzen dute. Batzuk zein besteak inspirazio-iturri dira guztiontzat. Guk badugu nora begiratu. Agur eta ohore, Andoni!

Prezioak bakarrik ez, erradioaktibitatea ere igotzen ari da

JOSU GARITAO NANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Eguneroko gauzen prezioak bakarrik ez, Txernobyl inguruan erradioaktibitateak ere gora egin du; izan ere, otsailaren 24an Ukrainako gerra hasi zenean, mugimendu handia izan zen Txernobyl inguruan, eta, hain zuzen, hauts erradioaktiboa aireratzean erradioaktibitate maila hogeai aldiz igo zen.

Martxoaren hasieran, berriz, elektrizitaterik gabe gelditu zen zentral nuklear hura; hala, ikusita errusiarrek eta ukrainarrek euren gatazkagatik ez zutela kasurik egiten, bielorrusiarrek zentral nuklearreko argindar sarea konpondu zuten.

1986ko istripuan, Bielorrusia izan zen kaltetuena.

Gizakiaren zorotasunak ez dauka mugarik; arma nuklearrak, momentuz, ez dituzte erabili, baina mehatxua hor dago. Armamentu normalarekin zentral nuklearrak bonbardatu dituzte.

Guk egin dezakegun apurra da ez erostea zentral nuklearrak erabiltzen dituzten argindar-enpresei.

Eta zuk nori erosten diozu argindarra?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen bidegorri zatiak 160 metro izango ditu. HASIER LARREA

Araba etorbidetik Foruen plazara, sarea osatzeko

Aste Santuaren ostean hasiko dituzte Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen bidegorria egiteko lanak; 160 metro inguruko zatia egingo dute, eta, hori bukatzean, Uribarritik Gipuzkoa etorbideraino lotuta egongo da bidegorri sarea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko bidegorri sarea osatzen ari da, apurka. 2015ean, Arrasate pasealekuko zatia gauzatu zuen Udal Gobernuak; 2017an, Uribarriko atzealdekoa; 2020an, Araba etorbidekoa; eta aurren, *Ekobulebar*-a bukatu ostean, Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen zatia egingo du, 160 metro ingurukoa.

Construcciones Egurki SL enpresak egingo ditu lan horiek, 316.566,65 eurotan esleitu ostean. Aste Santuaren ostean hasiko dira bidegorri zatia egiten, eta, aurreikuspenaren arabera, hamabost aste beharko dituzte bukatzeko. Modu horretan, 2022ko bigarren seihilekoan bukatuta egongo da bidegorri zatia. "Azpimarratzekoa da Bedoñabe Herri Eskola eta Arizmendiko Arimazubi gunea daudela inguru horretan, eta ahalbidetu gura dugu haurrek aukera izan dezatela modu seguruan eskolara joateko, oinez, bizikletan edo

patinetean. Gaur egun, hori ez da posible, baina interbentzio hau egitean posible izango da", dio Maria Ubarretxena alkateak. "Hori dela eta, gura dugu datorren ikasturtea hasi baino lehen bidegorri zati hori bukatuta egotea, baina, materialekin eta stockarekin dagoen arazoa ikusita, ezin dugu ziurtatu hala izango denik. Halere, ahaleginak egingo ditugu horretarako".

Bidegurutzean, aldaketa

Alkateak adierazi du inguru horretako errepideko bidegurutze batean aldaketak egiteko baliatu gura dutela bidegorri zatia egiteko interbentzioa. Era horretan, behin obra amaitzean, Garro Jenerala eta Errebuelta kaleeta-

ra sartu-irtenak egitea posible izango da Alfontso VIII kaletik -argazkian ikusten den bidegurutzea-. Izan ere, gaur egun, Doctor Bañez kaletik eta Kurtzetxiki plazatik bakarrik iritsi daiteke kale horietara autoz.

Edozelan ere, obraren helburu nagusia, Ubarretxenaren esanetan, auzo "atseginagoa" sortzea da, "garai berrietara egokituz, oinezkoentzako eta bizikletentzako espazioak irabaziz eta trafikoa murriztuz". Era berean, ingurua berrurbanizatzeko herriararen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetuko duela uste du.

Argiztapen egokia inguruan

Azkenik, "segurtasuna bermatzeko", argiztapen egokia gura du alkateak inguru horretan. "Eguzki-energia lortuko duten eta LED bonbillak erabiliko dituzten argi-puntuak ezarriko dituzte. Horrela, argi-kalitate hobea eta kontsumo txikiagoa lortuko da", nabarmendu du.

**AURREIKUSPENA DA
2022-2023
IKASTURTEA HASI
BAINO LEHEN
BUKATZEA LANAK**

Kaleetan emakumeen izenak jartzeko lanean ari da Gobernua

Berdintasun zinegotzi Johanna Sanchezek jakinarazi du Arrasateko kale-izendegia "feminizatzeko" lanean ari direla

E.A. ARRASATE

Berdintasun Sailak Arantza Otaduy gonbidatu du batzordera, hark Arrasateko kaleen nomenklatura aztertu eta kaleen izenak aldatzeko ekimena abiatu ostean.

"Harrotasunez esan daiteke Arrasateko historian hainbat eta hainbat emakume garrantzitsu daudela, hemen jaiotakoak izan ala ez: filantropoak, enpresaburuak, fundatzaileak, hiri-sustatzaileak, kirolariak, artistak eta, 2007tik, alkateak", azaldu du Sanchezek, eta gaineratu du Berdintasun Sailak bere egin nahi

dituela Otaduyren proposamenak: "Alde batetik, Otalora Lizentzia-duna eta Azoka kaleen arteko bidegurutzean eraiki zuen San Frantziskoko komentu ikastetxearen iparraldeko aldeari Maria Asencio Garibay Lorategia deitzea, Arrasateko lehen ikastetxe haren sortzailea izan baitzen; bestetik, Biteri Eskoletan dagoen plaza Celina Wood & Bland plaza izatera pasatzea, haren senarraren izena, Pedro de Viteri, ordezkatzuz, beraren izenak jada beste espazio publiko bat izendatzen baitu".

Biziarteko kartzela-zigorra salatzen manifestazioa bihar

Arrasateko Sarek deituta, 18:00etan Biteri plazatik abiatuko dira, 'Biziarteko kartzela zigorrak ez!' lelopean

E.A. ARRASATE

"Arrasatearren gehiengoa biziarteko espetxe-zigorraren aurka gaude eta hori kalean erakustera gonbidatu nahi ditugu herritarrek", diote Saretik. Azken urteetako mobilizazio handien argazkia errepikatzen duena da, Sarearen esanetan, eta haien aldarrikapenak ez dira aldatu. "Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea eskatuko dugu, artatzea senideen babes eta konfiantzazko medikuarekin egin ahal izateko", diote. "Sakabanaketak eta urrunketak amai-

tu egin behar du eta preso guztiek Euskal Herriko kartzeletan egon behar dute, etxekoengandik gertu". Halaber, kartzelan haurrak dituzten gurasoek elkarrekin egoteko eskubidea dutela ere azpimarratu dute, eta adinean aurrera doazen presoek etxean egon behar dutela ere bai, "euren osasuna zaindu ahal izateko". Azkenik, euskal preso guztiek gradu progresioa izateko eskubidea dutela adierazi dute.

Manifestazioaren ostean, txalapartariak eta Olatz Salvadorrek jarriko dute musika, Biterin.

Domekan ospatuko dute Espainiako II. Errepublikaren Eguna

Apirilaren 14an da Espainiako II. Errepublikaren Eguna, baina domekan ospatuko dute Deba goieneko Ezker Anitzak eta Euskadiko Partidu Komunistak, "Aste Santuko ospakizunekin bat ez egiteko". 12:00etan, bandera jasoko dute, *Riegoren ereserkia*-ren erritmora, eta ostean, hamaiketako egingo dute, musikaz girotuta.

Bazkideendako ate irekiak, gaur, San Felipe beilatokian

17:00etatik 19:00etara egingo dituzte Ignacio Zuloaga kaleko 2. zenbakian egin duten beilatoki berria erakusteko saioak. "Beilatokia bazkideen eskariari erantzuteko eraiki da, kokapen hurbila, modernoa eta prezioan doitu izateari dagokionez, azken igarobidean maite dituzten pertsonen agurra eta bela egiteko", azaldu dute San Felipetik.

Parte-hartzea oso baxua izan da Erguin auzoan

TAO sistema ezartzearen alde agertu dira Erguin auzoko zortzi kale eta gainontzeko zazpitan, aldiz, ezezkua nagusitu da; Udal Gobernuak dio apirileko osoko bilkuraren ostean irekiko dela alegazio epea eta orduan aurkeztu beharko dituztela eskaerak

Eneko Azurmendi ARRASATE

430 boto eman dituzte Erguin auzoan egindako galdeketa. TAO ezartzea gura duten edo ez erantzun behar zuten auzotarrek, eta, oro har, ezezko botoak gehiago izan dira: 225 ezezko, 192 baiezko, 12 baliogabeak eta 1 zuria. Edozelan ere, kalez kaleko emaitzak jaso dituzte, eta, modu horretara, kale gehiago dira TAO jartzearen alde daudenak kontra daudenak baino.

Sistema ezartzearen alde egin dutenak honako hauek dira: Kalealdea, Larrea plaza, Usaetxe plaza, Jauregibarria, Anboto, Erguin, Elizalde eta Uriburu. Aurka azaldu direnak, berriz, hauek dira: Maitena, Etxeoste, Olan, Etxeazpia, Larragain, Udape eta Itxaropena.

Andoni Altzelai auzo-alkateak "sorpresaz" hartu du galdeketa izan duen parte-hartze baxua. Izan ere, 2.200 etxebizitza daude auzoan eta 430 boto besterik ez dute jaso etxebizitza bakoitzak

boto bat emateko aukera izan du. Beraz, parte-hartzea %19,54koa izan da. "Egia esan, uste nuen askoz ere boto gehiago jasoko genituela, baina ez da hala izan. Edozelan ere, auzotarrek hala erabaki badute, horrela geratuko da".

Altzelai dioenez, diferentzia handia ikusi dute goiko eta beheko kaleetan. "Gorostizan, esaterako, sei kaletik bostetan ezezkua bozkatu dute. Beheko kaleetan, berriz, garbi ikusi da auzotarrek TAO ezarri gura dutela, zazpi kaletan baiezkoa irten delako eta bitan, ezezkua".

Aintzat hartuko da erabakia

Udal Gobernuak adierazi du apirilaren 12an egingo duten osoko bilkuraren ostean irekiko dela alegazio epea eta Erguingo auzotarrek epe horretan aurkeztu beharko dituztela haien eskaerak, galdetegiaren emaitzetan oinarritutakoak. "Aintzat hartuko ditugu eskaerak".



Joan den egubakoitzean zenbatu zituzten auzotarren botoak. MIREN ARREGI

NIRE USTEZ



IBON ARRUPÉ

TAO... Ordua zen!

Guztioi tripako mina ematen digun arren eskua poltsikoan sartu eta txanpona atera behar izateak -ai, ama! Irabaztea kostatzen denarekin!-, ukaezinak dira TAOren zabalkundeak arrasatearren bizi-kalitatean ekarri dituen hobekuntzak. Ikusi besterik ez dago Grupo San Juan eta Munar auzoetan etengabe aparkaleku bila zebilen trafikoa nola desagertu den, bizitzeko askoz auzune atsegina bihurtuz. Aspaldiko partez, San Andresko eta Aldaiko auzotarrek ere beraien atarrietatik gertu aparkatu dezakete eta alde zaharrak bizitzeko erakargarritasuna irabazi du, etxera bueltan non aparkatu erraz aurkitzen baitu bertan bizitzera animatu denak. TAOren arrakasta ere bada; ume, adindu eta berauen zaintzaileentzat espazioak birkonkistatzerakoan desagertu diren aparkalekuak apenas igarri direla faltan, egoiliarren aparkatzeko gune libreak nonahi baitaude. Horrela, ba, onura hauek guztiak ikusita, Erguin auzuneko kale gehienek TAOren aldeko apustua egin dute, badakitelako TAOrekin auzoak balioa irabaziko duela; jasangarriagoa, lagunkoiagoa eta inklusiboagoa bihurtuz.

2022ko 03/31tik 04/21era arte

EROSKI
ARRASATE

Musakola ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Udaberria

bizi

DIAMOND
ABS kabina trolley-a
- Alboko konbinazio-saraila, eusteko baruko gomak eta kremailadun baruko poltsikoak.
- Petrolio, arrosa edo gris kolorea.

39,90 €

Neurriak:
• 60 cm 49,90€
• 70 cm 59,90€

Konkistatu iburuko digitalak

Bada futboleko jokatzeko beste era osasuntsu bat

Real Sociedad Fundazioak Walking Football ekimena abiatu du (futboleko oinez), 55 urtetik gorakoek futbolaz goza dezaten. Joan den astean hasi ziren, Zubietan, eta Arrasaten ere sortu dute taldea. Eguazteneko egingo dituzte saioak, ekainaren 22ra arte

Eneko Azurmendi ARRASATE

55 urtetik gorakoei beste kirol aukera bat eskaintzea da ekimenaren helburua, Markel Perez entrenatzaile arrasatearrak azaldu duenez. "Futbola kirol gogokoa da gurean eta parte-hartzaileendako aproposa da. Ari-keta ludikoak egiten ditugu; futbolekin erlazioz gertatzen direnak, betiere. Adina kontuan izanik, baldintza seguruetan eta osasuntsuetan egin ahal izateko, arau batzuk aldatu egiten dira. Esaterako, korrikarik ezin da egin, kontaktua saihestu behar da eta buruarekin ezin da baloia jo", nabarmendu du.

Bi talde sortu dituzte Gipuzkoan: Donostian bata eta Arrasaten bestea. Bigarren hori eguazteneko elkartzeko da Mojategin, ekainaren 22ra arte – apirilaren 20an izan ezik, Pazko Astea dela eta–. Perezek aitortu duenez, askotariko profilak dituzte taldeak; hau da, futboleko jokatu izan dutenak eta inoiz jokatu ez dutenak. "Dena den, bagenekien hori pasa zitekeela, eta saiatzen gara guztien neurria egiten eta guztiek ondo pasa dezaten".

Lehen, gonbidatu bereziekin

Alberto Gorritz eta Mikel Loinaz Realeko jokalariei ohiak ere izan



Parte-hartzaileak, eguazteneko egindako entrenamenduan, Mojategin. E.A.

dira lehen saioan, gonbidatu berezi, entrenamenduei hasiera emateko. "Esperientzia berria da guretzat eta jende berria ezagutzea beti da aberasgarria. Guk ere, kirol apur bat egiteaz gain, barre batzuk egiten ditugu, eta hori da inportantea. Ikusiko dugu ea jende gehiago animatzen den; merezi du", azaldu du Gorritzek.

Izen-ematea zabalik dute

Dagoeneko lehen saioa egin eta martxan badaude ere, izena eman daiteke oraindik, Musakolako

kiroldegian galdetegi bat beteta edo Real Sociedad Fundazioarekin harremanetan jarrita, fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus helbidera idatzita edo 943 46 28 33 telefonora deituta.

Hasiera besterik ez dela azpimarratu du Perezek, eta gura dutena dela jendea pixkanaka kirol hori praktikatzeko hastea. "Denboraldi amaieran, Arrasateko eta Donostiako taldeak elkartzeko eta jardunaldi bat egitea da asmoa". Oraingoan, ez dute aurreikusten txapelketarik egingo, baizik eta topaketak.

Zer da Walking Football zuretzat?




MARKEL PEREZ
ENTRENATZAILEA

"Korrikarik ezin da egin, kontaktua saihestu behar da eta buruarekin ezin da baloia jo. Futboleko jokatu izan dutenak eta inoiz jokatu ez dutenak daude taldean. Bagenekien hori pasa zitekeela, eta saiatzen gara guztiek ondo pasa dezaten. Oraindik izen-ematea irekita dugu eta ahalik eta jende gehien batzea da asmoa".



MIKEL LOINAZ REALEKO
JOKALARI OHIA

"Guretzat ezberdina izan arren, gustura ari gara, eta parte-hartzaileak ere pozik ikusten ditugu. Azken batean, hori da helburua, ondo pasatzea eta giro osasuntsuaz gozatzea. Beharrezkoa da erretiroa hartuta dutenentzat halako ekimenak sortzea, aisialdirako beste aukera bat eskaintzen dietelako".



MARIJE ETXEBARRIA
PARTE-HARTZAILEA

"Ez nekien Walking Football zer zenik ere. Baina Sasoibiden horren berri eman ziguten eta lau lagun animatu gara parte hartzera. Egia esan, oso gustura nago, aukera ona egin dugula iruditzen zait, eta Gorritz eta Loinaz oso jator aritu dira. Gure adinarekin, inportantea da horrelako ekimenetan parte hartzea".



JESUS MARI APRAIZ
PARTE-HARTZAILEA

"Saiatzen naiz kirol apur bat egiten, baina baneukan gogoia berriro ere futboleko jokatzeko, garai batean jokatuakoa naiz eta. Gainera, jende jatorra elkartzeko gara eta ondo pasatu dugu. Aberasgarria da halako ekimenak egotea, eta jende gehiago animatu beharko litzatekeela uste dut; oraindik, parte-hartzaile gutxi gaude".

Asteon egin ahal izan dute

Joan den egubakoitzean ziren egitekoak Korrika Txikia, baina atzeratu egin zuten, eguraldi txarragatik. Hala, martitzenean irten ziren Arrasate Herri Eskolako zein Arizmendi Ikastolako ikasleak herriko kaleetara, eta, eguraldia lagun, gustura eraman zuten lekukoa Txatxilipurdiko furgonetaren atzetik. Argazki guztiak, Goiena.eus-en ikusgai.



ARRASATE HERRI ESKOLA

'Pumptrack' parkea non kokatu aztertzen ari da Udal Gobernuak

2021-22 aurrekontu parte-hartzaileetako proiektuen artean dago pumptrack parkearena, eta herriarren artean bolo-bolo dabil gaia. San Kristobal eremuan jartzeko proposamena jaso zen aurrekontu parte-hartzaileen eskuorrian, baina Udal Gobernuak beste hainbat eremu posible ere baditu esku artean; esaterako, Markulete.



Portaloï optikako betaurrekoak.




Lur kolore arropak Markiegik.



Kapikuako soinekoa eta txaketa.



Kolore argiko prakak Trokon.



Emakumeendako lentzeria Promisen.




Umek, gaztetxoendako arropa.

Udaberriko eskaintza erakutsi du Ibai-artek

Oihana Elortza Gorostiza ARRASATE Amaia antzokian egindako Ibai-arte merkatarik elkartearen moda desfilean herriko hamabost komertziok hartu zuten parte; 65 pertsona modelo lanetan aritu ziren, horietatik 61 bailara-

koak, eta estilistak ere ondoan izan zituzten makillatzen eta orrazten laguntzeko. Antzokiko ohol-tza erakusle-ihor bihurtu zuten zapatu iluntzean merkatariek, dendetako arropak, osagarriak, etxeko produktuak, bitxiak, ba-

serritar jantziak eta abar erakusteko. "Dendetan duguna erakustea izan da helburua, eta aurtengo bestelako ekintzak ere bide horretatik joango dira", zioen Jon Apraizek, Ibai-arteko kideak, desfilearen amaieran.



Josleko txalekoa.



Bea lentzeriako pijama eta bata.



Herritarrak moda desfilea ikusten, Amaia antzokian. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Gaztetxoendako aukera Tipitapan.




Ennea jantzi dendako arropa.




Elkoro bisuteriako apaingarriak.



Umeendako pijama, Sikol lentzeriako.



Zubiaga bitxitegiko bitxiak.



Etxerako tresnak Resusta-Karrikirin.



Kilikolo dendako arropa.



Errioxarren kontra martxoaren 12an jokaturako ligako partiduen irudi bat, Mojategin. IMANOL SORIANO

ARTk hankak lurrean mantendu nahi ditu

ERRUGBIA Arrasateko taldeak aste barruan erabaki du Ohorezko B Mailara igotzeko fasea ez jokatzeari. Maila horretan jokatzeari bideragarria ez dela jakinda, ez dute fasean dirutza xahutu nahi. "Euskal Ligako 'play-off' -a dugu begiz jota", dio Barrutiak.

Xabier Urzelai ARRASATE

Askotan, zaila izaten da hankak lurrean mantentzea, eta are zailagoa kirol erronkez berba egiterakoan. Baina Arrasate Rugby Taldeko kideek garbi dute Ohorezko B Maila ez dela, orain momentuan, euren kategoria. Eta bai Euskal Liga. Hori horrela, nahiz eta erabaki zaila izan den, Ohorezko B Mailara

igotzeko fasea jokatzeari zentzurik ez daukala erabaki dute aste barruan.

Hirugarren postuari esker

Arrasatekoek kategoriako lider La Unicaren kontra jokatu dute, zapatuan, ligako azken partidua. Baina, edozer gertatzen dela ere, etxekoek hirugarren postuan amaituko dute liga, eta

postu horrek Ohorezko B Mailara igotzeko fasea jokatzeko txartela eman die. Aurreratu bezala, baina, ez jokatzeari erabaki dute. "Igoera fase hori, seguruenik, Lugon jokatu behar genuke. Eta badakigu orain momentuan ez dugula Ohorezko B Mailan jokatzeko mailarik. Hori liga erdi-profesionala da, taldeek fitxaketak egiten dituz-

te, eta guk ez dugu horretarako aukerarik. Pentsa, biharko kontrario La Unica maila horretatik jaitxi berria da. Aurten, erraz ibili dira gure ligan, guri 40 puntuko aldearekin irabazi zituten, eta iaz, urte osoan bi partidua baino ez zituzten irabazi. Hau errugbia da, eta maila oneko eta fisikoki indartsuagoak diren taldeen kontra jokatzeari garesti ordaintzen da; besteak beste, lesioekin", adierazi du kirol zuzendari Julen Barrutiak.

Hala, Arrasatekoak aitortu du erabakia ez dela erraza izan, egunero ez da eta halako fase bat jokatzeko aukera izaten: "Taldekideendako esperientzia polita izaten da, baina klubarendako dirutza da 28 lagun asteburu baterako Galiziarara eramatea: bidaia, hotela... Ez du merezi, jakinda, gainera, fasean edozer eginda ere ez garelako mai-

laz igoko... Diru hori hobeto erabili dezakegu klubean; esaterako, errugbi eskolan. Hau da gure lekua, Euskal Liga. Gainera, Euskal Ligako play-off-erako sailkatuta gaude, eta hori lehiazteak motibatu egiten gaitu".

La Unicaren kontra azkena

Hain zuzen, La Unica talde gogorraren kontra agurtuko dute etxekoek liga, bihar: "Ez da liga agurtzeko kontrariorik aproposena, partidua gogorra izango da, baina Aste Santu ondoren jokatu dugu play-off-a prestatzeko baliatuko dugu norgehiagoka".

PAZKO ASTE ONDOREN JOKATUKO DU ARRASATEKO TALDEAK EUSKAL LIGAKO 'PLAY OFF'-A

Touring-ek emandako kolpetik errekuperatu nahi du Mondrak

FUTBOLA Cristian Matiasen mutilek atzealdean dabilen Urolaren kontra jokatu dute bihar (16:30, Mojategi)

Xabier Urzelai ARRASATE

Errenterian jasotako kolpetik lehenbailehen errekuperatu nahi dute zuri-moreek. Touring 3-0 nagusitu zen, baina liderra ez zen markagailuak erakusten duen bezain erraz gailendu,

arrasatearrek ere pare bat gol aukera oso garbi izan zituzten eta. 26. minutuan etorri zen Errenteriko lehenengo kolpea—ordura arte parean egon ziren indarrak—, Iribarrenekin egin zuen gola, gol olinpikoa, kórnerretik.

Baina bigarren zatira arte itxaron behar izan zuten zaleek Errenteriko beste bi golak ikusteko.

Hala, bigarren postura gerturatzeko borrokan atzerapausoa izan zen arrasatearrendako, baina, hain justu, Elgoibarrek ere galdu egin zuen asteburuan. Horrenbestez, helburua zaila bada ere—sei puntuko aldea dago bi taldeen artean—, Mondrak ez du azkenera arte amore emateko asmorik. Bihar, 13. dagoen Urola izango da Mojategin.

ARETO FUTBOLA Aurrean den Mondratek Batzarre hartuko du

Oraindik zazpi jardunaldi gertatzen zaizkio Hirugarren Mailako liga txapelketari, baina arrasatearrek sekulako denboraldia egiten dabilta eta laugarren daude sailkapenean. Lehenengo bi sailkatuak urrun daude, baina Antiguoko hiru puntura dago. Hala, bihar (16:30), hamaikagarren postuan dagoen Batzarre etorriko da Musakolara.



Afantxoren kontrako lehenengo. GOIENA



ARTko neskek, aurkezpen ekitaldian. GOIENA

Urte zaila bezain emankorra

Emakumezkoen taldearendako urte zaila izan da hau, sailkapenaren azken postuan geratzea ez da eta inoren gustukoa izaten. "Baina askorendako lehenengo urtea izan da, asko ikasi dute eta jokalarien jarrera ezin hobea izan da", adierazi du Barrutiak.

"Harreman irekiei buruz hitz egitea dut gustuko"

GEMA IÑIGUEZ IDAZLEA ETA DANTZARIA

Aretxabaletan bizi den arrasatearrak 'Contigo bajo la tormenta' izeneko kontaketa erotikoa idatzi du 'Sobre el calor de la piel' liburuan. Datozen egunetan kaleratuko da

Hasier Larrea ARRASATE

Dantza eta idazketaren artean egiten du bizimodua Gema Iñiguez. Diversidad Literaria argitaletxearen enkarguz, 25 orrialdeko istorioa kontatu du *Sobre el calor de la piel* liburuan. Lanak zortzi idazleren kontaketak biltzen ditu, eta irakurri nahi duenak apirilaren 11 aurretik eskatu dezake argitaletxearen online dendan.

Literatura erotikoa lantzen duzu. Zer dela eta?

Txikitatik idatzi izan dut. Etxean betidanik hitz egin izan didate sexuaz; agian, hortik datorkit idazteko zaletasuna. Nire amak liburu erotikoa erregalatzen zizkidan. Orain, nik idatzitakoa irakurriko du, baita oso erlijiosoak diren nire izebek ere. Familiatik botako naute!

Hain gogorra al da *Contigo bajo la tormenta*-n kontatzen duzuna?

Konbentzionaletik urrun dagoen trama bat azaltzen dut. Luzaroan elkarrekin dagoen bikote heldu batek harreman sexualak pertsona gehiagorekin izatea erabakitzen du. Sentimentalki ondo daude, baina sexualki gauza berriak probatu nahi dituzte: hirukoteak, bikote-aldaketak, lesbikoak... Gizonak gustua eman nahi dio neskalagunari.

Ba al du errealitatetik?



Gema Iñiguez, Monterron parkean. H.L.

"SEX SHOP BATEN BLOGEAN HASI NINTZEN LITERATURA EROTIKOA LANTZEN; ARRAKASTA ZEUKAN"

Gero eta bikote gehiagok egiten du halako esperientzien aldeko hautua, baina ia guztiak 40 urtetik aurrerakoak dira. Gazteen artean ez da erraza halako kasuak topatzea, zeloengatik. **Eta gomendatzen duzu?**

Noski. Irakurleari pentsarazi nahi diot harreman konbentzionala ez dela beti egokiena. Hori da saldu digutena, eta, agian, horregatik gertatzen dira hainbeste porrot bikote-harremant. Batzuek pisu-kideak dirudite, edo isilpean jartzen dizkio adarrak elkarri. Bikotearen barruan beste bide batzuk landuz gero, agian, ez lirake horrenbeste arazo egongo. Hau da: zuk zure bikotekidea maite duzu, harekin bizi zara, baina dena ez da hor bukatzen. Nire ustez, bikote-harreman batek ezin du

aurrera egin sexu onik izan gabe. Zure bikotekidearengana intimitatean askatasun osoz gerturatu ezin bazara, bazkaltzera joateko hobe lagunekin geratu. **Edozein irakurlerentzat ez duzu idatziko, orduan.**

Heldutasun-puntu bat duten pertsonak bakarrik irakur dezakete. Nire bi protagonisten arteko harremana oso indartsua da, eta beste pertsona batzuekin harremanak izan arren, euren artekoa ez da kaltetzen. Agian, 18 urteko batek irakurtzen du eta pentsa dezake normala dela bikote batek hirukote batean parte hartzea. Hori ez da bidali nahi dudana mezua.

Zaila da ideia horiek modu elegantean azaltzea?

Saiatzen naiz hitz itsusiak ez erabiltzen, nahiz eta sexuaz aritu. Argitaletxetik esan ohi didate dotoreziak idazten dudala, jorratzen dudana generoa kontuan izanda.

Nabari duzu literatura erotikoren pizkunderik?

Grey-ren 50 itzal kaleratu zenetik, bai. Pozten naiz erotikak irabazi duen interesaz. Halako literatura irakurtzeak pentsamendua zabaltzen laguntzen du. Bereziki, gai sexualak tabu bezala bizi izan dituzten emakumeen artean. Jarrera horren oinarrian ez dago matxismoa bakarrik; guk geuk ere mugak jarri dizkiogu geure buruari, lotsa sentitzeagatik.

Nola doaz salmentak?

160 ale inguru saldu dira dagoneko. Horietatik 60 nire inguruko jendeak eskatu ditu. Diversidad Literariakoek esan didate harrituta daudela.

Aurrera begira, ze asmo?

Nobela luzeagoa idazteko eskaria jaso dut; badauzkat ideia berriak bueltaka.

"Harrera bikaina" izan du neandertalei buruzko egitarauak

Bihar itxiko ditu ateak Kulturako *Lezetxiki*, neandertalen lurraldea erakusketak. Lau hilabetea, bisita gidatuak, hitzaldi zientifikoak eta antzinarako tresna eta tekniken erakustaldiak antolatuta dituzte Arrasate Zientzia Elkarteko kideen iniziatibaz. Erakusketatik "3.700 lagun inguru" pasa direla aipatu du AZEko Javier Bengoak: "Kontuan hartuta ez gairela gai orokor bati buruz ari, poztekoa da jaso dugun erantzuna; kalean oso komentario onak entzun ditugu, eta Aldundiko Kultura Saileko eta Gordailuko zuzendariak zoriondu egin gaituzte. Ziurrena da museo gehiagotara zabalduko dela".

AGAKOren urtemuga ospatzeko ekintzak, bihar egun osoz

Itzalenak gara, itzalei esker gara izena jarri diote gaztetxeko asanbladako kideek zapatuan egingo duten ekintza-sortari. AGAKOren 31. urteurrenaren baitan, apiril osoan ari dira ekitaldiak antolatzen. Hala, bihar, 13:00etan, herri argazkia aterako dute Arbolapetan, Galder Barbadoren eta Aitor Zelaiaren absoluzioen alde. 19:30ean, M-n Baen batu-kada taldeak martxa betean jarriko du erdigunea, Portalotik hasita. Gauean, 23:00etan hasita, DJ Rosamarik, Malakiasen eta Maixak musikaz girotuko dute gaztetxea. Bestalde, hilaren 12an, 19:00etan, Iñigo Cabacasen hilketari buruzko dokumentala jarriko dute.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arbasate

beinke

Ab 80

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com



Ametzuako errepidea, konponduta. A.E.G.

Ametzuako errepidea, konponduta eta zabalik

Abenduan gertatutako euri jasen ondorioz, Ametzuara doan errepidea jausi egin zen, eta, behin-behinekoz, bidea moztuta geratu zen. Harri-lubeta egin eta bidea egonkortu dute. Orain, kaltetutako baso pistak konpontzeko lehentasunak jarriko ditu Udalak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Ametzuako errepidea konpondu dute dagoeneko. Azken asteetan ibili dira lan horiek egiten. Excavaciones Arrasate enpresa-koak; hain justu, 31.327 euroko aurrekontua izan du lanak.

"Errepide azpiko lurra mugitu eta jausi egin zen, eta, ondorioz, errepidea jausi egin zen, abenduaren 10ean", azaldu du Aramaio Udaleko arkitekto tekniko Oier Ezquerrak.

Harri-lubeta egin dute

Goitik behera eroritako lurra errepidetik kendu, eta errepide azpia egonkortzeko harri-lubeta egin dute lekuan. "Harrizko horma egin eta hormigoiarekin egonkortu dute errepidea", dio Ezquerrak. Lanak bukatuta daude, eta errepidea zabalik.

Hormigoiarekin utzi dute errepidea, baina aurrerago asfaltatzeko aukera egongo da.

Nabarmendu behar da bidea itxita egon den hilabeteetan han bizi diren auzotarrek goiko bi-

detik egin behar izan dituztela sartu-irtenak. "Zorionez, ez zen inor bakartuta geratu", gehitu du arkitekto teknikoak.

Beste baso pista batzuk

Abenduko euri jasen ondorioz Aramaio beste hainbat errepide eta baso pista ere kaltetu ziren. Arragako bidegurutzean lur-jausia gertatu zen, baina



Errepidea, hondatuta. OIER EZQUERRA

kasu hartan, errepidea ez zen apurtu. Hortaz, lurra kendu eta berriro ere erabilgarri geratu zen errepidea. "Pista asko ditugu hondatuta", dio.

Aramaio Udaleko Ingurumen zinegotzi Santi Balantzategik dio baso pistak konpontzeko lehentasunak zehaztu dituztela; izan ere, 35 bat intzidentzia dituzte jasota: "Lehentasunak markatu ditugu eta laster hasiko gara konpontzen. Gertatzen dena da eremu batzuetara ezin dela sartu oraindik, lurra oso umel dagoelako edo paraje eskasa delako. Sikatu ahala hasiko gara". Basoren bat bota behar den edo baso garrantzitsuren bat dagoen... Horiek izango dira lehentasunak jartzeko irizpide batzuk.

Inoizko kalte handienak

Neguan beti izaten dira kalteak euriaren ondorioz, baina Ezquerrak dio aurtengoa neurritz gorakoa izan dela. Kalte handiak izan zituzten abenduko euriteen ondorioz.



Andere Arriolabengoa abesten; ondoan, Danel Herrarte. 'BERTSOZALE.EUS'

Arriolabengoa eta Agirre final-laurdenetan daude jada

Arabako Bertsolari Txapelketa hasi dute; aste bukaeran lehenengo faseko azken bi saioak jokatu dituzte

A.E.G. ARAMAIO

Barikuan hasi zuten Arabako Bertsolari Txapelketa; lehenengo hiru final-zortzirenak jokatuta, dagoeneko final-laurdenetarako txartela lortu dute Manex Agirrek eta Andere Arriolabengoak. Bi bertsolari aramaioar horiek zuzenean lortu dute final-laurdenetarako txartela, euren saioak irabazita. Agirrek bigarren saioa irabazi zuen, 185 punturekin; eta Arriolabengoak hirugarrena, 192,5 punturekin.

Final-zortzirenetako irabazleak zuzenean pasako dira hurrengo fasera. Gainontzeko bertsolariak puntuazioaren hurrenkeraren arabera pasako dira.

Aramaio saioa

Final-laurdenak Dulantzín, Zigoitian eta Aramaion izango dira. Manex Agirrek Dulantziko final-laurdenekoan abestuko du, maiatzaren 8an; eta Andere Arriolabengoak Aramaioan, maiatzaren 14an, 17:30ean.

Orain arte jokatu saioetako emaitzak kontuan hartuta, ondoko puntuazioak lortu dituzte Aramaio bertsolariek: Paula Amilburuk 190,5 puntu ditu; Xabi Igoak 191 puntu ditu; Aitor Ugartek 168 puntu ditu; eta Danel Herrartek 174 puntu lortu ditu.

Final-laurden bakoitzean sei bertsolari ibiliko dira kantuan, euren onena ematen.

Beste bi saio

Lehenengo fasea bukatzeko beste bi saio geratzen dira: gaur, barikua, Legution jokatu dute laugarren saioa, 20:00etan. Bihar, zapatua, Langraitzen jokatu dute azken final-zortzirena, 17:30ean hasita. Parte hartuko duten sei bertsolarien artean Peru Abarrategi aramaioarra egongo da.



Korrika Txikia, 2013an. ARTXIBOA

Korrika Txikia gaur egingo dute

Joan den barikuan egitekoa zen Korrika Txikia gaur egingo dute. Aramaio Herri Eskolak antolatuta, 14:30ean egingo dute korrika eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek. Herriko kaleak zeharkatu dituzte. Goizean, 11:00etan, Alaiak erretiratuen elkarteak eta eskolako umek herriko kaleak alaituko dituzte *Herria kantuz* saioarekin.

Herriko bitxikeriak itzuli dira udal webgunera

'Aramaio ezagutu' atala berreskuratu eta eguneratu egin du 'aramaio.eus' atariak, bi urte inguruko lanketaren ostean. Herriarren laguntza jaso dute udal langileek informazio berria biltzeko orduan. Ondarean eta emakumeen historian sakondu dute

Hasier Larrea ARAMAIO

Aramaioko udal webguneak duela bi urte jasotako zibererasoaren aurreko egitura dauka orain, *Aramaioko Udala* eta *Aramaion bizi* atalak berreskuratu ostean, *Aramaio ezagutu* atala ere txertatu baitu. Lierni Altuna alkatea eta Rosa Mondragon Euskara teknikaria aritu dira buru-belarri lanean, Arteman komunikazio agentziako informatikarien eta hainbat herritarren jakintza lagun. Saiatu dira proiektua Udalak aurreko urteetan egindako lanaren ispilu izaten, eta, alde horretatik, askotariko gaiekin egingo du topo erabiltzaileak. Emaizaren balorazioa, ekimenean parte hartu dutenen hitzetan, positiboa izan dela adierazi du Mondragonek: "Komentatu digute polita dela, informazioa eta argazkiak ondo eta garbi ikusten direla, eta diseinuarekin gustura daudela".

Berrikuntzak ere bai

Egitasmoan ez dira lehendik argitaratuta zegoen edukia biltzeraz mugatu, datu eta pasarte berriak gehitzeko saiakera ere egin dute eta. "Horretarako, aramaioar ugari elkarrizketatu ditugu, bereziki, historia egin duten emakumeei eta on-



Aramaio ezagutu atala udal webgunean. GOIENA

HEMENDIK AURRERA, ARAMAIOARREN JAKINTZAREKIN JOANGO DIRA ATALA PIXKANAKA OSATZEN

dare materialari zein ez-materialari buruzko gaiak lantzeko orduan. Hala, hamalau emakume garrantzitsuk eta toki, erai-kin, ibilbide, ohitura, ahozko-tasun, kondaira eta euskararen gaineko bitxikeria eta kontuek

tokia dute orain", adierazi du Mondragonek.

Ateak zabalik daude

Aramaio ezagutu-n dauden gaitz nontzeko azpiatalak ere moldatu egin dituzte, eta moldatzeko bidean jarraitzen dute: "Izan ere, atala ez da definitiboa, eta herritarren ekarpen gehiagorekin osatu nahiko genuke".

Egitasmoaren helburua baita aramaioarrei zein kanpotarrei herriaren aberastasunaren berri ematea. Orain, klik bakarrean dute guztia eskura.

"Argazkiak lainoan gordetzeko aukera ematen du sakelakoak"

ENERITZ OROBENGOA KZGUNEKO LANGILEA

Apirilaren 11n eta 12an eskainiko du ikastaroa

Hasier Larrea ARAMAIO

Google argazkiak aplikazioa behar bezala erabiltzen ikasteko kurtsoa emango du Eneritz Orobengoak kultura etxeko KZgunean, astelehenean eta martitzenean, 16:00etatik 18:00etara.

Ze tresna ditu txertatuta app-ak?

Alde batetik, lainoaren zerbitzua ematen du, eta, bestetik, inteligentzia artifizialaren bidezko bilatzaile integratua dauka.

Ze abantaila dauzkate?

Eskuko telefonoan espazio gabe gelditzerakoan, hodeiarekin espazioa irabazten dugu, eta hori asko eskertzen dute erabiltzaileek. Ikastarora datozen zenbaitzuek hasieran ez dakite zer den hodeiaren kontzeptua, baina behin sinplea dela jakiten dute-nean hasten dira argazkiak kudeatzen. Bilatzailearen kasuan, galerian dauzkagun argazkiak laster batean topatu ditzakegu. Noizbait animalia bati edo pertsona konkretu bati atera diogun argazkia, edo toki zehatz baten ateratakoa, ikusi nahi badugu, aplikazioari etiketatze edo une oroko kokapena jakiteko baimena emanda, nahikoa da. **Ezabatutako argazkiak berreskura daitezke?**



Eneritz Orobengo. ELORRIOKO KZGUNEA

Zakarrontzian 60 egun baino gutxiago egoten badira, bai.

Nori gomendatuko zenioke app-a?

Eszeptikoei, edo hanka sartzeko beldurra dutenei. Horiei kostatzen zaie hasiera, baina gero, ikusten dute gai direla eta erabilgarria egiten zaie.

Ezer gehiago esan nahi?

Ikastaroa emateaz gain, datozen bi asteetako arratsaldeetan egongo naiz KZgunean, 20:00ak arte. Eskuko telefonoarekin edo ordenagailuarekin lotutako edozein zalantza izanez gero, aramaioarrrak hemendik pasa daitezke.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

Aramaioko zaharrena, agian

Esango nuke, ziurtasun gutxiarekin baina motibazio handiz, Oletako hagina dela Aramaioko izaki bizidun zaharrena. Erraldoia bada, behintzat; 110 zentimetro inguruko diametroa du haren enborrak eta 15 metro luze da. Pentsa, Zeanurin dagoen Arimegortako haginak, EAEko zuhaitz berezien katalogoak babesten duenak, 130 zentimetroko diametroa eta 9 metroko garaiera du. Eta famatua da! Gurea, aldiz, ez du ia inork ezagutzen.

Tabbush eta White-k 1996an haginaren hazkuntzaren inguruan egindako lana erreferentziatzen hartuz, kalkulatu daiteke Oletako zuhaitz honek, gutxienez, 300 urte izan ditzakeela. Ez da zifra makala.

Gaur-gaurkoz, ez dut aurkitu estima berezirik diodan erlijio zehatzik, baina momentua iritsita, bat asmatu behar izatekotan eta erromesaldi bide baten beharra izatekotan, hatxetan gora egingo nuke, beste aldera pasa eta haginarekin topo egin arte. Gurtzeko modukoa da eta!

Aspaldiko kantuak entzungai

Ondare ukiezina ataleko *Ohiturak* sakatzean, "zerbait desberdina" dago argitaratuta: ahoz aho transmititu diren kantu eta abestiak, zehazki. Alaiak abesbatzako kideek kantatuta, eta Larraitz Arriolabengoa irakasleak zuzenduta, iraganeko hiruna lo-kanta eta baserriko lanekin lotutako abesti labor entzun daitezke audio formatuan.



Alaiak kantu taldeko kideak, joan den ekainean kalean kantari. MIREN ARREGI

Abian da emantzipatzen laguntzeko programa

Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntzak emanaz gazteen emantzipazioa errazteko programa abiatu du Udalak. 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da, eta 2022ko aurrekontuan 30.000 euroko partida bideratuko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntzen programa bat jarri du abian Aretxabaletako Udalak. Horrekin, bide batez, herrian hutsik dauden etxebizitzak alokairuaren merkatuan sartzea ere gura du.

"Gazteendako politikak"

Programaren nondik norakoak azaltzeko egindako agerraldian, Udal Gobernuak ordezkariak adierazi dute hainbat hilabetez landu dutela gaia eta "gazteei bideratutako politikak bultzatzea" datorrela. "Herriko gazteek euren bizi proiektua garatu ahal izateko etxebizitza bat eskuratzea beharrezko urratsa da. Horregatik, laguntza ekonomiko hauek gurasoen etxebizitza utzi eta gazteak euren kabuz bizitzeko laguntza izan daitezke", adierazi du Xabi Otxoak, Hirigintza zinegotziak.



Maiden Etxaniz teknikaria eta Xabi Otxoa eta Ainhoa Cabero zinegotziak. TXOMIN MADINA

100 eta 250 euro artekoak

Beste herri batzuetako ereduak eta herritarrekin egindako bileretan jasotakoak aintzat hartuta zehaztu dituzte programaren xehetasunak, eta 2022ko aurrekontuan 30.000 euroko

diru-partida bideratuko dute. "Deialdiak jasotako erantzunaren arabera aurrekontua egokitzen joango gara datozen urteetarako", argitu du Otxoak.

Laguntzak 18 eta 35 urte arteko gazteei bideratu dizkiete

eta 100 eta 250 euro artekoak izango dira hilean; horiek diru-sarreraren arabera kalkulatu-ko dira. "Baldintzak egongo dira; esaterako, ez da berdina norbanakoak eskatzea edo bizikidetzak-unitateak, eta soldata ere kontuan hartuko da", azaldu du Ainhoa Cabero zinegotziak. Etxebizitzaren alokairuaren prezioa, oster, ezingo da 650 eurotik gorakoa izan, eta horren ezaugarriak dagokien ere hainbat baldintza zehaztu dituzte, behar bezala hornitutako sukaldaria izatea, esaterako.

Eskaerak, telematikoki

Dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartuta daude eta baldintzen inguruko xehetasunak jasoko dituzten eskuorriak Arkupen eta udaletxean izango dira eskuragarri, baita Udalaren webgunean ere informazioa.

Asmoa da datozen egunetan zabaltea dirulaguntzak jasotzeko eskabidea egiteko epea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren; gero, tramitatzeko aukera urriaren 30era arte egongo da. Dirulaguntzak telematikoki eskatu beharko dira. Horretarako, Izenpe edo BakQ -Udalean eska daiteke hori- beharko dute interesatuek, derrigorrean. Eskaerak egingo dira www.aretxabaleta.eus atarian, *Tramiteak* atalean -*Laguntzak*-, eta Gazteria Zerbitzuak bideratuko ditu.

Eskatzaileak bete beharrekoak

- **Etxebizitza:** eskatzailea bertan erroldatuta egongo da.
- **Alokairu-kontratua:** gutxienez, hamabi hilabetekoa.
- **Laguntzak:** banaka edo bizikidetzak-unitateak.
- **Adina:** 18 eta 35 urte artean.
- **Erroldatzea:** herrian azken bi urteak etenik gabe edo Aretxabaletan 10 urtez egon izana.
- **Diru-sarrerak, gehienez:** 28.000 euro gordin urtean, banakako eskaera eta 44.000 euro, bizikidetzak-unitate kasuan.
- **Diru-sarrerak, gutxienez:** 18.000 euro gordin.
- **Familia-lotura:** ez da egongo dirulaguntza jasoko duenaren eta errentariaren artean.
- **Jabetzarik ez:** eskatzaileak ezingo du etxebizitzarik izan.

Baldintza guztiak daude Udalaren webgunean: aretxabaleta.eus.

Txarapea azpiko parkeari hel diezaioten gura du EH Bilduk

Ibaiaren bi aldeak eta han egingo den igogailua kontuan hartuta "gozatzeko moduko berdegune bat" eskatu du

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletako EH Bilduk prentsa-ohar bidez adierazi du "poztu" egin dela jakin duenean Txarapeak izango dituela igogailua eta herrigunearekin lotzen duen pasabidea. Baina Udal Gobernuari hori baino gehiago eskatu gura dio: "Egingo den parte hartze prozesuan, eta ondorioz proiektuan, Txarapea azpiko parkea ere bertan txertatzea. Hau da, ibaiaren bi aldeak eta Txarapearekin lotzen duen igogailua osotasunean kontuan hartzea".

EH Bilduko kideek gogoratu gura izan dute 2017aren bukaeran proposamen bat egin zutela, "100 bat herritarrekin egindako entzute fase baten ondoren". Eta orduan landutako *Txarapea parkea* deituriko proiektuaren gakoak aipatu zituzte: Txarapea erdigunera gerturatzeko lotura integral bat egitea; igogailua eta pasabidearen tandem egitea; eta parkea lotura horren erdigunean kokatzea. "Proiektuak, baina, ez zuen Udalean ibilbiderik izan eta, gainera, kritikatu



Berdegunea ibai alboan, eta gainaldean, Txarapeako etxebizitza. MIRARI ALTUBE

izan zen Gobernuaren aldetik", adierazi dute.

Orain dela lau urte legez orain ere, HAPOn parte hartzeari esker, berdegunearen gaineko "ekarpen asko" egon direla zehaztu dute: "Denak aintzat hartuta,

herritar guztiok gozatzeko moduko berdegune bat edukiko dugula espero dugu".

Gaineratu dute "herria hobetzeko" proposamenak egiten jarraitzeko asmoa dutela: "Tokatzen zaigun lekuan tokatuta".

Elizkizun ugari izango dira Aste Santuan, domekan hasita

Andre Mariaren Zeruratze parrokiako kideek Erramu Domekako elizkizunekin emango diote hasiera Aste Santuari; bihar, zapatua (19:00) eta domekan (12:30). Eta elkarteko penitentzia izango da astelehenean (19:00).

Eguen Santuan, apirilaren 14an, *Jaunaren azken afaria* izango dute gogoan (18:00) eta Egubakoitz Santuan bi ekitaldi izango dira: gurutze-bidea Izurietan auzora (11:00) eta *Jaunaren nekaldiko elizkizuna* parrokiaren bertan (18:00). Zapatuan, hilaren 16an, *Pazko Gaubeila* ospatuko dute (19:00) eta domekan, pazkoa; meza nagusia, ohi legez, 12:30ean izango da.

Buztinarekin bat eginda, artisau-lanei aitortza

'Buztinaren azalaren azpian' izeneko erakusketa izango da ikusgai apiril osoan Arkupen; Aretxabaletan ezaguna den Koki Hernandezek, zeramikaren bueltan ibilbide luzea duen artisauak, "pasioz eta errespetu handiz" landutako bilduma ekarri du

Mirari Altube ARETXABALETA

Jaiotzez tolosarra da Koki Hernandez eta Ordizia du bizitoki eta sormenerako lantoki, zermika-tailerra bertan duelako; azken hilabeteetan Aretxabaletan ere ezagun egin da -ahizparen dendan diharduelako lanean-. Haren lanei lekua egin diete orain, Arkupeko erakusketa gelan, eta eguaztena ezkerreko *Buztinaren azalaren azpian* izeneko bilduma du ikusgai.

Barrukoa atera

Buztinak bete egiten duela dio artistak: "Nire pasioa da eta dena eman dit. Buztinari esker 27 urtez ibili naiz azokarik azoka, irakasle lanetan jardun dut eta erakusketak egin ditut".

Pandemiak, baina, bete-betean harrapatu dituela artisauak azaldu du; horregatik, azokak albo batera utzi eta erakusketak egiteari ekin dio: "Buztinari diodan errespetu eta miresmen guztiarekin dihardut lanetan eta egindako hori erakusteko unea dela iruditu zait. Horrekin, barruan dudana erakutsi gura dut eta sentsibiltate apur bat transmititu, galtzen ari garen ustea dut eta". Hauxe gaineratu du: "Zu zer zaren, nor zaren hausnartzeko da niretzako buzina. Barruan duzun hori ate-

ratzen laguntzen badit zelan ez jarri buztinaren azalaren azpian... Hori izugarria da, eta azaltzeko zaila".

Buztin ezberdinak lantzen ditu: "Bakoitzak bere erreketak puntua du, bere esmalteak ditu, eta azken horiek ere neuk egiten ditut, nahiz eta izugarritzko lana izan. Eta gero, pieza bakoitza mimos landu gura izaten dut".

Artisauen lanari balioa

Artisauen lanari aitortza egin gura dio erakusketarekin: "Ni artisaua naiz, azokak utzi badi-

tut ere; kaleko jendea gara, autodidaktak, askeak, jendeari zerbait polita emateko lanean... Horregatik, artisauen lanari balioa eman gura diot, desager-tzeaz dago-eta azken urteetan. Eta guztiek ez dute erakusketak egiteko aukerarik".

"Harrera beroa" egin diote aretxabaletarrek, eta oso pozik dago: "Ez dut inolako arazorik izan Arkupeko arduradunen eta langileen aldetik. Eta herritarren gustuko dela ere antzeman dut, aurpegiak esaten dutena ezkutatzerik ez dago eta".



Koki Hernandez, erakusketako hainbat piezaren alboan. MIRARI ALTUBE

Hainbat partidutan izandako gertaerekin kezkatuta dago UDA

Aurkariak eta epaileek "irainak eta isekak" entzun behar izaten dituzte, eta horri buelta eman gura diote

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarte oso kezkatuta agertu da azken hila-beteetan Ibarra futbol zelaian izan diren hainbat gertaerarekin, eta horren berri emateko prentsa-oharra zabaldu du: "Badago gai bat asko kezkatzen gaituena; eta bazkide, kirolari, guraso eta zuzendaritza taldeko kideen ahotan dabilena. Hainbat partidutan, Ibarra gertatzen diren zenbait gertaerarekin dago lotuta. Izan ere, aurkariarekin, epailearekin... sartzeko joera dago: irainak, mehatxuak, isekak...".

Aldageletako paretetan idatzitakoa berreskuratu behar dela adierazi dute: "Gu gara: lagun-tasuna, errespetua, adiskidetasuna, elkarbizitza, batasuna... Eta hori ez da liskarra, ez da ez istilua eta ez da horrelako ezer".

Beste futbol zelai batzuetan antzekoak gertatzeak ez dituela lasaitzen diote, eta UDAn kideei dei egin diete egoerari buelta emateko: "Defenda dezagun gure nortasuna inoiz baino indar gehiagorekin! Erakuts dezagun beste modu batera egin daitezkeela gauzak!".

Umeek jolas egiteko aukera izango dute Udaberriko parkean

Astelehenean eta martitzenean, hilaren 11n eta 12an, irekiko ditu ateak Ibarra kiroldegian izango den Udaberriko parkeak; goizez -11:00-13:00- eta arratsaldez -17:00-20:00- izango da zabalik. 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei egingo diete tokia han, eta hainbat eratako jolasak eta tailerrak izango dituzte aukeran; besteak beste, puzgarriak, ohe elastikoak, mahai-jolasak, tailerrak eta Xbox jolas digitalak.

Prezioei dagokienez, eguneko sarrera sei euro izango da, eta bi eguneko bonuak egongo dira, hamar euroren truke. Hirugarren seme-alabek debalde sartu ahal izango dute, familia ugariaren txartela aurkeztuta.

OHARRAK

Kintoen dantzak

2002an jaiotako neska-mutilek Santa Agedaren omenezko dantza saioa egingo dute bihar, zapatua, 19:00etan, Herriko Plazan.

Zinema

Helduek *Cámara café* filma izango dute gaur (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astelehenean (14:00). Umeek, osterar, *Valentina* bihar eta etzi (17:00).

Ikastaroa

Argazkigintza digitalaren lehen urratsak irakatsiko ditu Ivan Vallek, apirilaren 26an hasita -30 orduko ikastaroa-. Izena emateko, Arkupera jo behar da.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Bete dut lehen mailan debutatzeko ametsa"

ELENE ERRASTI ALAVESEKO JOKALARIA

Joan den asteburuan jokatu zituen lehen minutuak Iberdrola Ligan, Eibarren aurka. Lepauztaiko lesioa gairatuta, "pozik" dago Alavesek eman dion aukerarekin

Hasier Larrea ARETXABALETA

Joan den udan sinatu zuen bi urterako kontratua Elene Errasti -Aretxabaleta, 2000- aurrelariak Gasteizko klubarekin. Fitxa Euskal Ligan jokatzeko duen bigarren taldearekin izan arren, talde nagusiarekin entrenatu ohi da, normalean. Domekan zelairatu zuen lehenengoz Mikel Crespo entrenatzaileak.

Eibarren aurkako derbian debutatu duzu. Ze sentsazio izan zenituen?

Deialdi barruan nengoela ikustearrekin bakarrik poztu nintzen, baina ez nuen espero jokatu nuenik. Hasieran urduri egon arren, berotzera irteteko esan zidatenean kontzentratu egin nintzen. 79. minutuan zelairatu ninduen entrenatzaileak eta eroso sentitu nintzen. Ez nuen pentsatu: "Lehen Mailan ari naiz jokatzeko". Partidua bukatu ostean jabetu nintzen gertatutakoaren garrantziaz.

Kolektiboki, baina, ez zenuten itxurarik onena eman.

Oso gaizki jokatu genuen, ez genuen espero 2-0 galtzea. Hala ere, lehen itzulian pilotutako puntuek denboraldi bukaerari lasai aurre egiteko baimena ematen digute. Iberdrola Ligan Alaves lehen aldiz jokatzeko ari dela kontuan hartuta, pozik egon gaitezke egiten ari garenaekin.

Gustura sentitzen zara taldean?

Oso gustura. Lehen Mailan esperientzia handia duten jokalariekin entrenatzen naiz, eta oso ondo hartu ninduten lehen egunetik. Astero ordu mordoa egiten ditugu batera, familia txiki bat gara.

Nola daramazu lehen eta bigarren taldeekin aritzea?

Ondo daramat; denboraldi-aurreren jakin nuen entrenamendu gehienak talde nagusiarekin egingo nituela, baina deialdietan sartzen ez banintzen Euskal Ligan jokatu nuela, eta hala ere izan da. Hasieran, harreman hotza neukan bigarren taldeko



Elene Errasti, Alaves entrenatzen den Ibaiko instalazioetan. MIREIA BIKUÑA

"ELITEKO FUTBOLEAN JARRERAK ETA LANAK DUTEN GARRANTZIA IKASI DUT TALDEKIDEENGANDIK"

jokalariekin, astean behin entrenatuta gutxi ezagutzen nituelako, baina asteak igarota erlazio handiagoa egin dut eurekin. Zortzi gol inguru sartu ditut Euskal Ligan.

Izango duzu aurten Lehen Mailan gola sartzeko esperantza.

Nik nire onena ematen jarraituko dut, eta gero, ea jokatzeko aukerarik izaten dudana. Aurkari zailak izango ditugu aurrean; Real, Athletic eta Real Madril, esaterako. Ederra izango litzaiteke euren kontra aritzea.

Lepauztaia, errekuaratu?

Bai; duela hilabete eman zidaten sendagiria. Azaroan hautsi eta hilabete egin nuen geldia, ebakuntza tarteko. Pixkanaka, lan-saioetara itzuli nintzen; bi hilabetez aritu naiz peto laranja soinean, kontaktua saihesteko. Lesioarekin asko ikasi dut futbolaren atzean dagoen zati gogorraz.

Ze beste gauza zabilta ikasten?

Elitean jarrerak eta lanak duten garrantzia, gehienbat; hori ikasi dut, batez ere, taldekideengandik. Nahiz eta mundu hau sakrifikatua izan, gustura nabil, eta hala jarraitu nahi dut.

Ikasketei ere tokia egin behar.

Azken urtea dut Irakasle Ikasketen graduari eta Gasteizko eskola batean ari naiz praktikak egiten. Unibertsitateak erraztasunak ematen dizkit. Klasera joan ezin banaiz, irakasleek malgutasunez jokatzeko dute nirekin.

Eta denbora libre zeri eskaintzen diozu?

Familiari eta kuadrillari. Ez dut askoz gauza gehiago egiteko denborarik!

Aretxabaleta eliteko futbolera ekarri duzu bueltan.

Horrek ere poztzen nau. Esango nuke orain arte Oihana Aldai izan dela Lehen Mailan jokatu duen emakumezko bakarra.

Zorion mezua asko heldu zaizkizu?

Arimendiko eta Gasteizko Aurrerako taldekide eta entrenatzaile ohiek zoriondu naute; oso pozik jarri dira nigratik. Honaino heldu banaiz, eurekin egin dako lanagatik eta partekatutako momentuengatik izan da.

Gaztelekuko apirileko ekintzak asteburuan hasiko dituzte

Biharko sukaldaritza tailerrak bide emango dio abenturaz betetako 'Bixi udaberrixa' egitarauari

H.L. ARETXABALETA

Guztira, 30 lagunek eman dute izena Aretxabaletako gaztelekuak antolatu duen apirileko programazioan. Alaitz Mendieta gureko koordinatzaileak adierazi du oporrak tarteko "etxeokak" animatu direla eta "pozik" daudela antolatzaileak. Egitarauari bihar emango diote hasiera, astero egin ohi dute sukaldaritza tailerrarekin, Santa Kurtz kaleko gazteleku zaharrean.

Hilaren 11n eta 12an egingo dute, ostera, *Bixi udaberrixa* izenpeko ekintza-sorta, Eskoria-

tzako gaztelekuarekin elkarlanean. Hala, 11:00etatik 17:00etara arituko dira Urkulun abentura probetan nor baino nor gehiago. Hurrengo egunean, Eskoriatzako plazan tortilla txapelketan hartuko dute parte, 12:00etan hasita, eta, prestatutakoa jan ostean, bingo musikatua eta Aretxabaletako Oihu! talde gaztearen kontzertuaz gozatuko dute parte-hartzaileak.

Datozen hilabeteetako ekintzak antolatzeko "proposamen guztietara irekita" daudela gaineratu du Mendieta.

'Loratulekuak', neska-mutilen abenturarako grina asetzer

6 eta 12 urte arteko 40 hurrek parte hartuko dute apirilaren 11, 12 eta 13an egingo dituzten ekintzetan

H.L. ARETXABALETA

Loratu taldeak *Loratulekuak* ekimena jarriko du martxan datorren astean. Hiru egunetan zehar ETB2ko *El Conquistador del Caribe* saioan egongo balira bezala sentituko dira partaileak, "kamera, aurkezle eta guzti".

10:00etan hasiko dituzte hiru egunetan abentura-jokoak, Herriko Plazatik. Astelehena izango da lehen eguna: "Taldeak egingo ditugu eta talde bakoitzaren izaera sortuko dugu. Ostean, bandera jolasera jolas-tuko dugu", adierazi dute Lora-

menditik. Egun horretarako kamiseta zuri bat eraman behar du haur bakoitzak, ondoren margotua izango dena. Martitzenean *Gazte Konkis*-eko probak egingo dituzte Otxola Zelain. Eguaztenean, azken probaren ostean, muralgintzako tailerra jasoko dute, eta, bukatzeko, azken jaia egingo dute, sari bana-keta eta mokaduekin.

Haurrak arropa erosoarekin joateko eta motxila batean aldatzeko kamiseta, zira eta ha-maiketakoa eramateko deia luzatu dute antolatzaileek.

Igoera-postuetara hurbiltzeko lehia jokatu du UDAk

Bigarren postu preziatuaren ehizan, hitzordu garrantzitsua eta, era berean, zaila jokatu du Ohorezko Erregional Mailako gizonezkoen taldeak Unben, Eibarren zelaian, domeka honetan, 15:30ean hasita. Armaginak hirugarren dira sailkapenean, aretxabaletarrak baino bi postu gorago eta sei puntuko aldearekin. Joaneko partiduan 1-3 gal-

du zuen etxean UDAk, eta orduko arantza kentzeko gogoz zelairatuko dira Unai Calzonen mutilak. Joko-puntu eta motibazio handiarekin egingo diote aurre partiduari, jokatuak azken hiru norgehiagokak irabazi dituzte eta.

Eibar bisitatu ostean, oporraldiaren lotutako bi asteko atsedendaldia izango dute jokalariek. Behin pilak kargatuta, denboraldiaren azken txanpan murgilduko dira, bost neurketetan daukaten guztia emateko.



Manuel Muñoz kiroldegian izandako Gabonetako parkea, duela urte batzuk. GOIENA

Kiroldegia, haurrentzako aisialdigune hiru egunez

3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, udaberriko jolas parkea izango da astelehenean, hilak 11, eta martitzenean, hilak 12, Manuel Muñoz kiroldegian, haurren gozagarri. Eguaztenean, berriz, puzgarriak izango dira igerilekuan

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Abenduko oporraldian urtero ospatu ohi da Gabonetako parkea, Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegiko kantxan, baina COVID-19a dela-eta unerik onena ez zela ikusita, bertan behera utzi zen, eta apirilaren 11ra, 12ra eta 13ra atzeratzea erabaki zuten. Oraingoan, udaberriko parkea bezala izendatu du Eskoriatzako Udaleko Gazteria Sailak, eta haurrek era askotarikoko jolasak, tailerrak eta bes-telakoak izango dituzte bertan gozagarri.

Manuel Muñoz kiroldegian jarriko dituzten jolasak probatzeaz batera, lagunartean egoteko aukera ere izango dute gaztetxoek.

Bata bestearen aurka aritzeko jolasak izango dira, saltoka aritu nahi duenarentzat puzgarriak izango dira eta lasai-lasai egon nahi duenak eskulana egin ahalko ditu, besteak beste. Hala, herriko hainbat begirale izango dira haurrei

laguntzen, zalantzak argitzen, ilarak sortzen badira horiek kudeatzen...

Udaberrian lehenengoz

"Bertan behera utzi genuen Gabonetako parkea orain egingo dugu, eta haurrek disfrutatu egingo dutelakoan gaude. Izan ere, horretarako jolasak izango dituzte kiroldegiko kantxan. Udaberrian ez dugu sekula antolatu haurrentzat halako jolas parkerik, eta arrakastatsua izatea gustatuko litzaiguke. Haurrei laguntzen, jolasak azaltzen eta haiekin batera jolasten, begirale moduan, herriko hamahiru gazte arituko dira", adierazi du Maider Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria teknikariak.

GABONETAKO PARKEA BERTAN BEHERA GERATU ZENEZ, UDABERRIKOA ANTOLATU DUTE

Ohiko jolasak

Mota askotako eskulana, puzgarriak, ohe elastikoak eta Xbox jolas digitalak egongo dira haurrek ondo pasa dezaten, eta, horretarako, goizean 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara bitartean izango dituzte kiroldegiko ateak zabalik. Hori, apirilaren 11ko eta 12ko parkeari dagokionez. Apirilaren 13an, eguaztenean, berriz, kiroldegiko igerilekuan puzgarriak jarriko dituzte, goizez soilik, 10:30etik 13:30etara bitartean.

Parkerako sarrerak

Jolas parkea 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta interesa duenak egun bateko sarrera erosi dezake, bost eurotan, igerilekuko puzgarrietarako sarrerak hiru euro balioko du eta hiru egunetako sarrera bonuak, berriz, hamar euro. Txartelak Manuel Muñoz kiroldegiko harreran erosi daitezke.

'Aukerak suspertzen' ekimena herrian martxan jartzeko asmoz

Boluntario-sarea aktibatu nahi dute, eta izena emateko epea apirilaren 22ra arte egongo da zabalik

I.B. ESKORIATZA

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak martxan jarritako *Aukerak suspertzen* programarekin bat egin nahi du Eskoriatzako Udalak. Beharra duten pertsonen laguntza eskaintzea da programaren funtsa, baina, horretarako, boluntario-sarea eraiki nahi dute lehenbizi.

Laguntza behar dutenei

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibak kudeatzen du *Aukerak suspertzen* programa. Enpresa sozial bat da, eta gizarte esku-hartzearen eremuan dihardu, komunitatearen garapenerekin inplikaturik dagoena, proposamen berritzaileak abiaraziz eta kalitateko zerbitzuak kudeatuz, arazoak dituzten pertsonen eta kolektiboen behar sozialak gainditzera orientatuta.

Eskolako lanak egiteko beharrrak asetzeraz, gaitasun digitalak eta linguistikoa garatzera eta ikasteko teknikak ikastera bideratuta dago egitasmo hau, eta, *Aukerak suspertzen* programak eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza eskaintzen duenez, boluntarioen komunitate-sarea

aktibatu behar da. Hala ere, laguntza eskaintzeko prestutasuna duten boluntario horiek profesional-talde baten babesaz izango dute etengabe.

Boluntarioak hezkuntza-laguntza gauzatzeaz arduratuko dira, horretarako, adingabe bakoitzaren beharrak identifikatuz. Laguntza astean ordubetako izango da, gutxienez, ikasturtea amaitu bitartean.

Boluntario izateko

"Eskoriatzan martxan jarri nahi dugu ekimen hau, eta horretarako boluntarioak behar dira. Parte hartu nahi dutenak izena, telefonoa eta helbide elektronikoa eman ditzakete, Eskoriatzako udaletxera deituz, 943 71 44 07 telefono zenbakira, edo hazi@eskoriatza.eus helbidera mezu elektronikoa bat bidaliz", adierazi dute Eskoriatzako Udaletik. Hori horrela, izena emateko epea apirilaren 22ra arte egongo da zabalik.

Informazio gehiago eta xehetasunak nahi dituztenek, bestalde, olgavazquez@agintzari.com helbide elektronikora mezu bat bidali ahal dute, edota 688 76 54 05 telefonora deitu.



IMANOL BELOKI

Kalitatea topaketan

Debagoieneko musika eskolen topaketa astelehenean egin zuten Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegian, bi urte egin barik egon ostean. Sei herritako musikariak batu ziren bertan, egunerako prestatutakoa jendaurrean erakusteko, eta ikuskizun aparta eman zuten etxekoan, lagunaren eta bertaratutako guztien aurrean.

Desegindako taldeen errautsetatik sortua

3 Kuervos proiektuarekin ari dira buru-belarri Jon Iglesias 'Moreti' bateria-jotzailea, Maitane Otamendi 'Manzana' gitarra-jotzailea eta Joseba Olmo baxu-jotzailea. Norberak dakiena mahai gainean jarri, eta sortze prozesuan ari dira hirurak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Maitane Otamendi *Manzana* eta Joseba Olmo eskoriatzarrek eta Jon Iglesias *Moreti* soralezetarrak desegindako musika taldeen errautsetatik sortu berri dute 3 Kuervos taldea. *Hiru bele* gazteek punk estiloarekiko lotura handia izan dute betidanik, eta proiektu berri honekin disfrutatzea dute helburu. Barrutik ateratzen zaiena egiten dute, etiketak baztertuz, eta kantu batetik bestera estilo guztiz ezberdina duten piezak sortzen ari dira. Hori horrela, hegoei astintzen hasteko gertu daude; betiere, taldearen filosofia jarraituz: dibertitzea eta egiten dutenarekin gozatzea.

Manzana-k eta *Moreti*-k ibilbide musikal luzea dute, biek daramatzate hogeitau inguru musika egiten, eta hasierako ilusio berarekin jarraitzen dute. "Gogoan dut *Moreti*-k eta biok, 2003an, Sorluzen, bakoitzak bere taldearekin eszenatokia partekatu genuela. Ordutik lagunak gara, eta beti izan dugu elkarrekin proiektu partekatu bat sortzeko gogo. Olmo eta biok, berriz, lagun onak gara, eskoriatzarrek biak, eta gogoz geunden zerbaiti ekiteko. Hala, hirurok batu, eta proiektu berri honi 2021eko urrian ekin genion", dio *Manzana*-k.

Musika zainetan

Maitane Otamendiren lehenengo taldea Desprezio izan zen; Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egin zen 2010eko Danbaka musika lehiaketako edizioan finalista izan zena. Gero, Toxikas taldean ere aritu zen, eta, Las Tuercas taldean egon ondoren, 3 Kuervos proiektuarekin zorazten dago. "Kontzertu asko eman ditut talde ezberdinekin, batean bateria jotzen, bestean gitarra... eta hamaika istorio ditut kontatzeko. Bitxikeria bat, esaterako, orain gogoratzen dudana: 2019an, Abuztuaren 31n Santur-



3 Kuervos taldeko Joseba Olmo, Jon Iglesias eta Maitane Otamendi. IMANOL BELOKI

tzin izandako Eskorbuto taldearen omenaldi kontzertuan, Roberto Moso Zarama taldeko abeslariarekin elkartu nintzen. Oholtza partekatu genuen, eta esan zidan emakumezko batekin eszenatokia konpartitzen zuen lehenengo aldia zela. Harrituta geratu nintzen...".

Moreti, berriz, Kalaña, Que Os jodan, Estropajo, Clavo Oxidado eta Katamixarrak taldeetan aritu da, eta orain bateria jotzen ilusioz dago eskoriatzarrekin batera: "Entseatzeko gozatu egiten dugu, eta gure oi-

narria punk estiloa den arren, eboluzio fase batean gaude. Zortzi kantu inguru atera ditugu, baina gure aurreko taldeetako zenbait kantu ere erreperatu ditugu; ni aritu naizen taldeenak eta baita Maitanek aurrez izan duen talderen bagera

'HIRU BELEEK' SAN PEDRO JAIETAN AURREIKUSTEN DUTE LEHENENGO EMANALDIA

tekoak. Abestiak gazteleraz sortu eta abesten ditugu, eta euskarazkoa bakarra dugu".

Olmok, berriz, lau urte daramatza baxua jotzen, eta Rombos Negros bere lehenengo proiektua desegin ostean, ibilbide berri honekin hasi da. "Taldearen hasiera da, eta ikusiko dugu zein norabide hartzen duen. Maitanek eta biok lokala genuen, musika egiteko gogo, instrumentuak, eta hala sortu da proiektua. Gure asmoa lehenengo emanaldia aurtengo Eskoriatzako San Pedro jaietan izatea da, baina, eguna iritsi aurretik beste aukeraren bat badugu, lehenago animatuko gara. Horren ostean, kontzertuak jotzen jarraitu gurako genuke; beraz, norbaitek interesa badu, jar dadila harremanetan gurekin".

Bihotzez sortutako kantuak

Urrik gaur arte, ahal duten guztietan aritzen dira Eskoriatzan duten lokalean entseatzeko, astean bi edo hiru aldiz. Heriotza, Eskoriatza, Contrastes... herriko talde mitikoei entseatzeko zuten leku berean dute lokala, eta nostalgiaz bada ere, talde horiek ere badira erreferentziakoak haienentzat. "Gure kantuen hitzak sistemaren aurkakoak dira, Elizaren eta erlijioaren kontrakoak, bortxatzaileen baztertzeaz... Barrutik ateratzen zaizkigun hitz ezberdinak eta melodiak ateratzen saiatzen gara. Horregatik ez dugu gure taldea estilo finko batean zehazten. Musikarekiko dugun maitasuna adierazten duen kantu bat ere badugu, esaterako; gure kantu *light*-a dela esaten dugu, ez du ezer errebindikatzen, baina bihotzetik egindakoa da. Kantu bakoitzak bere pertsonalitatea du, batetik bestera oso ezberdinak dira", adierazi du Olmok.

Oholtzara igotzeko gertu

Musika egiteko, elkartzeko eta sortzeko gogo dela taldearen ardatza adierazi dute musikariek, eta etorkizun hurbilean zuzenekoak emateko ilusioa dute: "Gure kantuak lokalean grabatzen ditugu. Ez da modu profesionala, baina, aurrera begira ez dugu baztertzen disko bat behar bezala grabatzea. Niretzat amets bat izango litzateke. Hala ere, une honetan motibatuta gaude, eta kontzertuak eman nahi ditugu. Gero gerokoak...", adierazi du Joseba Olmok.

Atxorrotx Kultura Elkartaren eguna, maiatzaren 7an

Korrika Kulturalaren barruan, Durangaldeko Sei Urte taldearen kontzertua izan zen joan den egubakoitzean Inkernu tabernan. Hala, Atxorrotx Kultura Elkartekoek martxa hartuta, hilero emanaldi bat antolatzeko asmoa agertu dute. Hala ere, hurrengo hitzorduarekin daude zentratuta egunotan; hau da, maiatzaren 7an ospatuko den Atxorrotx Kultura Elkartaren egunarekin.

"Urteroko programa jarraituz antolatuko dugu Atxorrotx Kultura Elkartaren eguna, beste urte batez. Goizean gaztelu puzgarriak izango ditugu, taloak egongo dira salgai, herri bazkaria, kontzertuak, eta gauean, gurean zenbaitetan izan den DJ Elviskaino arituko da musika jartzen. Sorpresa eder bat ere prestatu dugu egunerako, baina oraindik ez dugu ezer aurreratu nahi; edozelan ere, ikustekoa izango da", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.



Gaztelekuan kozinatzen. GOIENA

'Bixi udaberrixa' nerabeentzako ekintzak, bi egunetan

Apirilaren 11rako eta 12rako, astelehena eta martitzena, hainbat erronka prestatu dituzte hezitzaileek Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeentzat. Lehenbizi, Urkulu urtegiaren zehar erronkak gainditu beharko dituzte gaztetxoek, taldeka, eta, ondoren, Fernando Eskoriatza plazan tortilla lehiaketa, bazkaria eta Oihu taldearen kontzertua izango dira.

Finalaurrekoa, Ordizia liderraren aurka

Domeka honetan, 09:30ean jokatuko dute Eskoriatza areto futbol taldeko senior emakumezkoek Ordizia ligako liderraren aurkako finalaurreko partidua, etxetik kanpora, eta erabakigarria izango da 'play-off'-eko finala jokatzeke

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatza areto futboleko senior emakumezkoek joan den asteburuan jokatutako zuten ligako azkenengo partidua. Sailkapenean bigarren postuan dagoen Antiguokoren aurka jokatutako zuten, eta, 0-0 eginda, sailkapeneko laugarren postuan amaitu dute denboraldia. Ligan bederatzi talde daude, eta denboraldi hasieran markatutako helburua bete dute; hau da, urtero moduan, *play-off* erako sailkatzea. Hala, orain, beste fase bati ekingo diote, eta, esperantza izan arren, partidua zailak aurreikusten dituzte.

"Sailkapeneko lehenengo lau postuetan geratu garenok jokatuko dugu fase berri hau. Laugarren postuan geratu garenaz, Ordizia liderraren aurka jokatuko dugu, eta irabazten badugu, finalerako sailkatuko gara. Bigarren postuan sailkatu da Antiguoko, eta hirugarren postuan geratu da Laskorain. Beraz, bien arteko bat sailkatuko da finalerako. Izugarria izango litzateke asteburu honetako partidua irabaztea, baita finala ere, baina gero etorriko litzakeena da benetan zaila. Hau da, *play-off*-a irabazten duenak Arabako eta Bizkaiko onenen aurka jokatuko beharko du mailaz igotzeko,



Eskoriatzako areto futboleko senior emakumezkoak talde argazkian. MARTA GARCIA

eta talde oso indartsuak sailkatzen dira probintzia horietan", adierazi du Marta Garciak, Eskoriatzako jokalaria.

Talde txikia, emaitza handiak

Alex Justel emakumezkoen senior taldeko entrenatzailea ari da taldea gidatzen, Jon Ugarte areto futboleko gizonezkoen lehenengo taldeko jokalariekin batera. Zailtasunez betetako bidea izan dute, baina talde sendoa eratu dutela gaineratu du Marta Garcia jokalaria: "Hamar jokalarirekin hasi genuen den-

boraldia. Jokalari bat lesionatu zitzaigun denboraldiaurrean, eta ez da bueltatu. Kopako bi partidua jokatutako genituen, eta ligako bigarren jardunaldian ni ere lesionatu nintzen. Gaur-gaurkoz, zazpi jokalar daude taldean jokatzeke gertu, eta, entrenamenduetan gutxi batzen diren arren, demostratu dute denboraldi honetan hasierako helburuak bete daitezkeela, gogoia badago. Hala ere, kanpaina egin beharko dugu datorren denboraldira begira, emakumezko gehiago batu daitezen taldera".

Onenengandik ikastera

Eskoriatza Kirol Elkarteko zenbait entrenatzaile, delegatu eta jokalar areto futboleko Espainiako Kopan izan dira asteburuan, zale gisa. Jaenen jokatutako finala, Olivo Arena estadioan, Bartzelona eta El Pozo Murtzia taldeen artekoa, eta, eskoriatzarrek kirol bera praktikatzen dutenez, punta-puntako jokalarien arteko lehia ikusteko txangoa egin zuten.



ESKORIATZA KE

LEINTZ GATZAGA 23



Sara Salterain uruguaitarra, Korrikan, lekukoarekin. IMANOL SORIANO

"Euskara ikasi eta ondo hitz egin nahi dut, maite dudalako"

Sara Salterain uruguaitarra aurtengo Korrikan parte hartzen izan da eta lekukoa eraman du, Gatzagan

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Sara Salterain (Montevideo, 1960) uruguaitarra ezaguna da gatzagarren artean. Haren arbasoen jaioterria delako gatzaren herria eta zenbait bider izan delako bertan. Esaterako, 2017an, bere loba Lua Zoinorekin Euskal Herrira etorri zen, eta Gatzagan elkartu zen jatorriz bertako Arrate baserrikoak diren salteraintar familiako bederatzi kide, Korrikan parte hartzeko. Hori horrela, aurtengo ere bertan izan da, batetik, Gatzagan, gatzagarrekin egoteko eta, bestetik, euskararekiko maitasun izugarria duelako.

Korrikarekin bat

"Aurtengo Korrikako hasiera ekitaldian izan naiz, Amurrión. Hurrengo goizean, Abadiñon egin nuen korrika, eta Korrika Gatzagatik pasatu zenean lekukoa eramateko aukera izan nuen.

Bertan korrika egitea ez da erraza, aldapa gogorak daudelako, eta maldan beheerako zatia egitea eskatu nuen, eta hala egin. Gainera, Donostiara ere joango naiz, amaiera ekitaldira".

Euskara ikasten

Bere arbasoak euskaldunak zirenez, oso konprometituta dago Salterain euskararekin. 2015ean, Montevideon, euskaraz ikasten hasi zen, eta ordutik bere maila hobetzen saiatzen ari da. "Montevideoko Euskal Etxean hasi nintzen euskara ikasten, Euskal Herrira etortzean barnetegi batean egon nintzen, Aretxabaletako euskaltegian eta zenbait herritako Berbalagun taldeetan ere bai. A2 euskara maila atera nuen lehenbizi, B1 maila ondoren, baina nire asmoa ez titulu horiek lortzea, helburua euskara ondo jakitea da, eta hitz egitea. Euskara asmo maite dut".

Makilakorta jaiko pilota txapelketarako deia emakumezkoek

Maiatzaren 7an ospatuko da Makilakorta Fest jaia Leintz Gatzagan, eta Gatz City Krew gazte taldeko antolatzaileek adierazi dutenez, binakako pilota goxo txapelketarako izena eman daiteke oraindik. Pilota partidua herrikoietan gizonezkoen sailerako izen-emateak bete egin dira, eta emakumezkoen sailean oraindik parte hartzeko aukera

dagoela adierazi dute. Horretarako, @gatzacitykrew Instagram kontura idatzi edo Gatzagan Labidean, Aretxabaletan Arlutz tabernan edo Eskoriatzan Inkernu tabernan eman daiteke izena.

Horrekin batera, jaieguna iristeko hilabete baten faltan, Gatzagan egingo den herri bazkarirako txartel salmenta ere gogorarazi nahi izan dute antolatzaileek. Menua *catering* batek zerbitzatuko du, eta sarrerak 11 eurotan erosi daitezke, Labidean.

EGITARAUUA



Barazki postu bat iazko azoka mugatuan, Fraiskozurin. GOIENA

EGUBAKOITZA 8

ERRAMU ZAPATU BEZPERA

22:00 Korrika Kulturalaren barruan: BERTSO SAIOA Seminarixoa. Bertsolariak: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia. Gai jartzailea: Ibon Leibar Txinbo. Sarrerak salgai zortzi eurotan, www.seminarixoa.eus helbidean.

ZAPATUA 9

ERRAMU ZAPATUA

09:30 FERIAREN IREKIERA.

Ibargarain: abelburuen erakusketa.

Oxirondo plazan: elikagai-postuak.

San Martin plazan: artisautza-postuak eta Eusko Label oilasko izter pintxoak.

Seminarioko patioan: makinaria, burdindegia eta landare erakusketa. Basatxerri pintxoak.

Katabixan: talo postua eta edariak.

11:30 TXORIMALO LEHIAKETA. Antolatzailea: Jardun. BERTAN BEHERA geratu da, ez duelako inork izenik eman.

11:30 Aurtizko JOALDUNAK herriko kaleetan zehar.

12:00 KALEJIRA Bergarako Musika Eskolako trikitilariak, dantzariak eta perkusio ikasleak. Kalejiraren ondoren, EMANALDIA egingo dute Ibargarai kalean.

17:30 Umeendako ZESENTXOAK ETA PONEYAK seminarioko patioan.

20:00 DANTZA-JIRA ikuskizuna Aiko taldearekin, Fraiskozuri plazatik hasita.

Oharra: Eguerdian eta arratsaldean ANIMAZIOA kaleetan zehar, GESALTA TXARANGAekin.



Iaz ez bezala, aurtun edukieraren, norabidearen eta postuen muga barik egingo da azoka. GOIENA

Ia inongo muga barik, eta ia ohiko osagai guztiekin

Bueltan dator ohiko Erramu Zapatuko feria, edukiera mugarik gabe eta pandemia aurreko postu kopuruarekin; hori bai, herri bazkaririk eta txorimalo lehiaketarik ez da egingo. Euskal Herriko Itzulia ere batuko da festara, Gorlan behera datorrela (16:00)

Jokin Bereziartua BERGARA
Pandemiak 2020ko eta 2021eko ospakizunak erabat baldintzatu ostean, bergararrek bereziki gogotsu hartuko dute aurtun Erramu Zapatua, udaberriko oporraldiaren aurreko festa kutuna. Egitarauko lehen ekitaldia gaur 22:00etan izango da, Seminarixoa, Erramu Zapatu bezperako klasiko baten den goi mailako bertsolariak saioaz gozatzeko aukera izango dute eta bertsozaleek; kartelean iragarri den arren, Saioa Alkaiza ez da oholtzan egongo (Ikus 26. orria).

Benetako feria berriz ere
2020an ez zen ez feriarik ez beste ekitaldirik egin, konfinamen-

du beteko garaia zirelako; hainbat herritarrek balkoietan ospatu zuten, modu batera edo bestera. Iaz egin zen ekitaldiren bat edo beste; tartean, Fraiskozurin postu eta edukiera mugatuarekin egin zen azoka. Aurtun, baina, pandemia aurreko osagai guztiekin dator feria, 09:30etik 14:00etara.

Ibargarai kalea abelburuak ikusteko gunea izango da goiz osoan. Oxirondo plazan askotariko elikagaiez osatutako 38 postu egongo dira; adibidez, Bergarako Mari Karmen Etxebarriaren barazkiak eta frutak eta Erlantz Olabarria erlezainaren postu didaktikoa. San Martin plazan artisautza eta asko-

tariko eskulanak izango dira protagonista, 33 artisaurekin; horietatik bost herrikoak bertakoak izango dira. Are gehiago, San Martin plazan postua jarriko dute herriko parpailagileen taldeak, Buztinzale zeramika elkarteak, taila elkarteak, Mariaren Lagundia ikastetxeak, elikagai bankuak, odol emaleen elkarteak, Goyeneche fundazioak, turismo bulegoak eta Black Bordados komertzioak. Seminarioko patioa ere bisitatzeko beste gun e interesgarri bat izango da, bertan askotariko makineria, zuhaixkak –eta lorezaintza– eta larrua ontzeko postuak egongo direlako eta mokadutxo egiteko aukera ere egongo delako Eusko

Sastreria Alujika
BIZI - NAHI

Gizon eta gazte moda
Osagarriak
Ezkontza-trajeetan espezializatuak

*Aurtun bai!
Disfrutatu
Erramu Zapatua!*

Barrenkale, 1 • 943 76 29 91
instagram @sastreriamujka

itesa

Ondo ibili Erramu Zapatuko ferixian!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Labeldun oilasko-izter pintxoekin. Katabixan talo eta edari postua egongo da.

Herri bazkaririk ez aurten

Pandemia aurretik ekitaldi jendetsuenetako bat izan ohi zen Txapa Irratiak eta Xaxau jai herrikoien konpartsak udal pilotalekuan antolatu ohi zuten herri bazkaria; 400 lagun ere elkartu izan ziren. Aurten, baina, antolatzaileek erabaki dute ez egitea: "Ezin dugu bermatu 400 lagunek gomendatzen diren

arauak beteko dituztenik eta orain bertan ez gaude suertatu ahalko litzatekeen edozein arazoren ardura hartzeko moduan. Aurrera egitea erabakita ere, denbora gutxi izango genuke halako ekitaldi bat antolatzeko, eta horregatik erabaki genuen hurrengo urtera atzeratzea".

Txorimalo lehiaketarik ere ez

Erramu Zapatuko beste klasiko bat izan ohi zen Jardun euskara elkartearen Txorimalo lehiaketa. Aurtengoa 26. aldia izango

zen, baina ez du inork izenik eman eta ez da egingo. "Ez dakigu zein izan den arrazoia, ohi moduan egin dugu eta lehiaketaren berri emateko zabalkundea. Uste dugu pandemiaren bi urteko etenak eragin zuzena izan duela; datorren urtera begira hausnarketa egingo dugu, ohitura zahar eta eder hau berreskuratu nahi dugulako. Ziur lortuko dugula, albiste txarra litzateke eta euskara eta irudimena sustatzea helburu duen ohitura polit hau betirako galtzea.

Hortaz, penarekin, baina aurten ez dugu erakusketarik jarriko Ibargarai kalean", adierazi dute Jardunekoek. Hori bai, Jardunek urtero saldu ohi dituen zapiak Iralan edo San Martin plazan egongo dira erosgai, hiru euro-

OHIKOAK ZIREN BI EKINTZA EZ DIRA EGINGO: TXORIMALO LEHIAKETA ETA HERRI BAZKARIA FRONTOIAN

tan: gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar 10:00etatik 14:00etara.

Feria goizean, Itzulia 16:00etan

Feriak eta Euskal Herriko Itzuliak eragin zuzena izango dute trafikoan. Feriarako goizean goiz itxiko dute Ibargarai kalea -Fraiskozuri ez dute itxiko-. Itzulia, berriz, 16:00etan pasatuko da eta dena itxita egongo da: Gorlatik jaitzita, Bideberri, Fraiskozuri, Herri-lagunak eta Matxiategi zeharkatuko ditu probak.

"Erlategian akabatutako liztorrak eroango ditut, arazoaz jabetzeko"

ERLANTZ OLABARRIA ERLEZAINA

Ogibidea ez bada ere, zaletasun "oso indartsua" da erlezaintza Olabarriarendako.

Gogotsu Erramu Zaturako?

Bai. Denbora asko pasatu da herritarrekin harreman zuzena izan barik, eta ilusioa egiten du egiten duguna erakustea.

Oxirondon izango duzu postua. Zer eroango duzu?

Erlezainok erabiltzen dugun materiala eroango dut. Simulazio bat egingo dut, ezta nola ateratzen dugun erakusteko. Panel didaktikoak ere jarriko ditut eta saiatuko naiz erregina markatuta eroaten, erraz identifikatu dadin. Umeei kandelak egiten irakatsiko diegu; ilusioa egiten die eurek egindako kandelak bat eroateak, euren urtebetetze egunean erabili dezaketelako; denbora luzez gogoratu ohi duten zerbait da. Postuan erakutsiko dugun guztia



E.O.

bailarako ikastetxeetan ere erakutsi ahalko nuke, eskolei interesatuko balitzaie.

Liztor asiarra buruhauste iturri da oraindik ere, ezta?

Itzela. Erle-kutxa bakarrak biziraun du iazko erasotik... Nire erlategian jarritako tranpek frogatu dute Asiako liztor asko dagoela Bergaran; hildako liztor horiek azokara eroan nahi ditut, arazoa erakutsi eta denon artean aurre egin behar dugula esateko. Ez gara kontziente bertako erlearen garrantziaz.

**ERRAMU
BERGARA 2022
ZAPATUA**

Apirilak 9, larunbata

**DENETARIKO ESKAINTZA
ETA HERRI OSOA GIROTUTA!**

**Animatu eta
mahoi z jantziz!**

BERGARA
izan, *bizi*, ekin

Bergarako Udala

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

**Ondo ibili
Erramu
Zapatuan!**

21
KALITATEA

Enpresa Registrada Vº90/025




Andoni Egaña.



Maialen Lujanbio.



Unai Iturriaga.



Iker Zubeldia. ARGAZKIAK: GOIENA

Bertsoak, dantzak eta askotariko doinuak, prest

Bi urteren ostean ohiko formatura bueltatuko den Erramu Zapatuaz goatzeko kultura eskaintza zabala prestatu dute. Seminarixoko bertso saioarekin gaur hasi, eta kalejira eta dantza saioa egingo dute bihar eguerdian Musika eskolako ikasleek Iralan

Jone Olabarria BERGARA

Ohiturari jarraituz, bezperan egingo duten punta-puntako bertso saioarekin hasiko dira Bergaran Erramu Zapatuko ospakizunak. Udalak Kopla Barik bertso-eskolaren laguntzarekin antolatutako saioan, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia izango dira Seminarixoko agertokira igoko diren bertsolariak, eta, dagoeneko klasiko bilakatuta, Ibon Leibar *Txinbo* arituko da gai-jartzaile lanetan.

Bertso saioak izan ohi duen arrakastaren seinale, agortuta daude sarrerak; izan ere, herri-tarren artean "errotuta" dagoen saioa da Erramu Zapatu bezpe-

rakoa, urtetik urtera herritar gehiago erakartzen dituen.

Umorea oinarri

Ibon Leibar *Txinbo*-k azaldu duenez, ohi moduan, "pare bat gai serio" izango dira saio hasieran, baina ostean, umoreak hartuko du protagonismoa: "Erramu Zapata bera eta giro ona sustatzeko gaiak plazaratzea da asmoa. Beti umoretik lantzen dugun saioa izaten da Erramu Zapatukoa, publikoak ondo pasatzeko helburuarekin egiten dugu. Jolas moduko batzuk ere egingo ditugu, eta bertsolarien eta ikusleen harremana estua izatea espero dugu aurtengo bertso saioan".

Gaztetxoak protagonista

Bertsozaleasuna gaztetxoaren artean sustatzeko asmoz, eta etorkizuneko herriko bertsolarien harrobiaren erakusle, Jardun euskara elkartearen haur eta gaztetxo bertsosko eskolako bederatzi umek saioan parte hartu eta puntua jarriko diete bertsolariei.

Iluntzeko saiorako "gogoz" daudela azaldu dute: "Ume eta gaztetxoak pozik daude bertsolariak ezagutu eta haiekin egoteko aukera izateagatik. Ilusio berezia zuten eta aukera polita dela iruditu zitzaigun. Korrikaren bueltako bi puntu botako diete bakoitzak, bertsolariek erantzuteko".

Gaztetxoak eta umeak protagonista

Dantzariak, trikitilarien eta perkusio ikasleen laguntzarekin, 12:00etan Iralan kalean emanaldia egingo dute. Musika Eskolako 50 dantzari eta hogeit hamar musikari parte hartuko dute emanaldian, eta euskal dantzak eskainiko dituzte.



Eguraldia lagun, 2019ko Erramu Zapatuan egindako dantzak. B.M.E.

Askotariko kale animazioak

Herritarrek Jardunek antolatutako azokaz gozatzen duten bitartean, kaleetan zehar ibiliko dira Aurtizko joaldunak, eta eguerdian kalejira egongo da Bergarako Musika Eskolako trikitilari, dantzari eta perkusio ikasleekin; eguerdiko hamabietan Iralan kalean emanaldia egingo dute. Eta Ibargain ere emanaldia egingo dute ondoren.

50 dantzari Iralan

Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu du "pozik" daudela urteroko ohitura berreskuratu eta berriz ere kaleak alaitzen ibiltzeko aukera edukitzeagatik: "Guztira, Musika Eskolako 50 dantzari eta hogeit hamar musikari parte hartuko dute Erramu Zapatu-rako prestatu ditugun ekital-

dietan. Irala kalean egingo dugun dantza emanaldian, Euskal Herriko dantza tradizionalak dantzatzeko dituzte: agurra, zinta dantza, brokel dantza, makil dantza...".

Bazkalostea girotzen

Goizeko azokaz eta bestelako ekintzez gainera, bazkalostean kaleak girotzen jarraitzeko Gelsaltza txaranga ibiliko da herriko kaleetan barrena, baita eguerdian ere.

Ostean ere, 20:00etan, dantza-jira egingo dute, Fraiskozuri plaza abiatuta, Aiko taldearekin.

"UMORETIK LANTZEN DUGUN SAIOA IZATEN DA, PUBLIKOAREKIN HARREMAN ESTUAREKIN"

RPS: 227/18

ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5
Bergara
943 76 19 63

Ondo pasa Erramu Zapatuan!

AURTEN BAI!
DISFRUTAU ERRAMU ZAPATUA!

Industrias UGATU S.L.

FINKATZE MOTA GUZTIETARAKO KONPONBIDEAK

Tel.: 943 76 98 23 • www.ugatu.com
• ugatu@ugatu.com



Hondeamakina, aste barruan, ortuak egingo dituzten belardian. J. BEREZIARTUA

Ortu komunitarioen lanak, uztaileko gertu

San Martzialera bidean, Zaldumendi eta San Josepe baserrien artean jarriko dituzte ortu komunitarioak. Aurreikuspenak betetzen badira, uztaileko amaituko dituzte lanak, eta, dena ondo bidean, maiatzean irekiko dute izen-ematea

J.B. / X.U. BERGARA

Duela aste bi hasi zituzten ortu komunitarioak egiteko lanak. Ortuok herritar guztien erabilerarako pentsatuta daude, eta irizpide jasagarriak izango ditu kontuan. Horretarako, oinarriko ur, materia organiko eta biltegi guneak "auzokidetasun irizpideei jarraiki" antolatuko dira, eta, ondorioz, baratze ere-

mu barruan hainbat elementu komun egongo dira; tartean, erabiltzaileen etxola. Era berean, etxolak topaleku funtzioa ere izango du eta lanabesak zein barazkiak garbitzeko aska bat ere izango du. Talde lanabesei dagokienez, oinarriko tresnak Udalak jarriko ditu, eta hauen erabilera baratzezain taldearen ardura izango da.

Bide berri bat oinezkoendako

Ortuetara heltzeko bi bide egongo dira: batetik, ur depositura doan errepidea izango da autoz zein oinez iristeko aukera ematen duena –bizikletendako eta lau ibilgailurendako aparkalekua egongo da–. Bestetik, Ibargarai kalean ibaiatz gaildi dagoen bide magaletik abiatuko den bidea zabalduko dute oinezkoentzat.

90 partzela izango ditu, guztira

San Martzialera bidean dagoen ortuak egiteko bideratuko duten landa eremuak 22.282 metro koadroko hedadura du, eta, guztira, 90 partzela izango ditu.

222.870 euro lanak egiteko Proiektuaren exekuzioa K1 Ekopaisaia enpresari esleitu diote eta 222.870 euroko aurrekontua izango du, BEZa barne.



Ortuek izango duten egitura, proiektuan jasota. BERGARAKO UDALA

Adikzioen Prebentziorako Tokiko Plana berrituko dute

Herritarrekin batera egin nahi du lan hori Udalak; oraingo planak adikzio-motak ere jasoko ditu

X.U. BERGARA

Bergarako Udalak Adikzioen Prebentziorako Tokiko Plana berrituko du. Lanketa herriko talde eragile, eragile sozial eta gaiarekiko interesa duen herritar ororekin osatu eta martxan jarri gura dute, eta berritasunak izango dira diagnostikoa egiteko modua eta jasoko dituen adikzio-motak.

Tokiko Plan hori izango da Gizarte Zerbitzuek 2023-2027 urteetan zehar martxan jarriko duten ekintza garrantzitsuenetakoa. Helburuak dira udale-

rriaren errealitatearen diagnostiko bat egitea; premiak identifikatu eta drogen eta bestelako adikzioen esku-hartzeko lehen-tasunak zehaztea; eta herritarren menpekotasunen problematikaren aurrean sentsibilizatu eta hezteak, besteak beste. Hala, drogez gain, bestelako adikzio batzuk ere hartuko ditu bere gain; esaterako, bideo-jokoak, apustuak eta sare sozialak. "Egun-egoerara egokituko da, eta errealitateari hobeto erantzuteko aukera emango digu", azaldu du Ainhoa Letek.

Auto bat, bizikletak, kanpin-dendak eta beste lapurtu dituzte

Lapurretan egin dute Zurradero kaleko etxabeetako garaje komunitarioan. Eguenera arte, hamabost salaketa jaso dituzte ertzain-etxean. Ostu dituzten artean: auto bat –Honda markakoa, giltzak jarrita zituen–, bizikletak, mendiko arropak, kanpin-dendak, lo-zakuak, janari kontserbak, edariak, askotariko erremintak... Martitzenetik

eguaztenera arteko gauean gertatu da. Azkenaldiko "lapurretarik handiena" izan dela diote ertzainek. Haiek uste dute autoa lapurtu izanak erraztu duela beste hainbat gauza lapurtu izana autoan eroanda.

Ertzainek diote auto barruan giltzak ez uztea komeni dela, garaje barruan autoa zabalik lagata ere. Beste gomendio batzuk: garaje komunitariotik ateratzerakoan atea itxi arte itxoitea eta kamerak jartzea garaje sarreran edo pasilloetan.

OHARRAK

Itzuliaren eragina herri barruko zirkulazioan

Euskal Herriko Itzuliak eragin zuzena izango du zapatu arratsaldean herri barruko zirkulazioan. Txirrindulariak 16:00 bueltan pasatuko dira Bergaratik: Gorlatik jaitzita, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak eta Matxiategi kaleak zeharkatuko ditu probak, eta Arraten amaituko dute etapa hori. Hala, tarte horretan kale horiek itxita egongo dira.

Udalak, hiru lanpostu betetzeko deialdia

Lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez Obra eta Zerbitzuetako brigadarako elektrizitateko arduraduna eta kirol instalazioen mantentze ofizial bi kontratatuko ditu Bergarako Udalak, mugagabeko kontratuarekin hasieran –txandakako kontratu bidez– eta kontratu finkoarekin horren amaieran. Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira. Eta eskabideak martxoaren 30etik hasita gehienez ere hogeitaz laneguneko epean aurkeztu beharko dira. Lan-kontratuak lan-jardun osoak izango dira kasu guztietan. Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabidea Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Bulegoan –BAZen; 08:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera– eta *Bergara.eus* webgunean eskuratu ahal izango da.

Gertu dute udaberriko oporralldirako eskaintza

Aste Santuan eta Pazko astean, Laboratorium museora joateko eta bisita gidatuak egiteko aukera

J.O. BERGARA

Azken urteetan pandemiak baldintzatu ostean, badator ohiko eskaintza Aste Santuaren bueltako oporralldira begira: Bergara monumentala, laborategi historikoak, Laboratorium museoa eta dolmenen ibilbidea; horiek dira udaberriko oporrall-dian Bergarak eskainiko dituen aukeretakoz batzuk.

Apirilaren 14tik 24ra, Aste Santuan eta Pazko astean, Laboratorium museora joateko eta bisita gidatuak egiteko aukera zabala izango da –eskaintza osoa, udal webgunean–. Bertatik eskaintzen diren bisita gidatuak –dolmenen ibilbidea izan ezik– aipatutako epean, egunero, 11:00etan eta 12:30ean egingo dira. Dolmenen ibilbidera bisita gidatuak apirilaren 9an hasiko dira, gaztelerazko bisita batekin, eta urrira arte egingo dituzte.

Aurreko urteetan bezala, bisita Karakateko aparkalekutik abiatuko dira, goizeko hamarretan, eta lau ordu inguru iraungo dute. Helduentzat 5 euroko kostua izango du eta 12 urtetik beherako haurrentzat, 3 eurokoa. Izena emateko, 657 79 46 77 telefonora deitu –gutxienez, bi lagun–.

Izuzkizaren 'Borregos que ladran' liburuaren aurkezpena gaur

Juan Izuzkiza egile bergararrak *Borregos que ladran* izeneko liburuaren aurkezpena egingo du gaur arratsaldean, Angiolillo liburutegiak gonbidatuta. Bizitako egoera errealetatik, egungo hezkuntza sistemaren azterketa kritikoa egiten du. 18:00etan hasita, bereziki ikasleentzat eta irakasleentzat presatutako saioa da.

Ehundu egitasmoaren formakuntza saioak, abian

Eragile eta norbanako interesatuei zuzenduta daude, eta "ekonomia sozial eraldatzailea mahai gainean jarri" eta "gaian sakontzea" dute helburu formakuntza saioek. Lanak hasita, Mizpildi kaleko bulegoa udarako prest egotea espero dute

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Udalaren, herri ekimenaren eta Ehunduren arteko lankidetzaren "beste urrats bat" izango diren formakuntza saioei hasiera eman diete asteon. Herritarrei "proiektu propioak eraikitze lanabesak" eman nahi dizkiete, komunitatearen ahalduztze prozesuan aurrera egiteko asmoz.

Lehen saioa, "positiboa"

Bi zatitan banatu dituzte saioak: uda aurretik hiru egingo dituzte eta beste hirurak, ostean. Edukiari begira, "kezkak identifikatu" eta "lan ildoak zehaztu" dituztela azaldu du proiektuko dinamizatzaile Jokin Guridik: "Ekintzailetza soziala eta tokiko garapena dute oinarri. Lehen saioan, kooperatibismoari buruzko testuinguru orokor bat eskaini dugu, komunitatearen sortzen diren proiektuei egitura emateko asmoz. Hemendik aurrera, marketin soziala, ekonomia feminista eta halakoak garatzea da asmoa".

Orain arte egitasmoak egingandako bidez eta izandako harreaz galdetuta, "balorazio positiboa" egiten dutela dio Ehunduko dinamizatzaile Ander Zangituk: "Azken hilabete hauetan lan ildo ezberdinak jorratu di-



Herritarrek eguaztenez, Uneden egindako Ehunduren lehen formazioan. J.B.

tugu, eta, nahiz eta hasierako fasean egon, arnas luzeko proiektua izanda hemendik denbora batera erantzun eta emaitzak ikustea espero dugu".

Baliabideak eskaini

Herritarrei begira, halako formakuntzetan parte hartzea "aberragarria" dela diote egitasmotik: "Martxan jarri nahi dituzten proiektuak egituratzeko tresnak jasoko dituzte, eta, egun bizi dugu egoera sozioekonomikoaren barruan ere, baliabideak eskainiko dira gure artean antolatu eta erantzuna emateko".

Datozen saioei begira

Uda aurretik egingo dituzten saioei dagokienez, datorren martitzenean, *Ekonomia sozial eraldatzailea. Nondik eta nola eraiki gure proiektuak?* eskainiko du Beñat Irasuegik; maiatzaren 17an, *Ekonomia feminista eta zaintza* Miren Arangurenaren eskutik; eta ekainaren 14an, *Talde kudeaketa, antolaketa eta parte hartze inklusiborako tresnak*, Nerea Eliasek gidatuta. Saiotetan parte hartzeko, *ehundu@ehundu.eus* helbidera idatzi.

Bulegoa, herritarren zerbitzura

Azken asteetan ekin diete lanei; udarako bulegoa gertu eta martxan egotea aurreikusten dute. "Espazio erreferentzial bat izatearen garrantzia" azpimarratu, eta herritarren eta Ehunduren arteko "artikulazio lana" egiteko espazioa izan gura du bulegoak: "Eragileek eta norbanakoek bertara joan eta aholkularitza eta bestelako zerbitzuak izango dituzte".



Mizpildi kalean dagoen bulegoa, lanak hasita asteon. J.B.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[”]
kide**



www.goiena.eus/kidesk





Eskolako haurrak Iñigo Ramirez de Okarizekin udal artxiboan. IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

'Irinmodo': hamarkada bat herriko ondarea batzen eta transmititzen

2012ko abuztuaren 2an argitaratu zuen Iñigo Ramirez de Okariz historialariak lehen artikulua 'Irinmodo' blogean. Uzarragako erretaularen inguruko artikulua izan zen lehena. Hamarkada bat igaro ostean, blogak hasierako loraldiari eusten dio

Maidar Arregi ANTZUOLA

Blogek benetako loraldia bizi zuten unean jaio zen *Irinmodo*: 2012ko abuztuaren 2an. Helburu argia izan du beti Iñigo Ramirez de Okarizek: "Antzuolako historia, natura eta kultura ondarearen transmisioa erraztea izan dut xede. Maiz, historialariok gure lana dibulgatzeko zailtasunak izaten ditugu, eta hori guztia sozializatzeko bloga tresna egokia dela deritzot. Etxean askotariko dokumentuak nituen eta modu ordenatuan jartzeko era ere bazela iruditu zitzaidan; eta halaxe animatu nintzen eta erantzun oso ona izan zuen".

Herri baten historia jasotzen du blogak, eta sekulako altxorra Antzuolako herriarendako. "Bailaran Joxe Mari Velez de Mendizabalek eta biok elikatzen ditugu blogak gure herrien historiekin. Hark ere 2011 bueltan

sortu zuen bloga gure natura eta kultura ondarean ereiteko asmoz".

'Irinmodo': izena eta izana

Ikerlari antzuolarrak azaldu du blogaren izenaren jatorria: "*Irinmodo* da Antzuolari buruz azaltzen den lehenengo toponimia. Oñatiko kondearen dokumentuan agertzen da, eta izen sinbolikoa izan zitekeela pentsatu nuen".

Sozializazio prozesua

2019an, 500. artikulua argitaratu eta horren bueltan lehiaketa antolatu zuen Iñigo Ramirez de

**KONTRASTATUTAKO
INFORMAZIOARI
IKUS-ENTZUNEZKOAK
BALIO ERANTSIA
EMATEN DIO**

Okarizek: "500. artikulua aitzakia, blogaren sozializazio prozesuari ekin nion. Izan ere, ez nintzen kontziente herritarrek bloga edozein kontsulta egiteko eskura zuten jakitun ba ote ziren. Hala, galdera sortak planteatzen nituen eta asmatzen zutenen artean Antzuolaren inguruko liburuak zozketatzen nituen. Nolabaiteko inpaktua lortu zela esango nuke".

Euskararen aldeko hautua

Bloga euskara hutsean idaztea argi izan du beti: "Euskarak zenbait muga jarri dizkio. Hapena mugatu egin du, batetik, Antzuolari dagokion edukia jaso duelako, eta, bestetik, euskaraz idatzi dudalako. Hori bisitetan, noski, islatu da. Ez dira asko, baina direnak oso fidelak eta onak dira". Gaineratu du informazioa bilatzeko lanak herri-



Uzarraga elizako erretaula, 2010ean. 'IRINMODO'

Uzarragako erretaula, lehena

Irinmodo blogean argitaratutako lehen artikulua Uzarragako erretaularen gainekoa izan zen. "Leku esanguratsua da niretzako; lotura emozional handikoa, eta Uzarragaren historia berreskuratu nahi izan nuen blogaren estreinaldian".



Antigua auzoa, 1960ko hamarkadaren hasieran. 'IRINMODO'

Antigua auzoaren sorrera, azkena

Blogeko azken sarrera apirilaren 1ekoa da. Bertan, Antigua auzoaren bilakaera jaso du historialariak. "Gure herriak eraldatzen joan dira eta azken artikulua honetan, 1960ko hamarkadan Antiguak izandako bilakaera azkarra jaso dut".

rrekin harremantzeko bidea ere eman diola. Herriko artxiboan ez ezik, auzolanean herritarrekin ere elkartu baita. Blogak bideoak eta argazkiak ditu, eta, hain zuzen ere, ikus-entzunezko alderdi horrek ematen dio gertutasuna eta balio erantsia.

**'IRINMODO' BLOGA
HERRITARRENGANA
IRISTEKO ASMOZ,
LEHIAKETA ABIATU
ZUEN 2019AN**

Erabiltzaileetako bat da Anas-tasi Gabilondo: "Gai baten bueltan kontsulta zehatza egiteko sartzen naiz; edo nobedaderen bat badago. Ikaragarria da halako aukera izatea herriarendako. Luxua da ondo landutako eduki kontrastatuak izatea eskura".

Gizartean sareko eduki arina eta azkarra gailendu bada ere, historialariak argi du blogarekin jarraituko duela: "Jasotzen ditudan dokumentu eta oroitzen dituzten sarean partekatuko ditut, eta ez etxeko armairuan gorde".

Pilotari sena indartuta ekingo diote txapelketari

Herri mailako pilota txapelketa indarberrituta dator; izan ere, formatu berrituan, egun bakarrean ekingo den txapelketa antolatu du Olalde pilota elkarteak maiatzaren 7rako, zapatua. Izena emateko epea apirilaren 10era arte zabalik dago

Maidier Arregi ANTZUOLA

Olalde pilota elkarteak antolatu, maiatzaren 7an herriko pilota txapelketa jokatu da. Olalde elkarteak hezitzaile Andoitz Aranburuk kontatu dio GOIENARI aspaldi Antzuolan egiten zen txapelketa berriro ekarri gura izan dutela, formatu berrituan: "Oraingoan, txapelketa berrituta dator, eta egun bakarrena mugatuta egingo dugu. Helburua pilota sentimendua indartzea eta herritarrek pilota egitera animatzea ere bada. As-tero batzen gara, martitzenetan eta eguenetan, entrenatzeko. Mailaka egiten dugu; lehenik, gaztetxoek hasten dira, eta ondoren, zaharrenen txanda izaten da".

Aranburuk dio pilotari sena egon badagoela Antzuolan. "Hain herri txikia izanda, azken urteetan irten dira profesionalak, eta bidean jardun dutenak ere izan ditugu; gainera, badago afizioa herrian". Hala, neska-mutikoak herri mailako txapelke-

tarako gogor entrenatzen ibili dira asteon. Izan ere, izena emateko epea apirilaren 10era arte, domekara arte, dago zabalik – informazio gehiago, labur.eus/OlaldeTorneoa helbidean– eta gaztetxoek oraindik badute parte hartzeko aukera.

"Izen ematea ikusita erabaki-ko dugu nola antolatu txapelketa. Izan ere, adin tarte zabalak dauka parte hartzeko aukera eta horren arabera antolatuko ditugu kanporaketa faseak. Goizean hasi eta finala arratsaldeko zazpitan izango da. Sariak egongo dira, noski, eta pilotari onenek txapela jantziko dute; eta amaieran, parte hartzaileen dako luntxa izango da".

MAIATZAREN 7AN JOKATUKO DA TXAPELKETA; EGUN OSOKO PILOTA FESTA IZANGO DA

Gaztetxoak pozik, gehientsuenek izena eman dute jada, eta ia egunero entrenatzen dabiltzala kontatu dute. "Pilota gorrak dira, eta eskuak gorrituta baina oso gustura gabiltza. Ordu bete inguruko entrenamendua egiten dugu eta txapelketa irabazteko asko entrenatu beharra daukagu. Aitor Mendizabal, Laso, Altuna... dira gure gustuko pilotariak eta erreferente", aitortu dute gaztetxoek.

Txapelketaren araudia

Txapelketa, izen-ematearen arabera moldatu daitekeen arren, hasiera batean, kanporaketak partidu bakarrera jokatu da. 8 eta 10 koadroen barruan jokatu da, eta atzeko egurra pasa bezala kontsideratuko da. Hor- ma berdetik kanpo ez da ontzat emango. Sei tantora jokatu-ko diren bi partidu irabazi behar-ko dira, eta, berdinketa izanez gero, lau tantora jokatu-ko da hirugarren partidua. Lehen sa-kea txapa botata erabakiko dute.



AMAI MUNDINANO

240 bat ikasle Korrikaren alde

Joan den egubakoitzeko giro eskasa medio, Korrika Txikia martitzen honetan egin du eskolak. 240 bat neska-mutikok petoak margotu, jantzi eta erdigunean barrena korrika egin zuten. Korrika Txikiak Errekalde auzoan hasi eta herri osoa zeharkatu ostean, txikiak izan ziren lekukoa eskolako patiora eraman zutenak.

Tesia aurkeztu du Basasorok

40 urteko ibilbidea duen Antzuolako Herri Eskolako eredu pedagogikoaren gaineko hirugarren tesia aurkeztu zuen, Torresorua aretoan, Maitane Basasorok, EHUKo irakasle eta ikerlariak. Komunitatearen indarrak eta garrantziaz jardun zuen antzuolarrekin. Proiektuak ikasleen interes eta jakin-minetatik abiatzen direla kontatu zuen, besteak beste.



MAITANE BASASOROK

GORA ETA BEHERA



Zorua altxatuta eta arriskutsu

Antigua auzoan zorua altxatuta eta hondatuta dagoela salatu du auzotar batek. Estropuz egin eta erorikoren bat edo beste ere gertatu dela dio. Ingurua txukuntzeko eskaera egin nahi dio Antzuolako Udalari.



Antzuolako haur pilotariak herriko pilotalekuan. AITOR AGIRIANO



Julia Monge, Iraitz Lazkano, Mikel Gomez eta Nerea Villa, memoria jardunaldiak aurkezten. L.Z.L.

85 urte Elgetako erresistentziak

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, bueltan dira apirileko ekitaldiak. Bi bisita gidatu, omenaldi ekitaldia eta liburu baten eta ikus-entzunezko baten aurkezpena iragarri dituzte Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak

L. Zeberio / U. Igarza ELGETA

1937ko apirilaren 24an sartu ziren tropa frankistak Elgetan. Aurten, 85 urte geroago baina egun berean, Elgetako erresistentzia gogora ekartzeko egitarau berezia prestatu dute Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak. Martitzenean egin zuten aurkezpena. Pandemia aurreko sasoiraren gerturatuta, apirileko bigarren hamabostaldia frankismoaren biktimak omentzeko baliatuko dute elgetarrek.

Iraitz Lazkano alkateak azaldu duenez, koronabirusak baldintzatu ditu aurreko bi urteetako elkartasun keinuak, eta aurtengo ere modu berezian egitea aurreikusten dute. Hilaren 24ko omenaldi ekitaldiari dagokionez, erresistentziako kideak gogora ekartzeaz gain –soldaduak zein zibilak–, aipamen berezia egin-

Egitaraua

Apirilak 15 eta 17

• **10:00** Bisita gidatua, interpretazio zentrotik abiatuta.

Apirilak 21

• **18:30** 366 egun borrokan Euzkadiren alde liburuaren aurkezpena udaletxean.

Apirilak 24

• **12:00** Omenaldi ekitaldia Mendizaleen plazan.

Apirilak 27

• **18:30** Apaiz kartzela dokumentala eta solasaldia Xabier Amurizarekin.

go diete kereilan parte hartutako elgetarrei. "Omenduko ditugu zazpi hilabeteko erresistentzia hartan gure inguruko mendietan faxismoari aurre egin ziotenak, eta baita ere ondorengo egunean frankismoak eraildakoak. Aipamen berezia egingo diegu, gainera, justiziaren bidean pausoa eman eta justizia egiteko eskaera egin duten herritarrei".

Frankismoaren krimenak ikertzeko eskaera eginez Elgetako Udalak jarritako bi kereiletarako lekukotzak eman dituzten herritarrei buruz ari da Lazkano. 2017ko udazkenean aurkeztu ziren kereila kriminalak, Bergarako epaitegian. Hamazazpi lekukotza jaso ziren herrian horretarako propio zabalduko bulegoan. Hasiera batean, Bergarako epaitegiak tramitera onartu zuen kereila, baina auzitegiko beste epaile

batek artxibatu egin zuen ondoren. Argentinako kereila zabalik dago. "Espainiako justiziak oztopatu egiten ditu modu honetako ekimenak hainbat aitzakiarekin; preskripzioa dela edo amnistia legea dela edo... Guk ulertzen dugu nazioarteko justiziaren arabera krimen horiek epaitu beharrekoak direla", azaldu du Lazkanok.

Bisita gidatuak lubakietara

Apirilerako, Intxortako ibilbide tematikoarekin lotutako bi bisita gidatu antolatu dira. "Hilaren 15ekoa euskaraz izango da eta 17koa, gazteleraz. Hiru bat ordu iraungo dute eta Espaloia kafe antzokian dagoen interpretazio zentrotik abiatuko gara, 10:00etan", azaldu du Intxorta 1937 kultur elkarteak Nerea Villak. Komeni da aurrez izena ematea: 943 79 64 63, turismo@debagoiena.eus edo 943 71 89 11.

Omenaldi ekitaldia plazan

Apirilaren 24ko omenaldi ekitaldia Mendizaleen plazan izango da, eguerdian. "Aurreko urteotan omenaldiak oso baldintzatuta egon dira koronabirusagatik. Aurtengoa antolatzeko ere COVIDaren garapenari begira egon gara, eta, beste modu batera antolatzeko asmoa bageneukan ere, berezia izango da", esan du Lazkanok. Antolatzaileek aurreratu dute lore eskaintza bat egingo dela eta bertan izango direla, besteak beste, Joseba Tapia soinu-jolea eta Kezka dantza taldeko dantzariak.

Egitaraua osatzen duten beste bi ekitaldiak dira *366 egun borrokan Euzkadiren alde* delako liburuaren aurkezpena eta *Apaiz kartzela* ikus-entzunezkoaren emanaldia, ondorengo solasaldiarekin; liburuaren aurkezpena Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museo-ko zuzendari Aitor Miñambres egingo du, hilaren 21ean, udaletzeko areto nagusian. *Apaiz kartzela* dokumentalaren proiektzioa, berriz, hilaren 27an izango da, antzokian.

JOSEBA TAPIA ETA KEZKA DANTZA TALDEKO DANTZARIAK IZANGO DIRA OMENALDIAN


Bi aurkezpen jardunaldi bereziotan



'366 EGUN BORROKAN EUZKADIREN ALDE'

LIBURUA

Loyola batailoiko komandantea izan zen Juan Beistegi Ugalde eibartarra. Jatorri elgetarra zuen; izan ere, elgetarrak ziren gurasoak. Beistegiren oroitzapenak jasotzen ditu liburuak. Boluntario eman zuen izena, 1936ko abuztuan, Euzko Gudarosteko Azpeitiko milizia nazionalistetan. Gerra eta kartzela bizi izan zituen. Kartzela ostean Francoren diktaduran bizi izandakoak ere ageri dira lanean.



'APAIZ KARTZELA'

DOKUMENTALA

1968-1976 aldian Zamorako apaizen kartzelan preso egondako lau apaiz presondegira itzuli dira. Bidaia ezohikoa da, ez baita normala izaten norbera kondenatuta egon den kartzela bisitatzeko aukera izatea. Ritxi Lizartzak, David Pellaresek eta Oier Aranzabalek zuzendutako lana da. Protagonistak bat, Xabier Amuriza, Elgetan izango da, ikus-entzunezkoa ikusi ostean solasaldia egiteko.

Piñu-koku enduro martxa, bi aste barru

2019an egin zuten lehena, baina pandemiagatik ez da besterik egiteko aukerarik izan. Hilaren 23an egingo dute bigarrena, 35 kilometroko ibilbidearekin eta 1.500 metroko desnibel positiboarekin. Izen-ematea zabalik da 'kirolprobak.com' atarian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Piñu-koku enduro taldeko lagunak azken prestaketa lanetan dabilta buru-belarri. Apirilaren 23an egingo dute Elgetako bigarren enduro martxa eta ibilbide polita gertatu dute etortzera animatzen direnendako.

Ez da hasiberriendako ibilbidea; horregatik, erdibide inguruan plazan dagoen anoa puntutik pasako dira parte-hartzaileak eta nork bere aukera izango du erretiratu edo jarraitu erabakitzeke. Bost jaitsiera potente daude ibilbidean: Azkonabieta tontor ingurutik Arraotzeko bihurtunera, Galdaramiñotik Unbera, Goikomenditik herriko plazara, Intxorta azpitik Lehenengo Errekara eta Santa Marina punta ingurutik Aixolara. "Galdaramiñotik Unberako jaitsiera Eibarko talde batek prestatu du, eta oso ondo dago. Oso egokia iruditzen zitzaigun gure martxarako, eta haiei baimena eskatuta halaxe izango da", azaldu du Piñu-koku taldeko kide Etor Garatek. Aurtengo beste nobedade nagusietako bat Intxortatik Lehenengo Errekarako jaitsiera izango da. "Berria da, eta guk egokitutakoa. 2019ko martxarako berde zegoen, baina orain prest dago eta iruditzen zaigu gustuko izango dutela



2019an egindako martxaren irteera, Mendizaleen plazatik. JOSE ANTONIO OJANGUREN

BOLUNTARIOAK BEHAR DIRA ANOA PUNTUAN EGOTEKO ETA BESTELAKO LANETAN LAGUNTZEKO

etortzen diren *rider* guztiek". Parte-hartzaileak 09:00etan abiatuko dira plazatik, eta ez da lasterketarik egingo. "Martxa bat da. Ez da lehenengoendako saririk egongo. Aukera eman digute kronometroa jartzeko,

baina ez da gure helburua. Nahia-gu dugu bakoitzak bere erritmoa eramatea eta ibilbideaz gozatzea".

Izen-ematea zabalik dago

2019ko martxan 116 lagun elkar-tu ziren. Sorpresa izan zen antolatzaileendako, eta, oraingoan, aurrez izena emateko eskatu dute. "Eguraldia erabakigarria izango da, baina pentsatzen dugu antzerako kopuruetan ibiliko garela. Eskertuko genuke aurrez apuntatzea erreferentzia batzuk izateko. Gainditu dugu 50 lagune-ko langa dagoeneko".

Anoa puntua eta mekanikariak, aurtun, plazan

Jatekoa eta edatekoa eta Eibarko CDR dendako mekanikari profesionalak izango dira anoa puntuan. Antolatzaileek aurreikusten dute lehen txirrindulariak 11:00 bueltan helduko direla bertara. Jarraitu edo erretiratu aukeran izango dute. Herritarrek ere ikusi ahaliko dute halako proba batek zer-nolako mugimendua eragiten duen.



Aixolan egon ziren anoa puntua eta mekanika postua 2019an. J.A.O.



MIKEL URKIA

Txapelketako tiraldia herrian

Gipuzkoako 51. hiru-txirlo bola-txapelketa aurrera doa eta txapelketako hirugarren jardunaldia herrian jokatu da. Bi tiraldi izango dira: gaur 23:00etan eta zapatuan 17:00etan. Tiraldi bietan parte hartzea irekia izango da. Hiru bat urte izango dira Elgetako bolatokia txapelketako tiraldirik jokatzeko ez dena. Argazkian, Elgoibarko saioan ondoen sailkatuak.

Itzuliko tropela gaur Elgetan

Euskal Herriko Itzuliko tropela Elgetatik igaroko da, gaur, barikua. Azken-aurreko etapa izango da txirrindulariendako eta Zamudio eta Mallabia artean 163,76 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Helmugarako 13 kilometroren faltan igaroko dira Elgetatik. Elorriotik helduko da tropela eta Karabietatik egingo du Eibarrera. 17:00 bueltan izango da.



AINHOA ARANA

OHARRAK

Korrikaren amaiera jaialdirako autobusa

Domekan Korrikaren amaiera ekitaldira joateko autobusak irtengo dira Debagoienetik; Bergaratik, 10:15ean. Itzulera 20:00etan izango da. Izen-emateak: Arrasateko AEKn.

Podologoa erretiratuendako astelehenean

Xalbadorpe elkartek antolatuta, apirilko kontsulta izango da astelehenean. Izen-emateak: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

Frontenis txapelketa maiatz amaieran

Zabalik da Elgetako frontenis txapelketan izena emateko aukera. Maiatzaren 28an eta 29an jokatu da, bikoteka. Izen-emateak, fronteniselgeta@gmail.com helbidean.

Ipuinen Ordua gaur liburutegian

Ipuinen Ordua saio berezia egingo dute liburutegian, 17:30ean hasita. Kontsultatu ordutegiak liburutegiaren webgunean.

Haur eskolako matrikulazio kanpaina

Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra izango da zabalik matrikula epea 2021ean eta 2022an jaiotako haurrendako. Zerbitzua irailean erabiltzen hasteko da.



Amaia Erostarbe, Onintza Andres, Anik Zubizarreta eta Izaro Elorza, martitzenean udaletxean egindako aurkezpenean. M.B.

Partaidetzaren araudia onartu du Udalak

Udal ordenantza horren helburua da Oñatiko Udalaren eta herritarren arteko informazio-eskubideari, gardentasunari eta komunikazioari lotutako tresnak eta egiturak definitzea. Martxoko osoko bilkuran onartu dute, aho batez

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Udalaren Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordeak herritarren parte-hartzerako, lankidetzara publiko-sozialerako eta irekiera instituzionalerako araudia idatzi eta onartu du. Hala, Udalaren partaidetza eta garapen komunitarioko ereduak arautuko duen arauzko dokumentua osatu du.

Komunikazio tresnak definitu

Araudi horren helburua da Oñatiko Udalaren eta herritarren arteko informazio-eskubideari, gardentasunari eta komunikazioari lotutako tresnak eta egiturak definitzea. "Herritarrek parte hartzeko, instituzioekin elkarlanean ibiltzeko eta eragina izateko edo informazioa jasotzeko zein kanal edo modu dituen jasotzen ditu ordenantza honek", azaldu du araudiaren aurkezpenean Anik Zubizarretak, Oñatiko Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitario batzordeko burua.

Aurreko agintaldian hasi zen Oñatiko Udalaren ordenantza berri hori lantzen. Orduan, ordenantza bidezkoak izango ziren nari forma eman zioten, eta ostean etorri da idazketa prozesua, proposamenen azterketa eta zirriborroa idaztea, esaterako. Bide horretan lagun izan dituzte hainbat herritar, udal teknikariak eta politikariak. Azken emaitzarekin pozik daude. "Luzea izan da prozesua, bai, baina guri ere balio izan digu hausnarketa egiteko, eta horrek isla izan du arautegian. Hartutako bideak zeintzuk diren jasotzeaz gain, araudi honek jasotzen du zergatik, zertarako, zeinekin eta epe luzerako zein helbururekin egin diren. Hori guztiori posible egiteak

**UDALBATZAKO
ALDERDI BIAK EGON
DIRA PROZESUAN ETA
POZIK DAUDE
EMAITZAREKIN**

dakar, besteak beste, gobernatze-ko beste era bat; azken finean, herritarrekin partaidetza egiteko oinarria jartzea politika publikoetan".

Udalbatza osatzen duten alderdi biak, EH Bildu eta EAJ, hasieratik egon dira batera prozesu horretan, elkarrekin egin dute lanketa eta emaitzarekin pozik daudela adierazi zuten alderdi biek martxoko osoko bilkuran, ordenantza aho batez onartzea erekin batera. Prozesuan bidelagun izan dituztenei eskerrak eman zizkieten, eta "parte-hartze eskubidea gauzatzea ahalbidetarako duen tresna" hori "araudi erreala" dela esan zuten.

Jendaurrean

Ordenantza berria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu dute, eta ostean, hilabete egongo da jendaurrean, edozein alegazio aurkeztu ahal izateko. Dena ondo bidean, maiatzeko osoko bilkuran onar dezakete, behin betikoz.

Hainbat proiektu indartzeko erabiliko dute iazko gerakina

Proiektu estrategikoetarako gorde dira hiru milioi euro: Musika Eskola, Emakumeen Txokoa eta Urrutxu

O.E.G. OÑATI

2021eko udal aurrekontua likidatuta, utzitako 6,3 milioi euroak zein proiektutara bideratuko dituen onartu du udalbatzak martxoko osoko bilkuran. Kiroldagiko mailegua urtebete aurreratu ordez, kopuru hori –785.000 euro– herritarrek izan ditzaketen beharretara bideratzeari hobeto deritzo EAJk, eta hori izan da abstenitzeko arrazoia. Udal Gobernuak, aldiz, zentzuzkoa ikusten du hori egitea: "Urte okerragoak etor daitezkeelako". Gerakineko dirua inbertitzeko Udal Gobernuak egindako beste proposamenekin bat egin zuen oposizioak.

Proposamen horien artean daude Torreausoko zubia eta Azkoagaingo belarra eta obra zibila egiteko exekuzio proiektua eta Urgaingo hobetzekoa. Baita Araozko ostatuko aurreko urbanizazioa bukatzekoa ere.

Futbol zelaiari lotuta, lurrak erostea proposatu dute jeltzaleak, baina gai hori Aloña Mendirekin aztertu eta dagoen behararen arabera erabakiko dela erantzun du Udal Gobernuak. Asmo horiek ondo ikusteaz gain, Mugarrien digitalizazioa egitea eta Zubillagako zubi zaharra zabaltzea proposatu zuten jeltzaleak.

Aurrekontuetara lotutako exekuzioak aurten hastea da asmoa, baina proiektu estrategikoek ez dute epe jakinik egun; gehiago iraungo dute eta dotazioa egin baino erreserban utzi dute dirua –hiru milioi euro–, kopuru zehatza jakindakoan martxan jartzeko. Musika Eskola, Emakumeen Txokoa eta Urrutxu zigitatzeko lanak dira proiektu estrategikoak; milioi bat euro gorde da hirugarrenarenak. Hala, jeltzaleek konpromisoa eskatu dute exekuzioak agintaldian hasteko.



Torreausoko zubiko proiektua da sendotuko dutenetako bat. GOIENA

Kuboko ordutegia zabalagoa da apiril hasiera ezker

Zerbitzua hobetzeko Udalak gaztelekuko kuboko erabiltzaileei galdetutakoari erantzunez eta erabilera gero eta handiagoa dela ikusita, zabaldu egin dute bertako ordutegia. Horrela, apirilaren hasiera ezker, 16:30tik 20:30era dago zabalik egubakoitzetan, 17:00etatik 20:30era zapatuetan eta 17:00etatik 20:00etara domeketan.

Udan begirale izateko izen ematea zabalik dago, 13ra arte

Uda kanpainan eta udaleku irekietan begirale izateko oinarriak Udalaren webgunean daude ikusgai daude eta eskaera orriak ere bertatik deskargatu daitezke. Apirilaren 13a da izena emateko azken eguna, eta Internet bidez eta HAZ bulegoan egin daiteke, aurrez hitzordua hartuta. Hilabeteko kontratua egingo diete begiraleei.



Elkarrekin Bila egitasmoko boluntario taldea Arantzazun, martxoaren 26an. ELKARREKIN BILA.

Jardunari ekin dio Elkarrekin Bila taldeak

Bizi-zailtasunak dituzten pertsona eta taldeei bizpahiru eguneko egonaldia eskaintzen diete boluntario hauek Arantzazun, bertan ekintzak eta ingurura irteerak eginez. 2022ko urtea lotuta dute dagoeneko; aste barruan egon da urteko lehen taldea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Bizi-zailtasunak dituzten pertsona eta taldeei –gaixoak, menpetasunen bat dutenak, babesik gabe dauden adin txikikoak, presoak, nolabaiteko urritasuna dutenak...– Arantzazun egonaldi bat eskaintzea da Elkarrekin Bila proiektuaren nahia. Pandemiak bi urtez eten du jarduna, baina hasi da berriz taldeei harrera egiten. Aste honetan izan da aurtengo lehena; hiru eguneko egonaldia egin dute Bizkaiko Lagun Artean taldeko 25 bat lagunek.

Boluntario taldea

Arantzazuko frantziskotarrek, 2014an, laiko talde batekin batera bultzatutako proiektua da Elkarrekin Bila. Arantzazuk ematen dituen aukerak baliatuz, pertsona eta talde horiei egonaldi atsegina eskaintzea dute helburu, beren egunerokotik irtenda. Bizitzeko beste molde bat bistaratu, horrela pertsona bezala hazten laguntzeko euren barruko konfiantza sortuz, eta bizi dituzten zailtasunei aurre egiteko bidea ikus dezaten.

Hori du helburu talde honek, eta, lortu guran, denetarikoko ekintzak prestatzen dituzte euren batera egiteko. Hogeitabat

lagunek osatzen dute Elkarrekin Bila egitasmoko boluntario taldea, eta, txandaka, euretako hiruzpalau lagun egoten dira, egunero, kanpotik datorren taldeko kideekin eguna pasatzeko. Harrera egiten diete eta eguna elkarrekin egiten dute. "Haiendako ikasteko eta gozatzeko egonaldi bat da, baina guk ere ikaragarri ikasten dugu eurekin", dio boluntario taldeko Alazne Guridik. Ekintzak prestatzeaz gain, horietarako dirulaguntzak lortzen ere ibiltzen dira boluntarioak, egonaldia doan izan dadin bisitariendako.

Irteerak eta magia ikuskizunak

Arantzazuko Asis Topagunean, fraideen etxean, hartzen dute ostatu talde hauek; hango jangelan eta logeletan egiten dituzte jatorduak eta loak. Bizpahiru eguneko egonaldiak egiten dituzte era askotariko ekintzak izaten dituzte prest boluntarioek eurekin batera egiteko. Adibidez,

2014AN SORTU ZEN ETA HARREZKERO 1.100 LAGUNEKIN BAINO GEHIAGOREKIN ARITU DIRA

Gomiztegira joaten dira oinez edo autoetan eta han zer egiten duten ikusten dute, bertako batek azalduta. Arrikruz Kobetara, Pottokalekura eta Urbiara ere joan izan dira, eta baita Oñatira ere; Txokolateixia bisitatu eta Usako eta Ur-jauziak ikusi dituzte irteera horietan. Leintz Gatzagako Gatz Museora ere joan dira, Urkulutik, eta baita Legazpira, Mirandaolako burdinolak gertutik ikustera.

Irteerez gain, ikuskizunak eta tailerrak ere izaten dituzte Arantzazun bertan. Aste honetan egon direnek, esaterako, arte eta kultura tailerra egin dute. Potx magoa ere joan izan da magia ikuskizunak egitera, eta Xabier Ugartek eta Malen Imazek, adibidez, musika eraman izan diete. Herriko beste eragile batzuekin ere badute harremana ekintzak antolatzeke: Ulmarekin eta MUko robotika adarrenekin, esaterako.

Hainbat kolektiborekin

Programaren edukia erakunde bakoitzarekin zehazten dute aldez aurretik, bakoitzaren ahalbideak eta beharrak kontuan hartuz, eta taldeko boluntarioekin batera egiten dituzte.

Aurtengo urtea itxita dute dagoeneko; hau da, zein talde eta noiz etorriko den lotuta, zehaztuta. Hamar-hamaika bat talde etortzen dira urtean, normalean, hogeitabateko lagunekoa; 200 pertsona pasa urtean. Hasi zirenetik, 2014tik, 1.100dik gora.

Euskal Autonomia Erkidego-ko taldeak izaten dira etortzen diren gehienak, eta tartean daude, esaterako: adimen urritasuna duten eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonak zaintzea helburu duen Atzegi, Gipuzkoan adineko pertsonak eta gaixotasun mentala dutenak artatzen dituen Hurkoa, hiesa eta beste gaixotasun batzuk dituzten pertsonen bizitza hobetzen laguntzen duen T4 taldea, espe-
txeko esperientzia izan dutene-
kin lan egiten duen Arrats el-
karte, Bilbon bazterketa-ego-
era larrian dauden pertsonak
gizarateratzea helburu duen
Zubietxe, Aita Menni eta dro-
ga-menpekotasunarekin arazoak
dituztenekin lan egiten duen
Gizakia Helburu taldekoak. Oñ-
atiko Zehar elkartekoekin ere
egiten dituzte egun-pasak.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

e-kirolak

Hitzei e hizkia aurretik jartzea ohitura bihurtu da, batzuetan ingurugiroarekiko jasangarritasuna adierazi nahian.

Haurrek kirola egiten dutenean *lehiakortasun* hitza azaltzen da askotan *jolas* hitzaren aurka. Adin eta kirol batzuetako gehiegizko lehiakortasun hori ekiditea eta kirolaren alde osasungarrienaz gozatu ahal izatea du helburu eskola kirolak. Bestalde, zailtasun bereziak dituztenentzat bideak zabaltzen ari da kirol egokitu kirolaren osasungarritasuna ardatz hartuta. Kirol arruntak praktikatzeko arazoak dituztenei bidea leuntzen.

Larunbatean Oñatin eskola kirolak kirol egokituari eskaini zion eguna. Haurrek, eta gizarteak bide batez, kirola egokitu beharra dutenek eginbehar duten bidea ulertze aldera.

Bi e-kirol hauek, eskola kirolak eta kirol egokituak, gizartearen jasangarritasunean, ekitatean eta justizia sozialean ekiten dute.

Lerro hauetatik eskerrik beroena e-kirol hauetan lanean burubelarri zabiltzaten guztioi.

Zabal dezagun haien adibidea gizarteke beste esparruetan.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Pello Uriarte, erdian, azalpenak ematen, martxoan egin zuten gimnasioako makinaren funtzionamenduari buruzko ikastaroan. M.B.

Gimnasioaren erabilera hobetzeko ikastaroak

Zubikoako fitness gelako makinaren funtzionamenduari buruzko saioa eskaini zuen bertako monitore Pello Uriartek martxoan, eta zapatu honetan, horren jarraipena izango da; gimnasioko saio bateko planifikazioa nola egin ikasteko aukera egongo da

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Zubikoako kiroldegiko Bizittu gimnasioan Pello Uriarte monitoreak egoten da, erabiltzaileen kezak argitu eta behar dutenei aholkuak emateko prest. "Monitore egoten naiz gimnasioan eta nire helburua da etortzen diren erabiltzaileei erakustea era seguruan makinak nola erabili, hona etorri eta eremu ezagun batean senti daitezen, gustura ibiltzeko", zehaztu du Uriartek. Orain, gainera, ikastaro batzuk eskaintzen ere hasi dira hilero, zapatu goiz batean, erabiltzaileei gimnasioari lotutako askotariko argibideak eskaintzeko.

Makinaren funtzionamendua
Martxoko azken zapatuan, esaterako, gimnasioan dauden makinaren funtzionamenduari buruzko saioa eskaini zuen Uriartek. "Bi jarduera fisiko mota banatuko genituzke gimnasioan, jarduera fisiko aerobikoa izango litzatekeena landuko genuke; esaterako, bizikleta estatikoan

edo eliptikoan eta korrika egiteko zintetan. Eta barruko zonan gelditzen diren makinak izango lirateke indar lana egitekoak eta muskuluak gogor mantentzekoak. Bigarren eremu horretan sortzen dira zalantza gehien. Gustatzen zaigu garrantzia ematea posturari, teknika egoki bat erabiltzeari. Helburua da bizi-modu osasuntsua bultzatzea eta gauzak era egokian egitea", azaldu du Uriartek, eta gaineratu du ikastaroan izan ziren erabiltzaileek gustura entzun zituztela argibideak.

Planifikazioaren garrantzia
Bihar, zapatua, eskainiko dute hurrengo ikastaroa, eta hori lehenengoaren jarraipena izan-

**GIMNASIOKO
MAKINAK EGOKI
ERABILTZEKO
AHOLKUAK EMANGO
DITU URIARTEK**

go dela azpimarratu du monitoreak. Izan ere, lehenengoan, makinaren funtzionamenduari buruzko xehetasunak ikasi zituzten, eta oraingoan, fitness gelako saio baten planifikazioa nola egin irakatsiko die. "Asmoa da jarraitzea aurreko saioko dinamikarekin. Oraingoan, azpimarratuko dugu, lehenik eta behin, berotzeak daukan garrantzia, eta, horren ostean, poliki-poliki zein makina erabiliz joatea komeni den. Makina bakoitzarekin muskulu zehatz batzuk lantzen dira, eta komeni da guztia kontuan hartzea". Tonu muskularrak galtzeak lesioak, oreka falta, erorikoak eta bizkarreko minak ekar ditzakeenez, besteak beste, gimnasioan egingako ariketekin helburua izango litzateke horiek guztiak saihestea, bizi-modu osasuntsua eramanda.

Ikastaroa 09:30ean izango da eta izena eman beharko da kiroldegiko harreraren edota monitorea jakinarazita.

Azken partidu erabakigarriak Mekalki Aloña Mendiarendako

Gelditzen zaizkien hiru partiduak irabazi behar dituzte saskibaloikoek, dauden mailan mantendu ahal izateko

A.T.G. OÑATI

Seniorren bigarren maila nazionalako Mekalki Aloña Mendi saskibaloia taldea gutxigatik ez zen sailkatu goiko fasera, eta bigarren aldi honetan "erdipurdi" doazela adierazi du taldeko entrenatzaile Aitor Ugartek.

Lehenengo itzuliko lau partidetatik bakarra irabaztea lortu dute. Aurreko astean lortu zuten garaipena, hain justu, eta entrenatzaileak dio moralki hori euren oso garrantzitsua izan dela eta asko animatu dituela partidu hori irabazteak.

Zortzi talde ari dira elkarren arteko lehia eta azken sei partidetan daudenak jaitziko dira mailaz; beraz, "larri samar" dabiltzala aitortu du Ugartek, baina oraindik "aukerak" badituztela azpimarratu nahi izan du entrenatzaileak.

Gelditzen zaizkien hiru partidetatik hirurak irabazi behar dituzte mailaz ez jaisteko; haxe adierazi du Ugartek: "Guretzat azken hiru partidu hauek hiru final izango dira". Eta asteburu honetan etxean hartuko dute Getari taldea.

Futbol campusean 100 gaztetxo inguruk hartuko dute parte

Apirilaren 19tik 22ra bitartean, goizez, 09:00etatik 13:00etara egingo da futbol campusa. Bertan parte hartzeko aukera dute 2013tik 2011ra bitartean jaiotako umeek, eta dagoeneko 95ek, behintzat, eman dute izena. Antolatzaileak gustura daude zifra horrekin, eta horien gidari lanetan zortzi monitore ibiliko dira. Bi orduz futbol saioak

egingo dituzte egunero eta beste bi orduetan bestelako taldekako kirolak, frontoi kirolak eta jolasak egingo dituztela aurreratu dute.

Aurten, gainera, parte-hartzaileen artean kamisetak banatzeko asmoa dute antolatzaileek, eta futbol munduan dabilen gonbidaturen bat ekarri nahi dute.

Izen-emateak zabalik jarraitzen du; alonafutboludalekuak@gmail.com-era idatzi behar da. Parte hartzeko prezioa 60 euro da.



EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Unax Sologaistoa txapeldun

Eski denboraldia amaitzen ari da, eta azken probetako bat jokatu zen aurreko asteburuan Andres de Regil zeharbidean, Potesen (Kantabria). Bertan txapeldun izan zen Unax Sologaistoa oñatiarra klubaren arteko Euskadiko eski txapelketan eta 2022ko Ipar Kopan, 14 urtez azpiko kategorian. Gorrizko Ibai Hernani bikotekidearekin izan zen garaile.

Oñatin emango dio birari bukaera Asurmendik

Duela urtebete inguru Oñatiko gaztetxean aurkeztu zuen 'Ilun eta abar' diskoaren Euskal Herriko birari bukaera emango dio gaur, egubakoitza, Idoia Asurmendik, gaztelekuan. 20:00etan izango da kontzertua eta sarrerak salgai daude

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Ilusio handiz dago gaurko kontzerturako Idoia Asurmendi aramaioarra: "Gogoratzen dut duela urtebete inguru Oñatiko gaztetxean egon ginela *Ilun eta abar* diskoa aurkeztzen, kalera-tu eta egun batzuetara. Ederra izan zen, jende ugari izan zelako, eta pozgarria da niretzat ziklo hau Oñatin amaitzea. Urtebete gauza asko pasa dira; proiektua asko hazi da, 50 kontzertu inguru eman ditugu ordutik, eta Madrilera eta Zaragozara goaz hil bukaeran, baina Euskal Herrian kontzertuen bira Oñatin bukatuko dugu, etxetik [Aramaio] oso gertu,



Idoia Asurmendi aramaioarra, Arrasateko Amaia antzokian zuzeneko eskaintzen. I. S.

eta Oñati niretzat ere etxea bezalakoa da, momentu asko pasa ditudalako bertan".

Diskoko kantuez gain, berri batzuk ere joko dituzte. "Lehen diskoko kantuak joko ditugu eta berriren batzuk ere bai; izan ere, hasi gara kantu berriak sortzen. Argiek garrantzi handia dute ikuskizunean, eta poesia-rekin ere lotzen den kontzertu bat izango da", adierazi du artistak. Agertokian alboan izango du banda: Joanes Ederra –baxuan eta kontrabaxuan–, Ander Ederra –gitarretan–, Nacho Soto –teklatuan– eta Karlos Arancegui –baterian–. Kontzertua gaur, egubakoitza, 20:00etan hasiko da, gaztelekuan.

Olatz Salvador, 24an

Bihar, zapatua, Arrasaten izango den Olatz Salvador artista donostiarrak ere eskainiko du kontzertua gaztelekuan hilabete honetan. Hilaren 24an izango da hori, eta *matinee* kontzertua izango denez, 12:30ean hasiko da. Sarrerak dagoeneko ohiko lekuetan eros daitezke, Idoia Asurmendiren kontzerturako bezala, 8 euroren truke.

Musika eskolakoak Cambrilsen izango dira asteburuan

Guztira, musika eskolako 56 ikasle eta irakasle irten dira gaur, egubakoitza, Cambrils aldera. Bertako Pinaret Parkean eskainiko dute lehen kontzertua gaur, 18:00etan. Zapatuan eguna Port Aventuran pasako dute eta domekan eskainiko dute bidaiko bigarren kontzertua; 12:00etan Salouko Arrantzaleen Parkean izango da hori.

Hots abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Santa Anan

Musika garaikidez osatutako *Revelation* izeneko programa eskainiko du gaur, egubakoitza, emakumez osatutako Ganbara Faktoriako Hots abesbatzak, Santa Anan, 19:30ean. Piano lanetan Amaia Zipitria arituko da, eta zuzendari lanetan Aitor Biain Bidarte. Sarrera doan da –edukiera bete arte– eta ez dira aurrez hartu beharko.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAJNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Oihana Azkorbebeitia hirutan irabazi du Arrasate-Udalatx lasterketa. Argazkian, umekin helmuga zeharkatzen. GOIENA

Bailarakoak ere faborito dira

MENDI LASTERKETAK Bi urteko hutsunearen ondoren, domekan (10:00, Herriko Plazan) 350 lagun batuko dira Arrasate-Udalatxeko irteera puntuan. Nabarmentzekoa da antolatzaileek emandako faboritoen zerrendan hainbat debagoiendar daudela

Xabier Urtzelai ARRASATE Domekan normal bueltatuko da Arrasate-Udalatx lasterketa, eta eguraldiak lagundu egingo du, gainera. Kirol ikuskizunerako ez da gehiago behar, eta gainontzeko osagaiak lasterkariak jarriko dituzte. "Oso maila politeko lasterkariak izango ditugu, baina, horrekin batera, antolatzaileok herri mailako lasterketa baten aldeko apustua egin dugu hasieratik, eta hori ez dugu galdu", adierazi zuten Mondraitzeko lagunek aste barruan egindako aurkezpenean. Eta datuek baieztatzen dute hori: "211 lasterkari debagoiendarrak izango dira, eta hortik 128 arrasatearrak". Alegia, parte-hartzaileen %60 da bailarako, eta gainontzeko korrikalari gehienak Euskal Herrikoak dira. "Baina nabarmentzekoa da lasterketak hemendik kanpo duen oihartzu-

nari esker, Bartzelona, Girona, Albacete, Madril, Burgos, Errioxa eta Zaragozako lasterkariak ere izango ditugula".


Zenbait faborito

Antolatzaileek aurreko edizioetako irabazleak gonbidatu dituzte, baina horiekin batera badira gertutik jarraitu beharreko mendi lasterkariak. "Emakumezkoen artean, hiru ediziotan txapela janzea lortu duen Oihana Azkorbebeitia izango da irteeran. "Dena den, Onditz Iturbe, Andrea Garai eta bailarako Ainara Urrutia, Ainara Uribarri eta Malen Osa garai-peneko lehian ibiliko direla espero dugu". Gizonezkoen artean, berriz, aurreko edizioetan Arrasaten txapela janzea lortu duten Asier Larruzea eta Aitor Ajuria izango dira. "Eta horiekin batera, garaipenerako lehian

Gontzal Murgoitio, Julen Martinez de Estibariz eta bailarako Xabier Lete eta Aritz Kortabarrria aurreikusten dira".


Lasterketak aldaketa txikiak izango ditu. "Tontorrean asistentzia eta segurtasun neurriak bere horretan mantenduko dira, baina edozein baldintza klimatikoren aurrean egokiagoa den kokalekura pasako da anoa postua. Hala, Udalatx eta Besaide artean jarriko dugu, jaitsierako amaiera puntura mugituko da. Honetaz gain, eta lasterkariari ibilbide egoki eta ederragoa eskaintzeko helburuarekin, 18 kilometroan, Udalatik Arrasatera doan tartean, ibilbideak moldaketa txiki bat izango du. Aldaketa honek, ordea, ez du lasterketaren luzeran (21) eta gora-behera metatuan (2.400 metro) eragin handirik izango", adierazi dute antolatzaileek.

Garaipenerako hautagai dira:



Asier larruzea

Arrasate-Udalatx lasterketako azken edizioko (2019) irabazlea da, eta gueñestarrarena da probako errekorra (1.47.37). Iaz, pauso bat egin zuen aurrera.



Aitor Ajuria

2017ko edizioan, Arrasate-Udalatx lasterketa irabazi zuen. Iaz, Onditz Iturberekin batera urrian Euskadiko trail txapelduna izan zen.



Julen Martinez De Estibariz

Mendarokoa distantzia luzetan dabil ondo. Iaz, Hiru Handiak proba irabazi zuen; 2018an, Espainiako ultra txapelketan txapeldunorde izan zen.




Onditz Iturbe

Mendi lasterkaria izan aurretik Igorrekoa atleta izan da, eta krosetan nabarmendu da. Espainiako kilometro bertikaleko txapeldun izan berri da.



Oihana Azkorbebeitia

Azken Arrasate-Udalatxeko irabazlea eta errekorren jabea (2.11.06), Abadiñokoak inguruko lasterketa mordo irabazi ditu. Esaterako, Aloñako Igoera.



Malen Osa

Oñatikoak ezustea eman zuen iaz Aloñako Igoera irabazita; izan ere, mendi lasterketetan hasiberria zen. Arrasaten ere aurrealdean ibiliko da.

'Streaming' bidez

Beste nobedadeetako bat da, aurrenekoz, eta baldintza meteorologikoek eragozten ez badute, Arrasate-Udalatx lasterketako irudiak zuzenean ikusteko aukera izango dela, plazan bertan jarriko duten pantaila erraldoian. "Lasterketa osoaren jarraipen zehatza egiteko aukera ez badago ere, puntu ezberdinak zuzenean ikusteko aukera izango da. Lasterketa eta Mondraitz Kirol Klubeko sare sozialen bidez

ere online ikusteko estekak partekatuko ditugu".

Proba plazatik jarraitzea aukera bat bada ere, Mondraitzeko lagunek eskaera egin diete herritarrei lasterkariak mendian animatzeko: "Garbi dago lekurik politenak Udalatik gorakoak direla, Udalatxeko inguruetan. Baina, beste urte batzuetako arazoak saiheste aldera, jendea-ri eskatu nahi diogu ahal dela Udalara oinez igotzeko. Bestela, zirkulazio arazoak sortzen dira auzoan".

Lauko finalerako lehen 'match-ball'-a du MUK

SASKIBALOIA Domekan Solares taldeari irabazi eta kontrario zuzenek galdu eta gero, MUK bigarren postura egin du salto. Bi jardunaldi geratzen zaizkio ligari, eta, asteburuan Cantbasket-i irabazten badiote, moreak lauko finalean izango dira

Xabier Urtzelai ARRASATE
MUko mutilek Zilarrezko LEB Mailara igotzeko fasea jokatu nahi dute aurten ere. Baina, horretarako, iazkoa baino bide luzeagoa dute aurretik; izan ere, iaz arrasatearrak zuzenean sailkatu ziren fase horretarako –ligako txapeldun izan zirelako–, baina aurten, Santurtzik beteko du postu hori. Hala, berriro ere fasean egoteko, moreek lauko final bat jokatu beharko dute aurretik, eta lauko final horretarako AA eta AB multzoetako bigarren eta hirugarren onenak sailkatuko dira. Bada, bigarren eta hirugarren postuak erabakitzeke ligari geratzen zaizkion azken bi jardunaldiek ezin entrenigarriagoak izan behar dute, lau talde dabiltzala eta postu horien artean borrokan: MU, Baskonia, Cantbasket eta Getxo.

MUren esku dago dena
Lau talde horiek ez daude egoera berean. MU da garaipen kopuru gehien duena, baina egia da bi jardunaldi hauetan kontrario zuzenak diren Cantbasket eta Baskonia izango dituela aurrean. Hori horrela, Baskoniaren kontrako ligako azken norgehiagoka –Iturripen– infartuzkoa izan ez dadin, MUkoek hobe dute asteburuan Cantbasket mendean hartu. Hori eginda, matematikoki lauko finalerako sailkatuko lirateke, Cantbasket jokoz kanpo geratuko litzateke eta –zapatua, 19:00, Santander–.

Asteburu borobila aurrekoa
Asteburu borobila izan zen aurrekoa MUrendako. Etxekoek Iturripen ondo irabazi zioten Solaresi (104-77). Eta gainera, sailkapeneko kontrario zuzenek hanka sartu zuten, eta zelan, gainera. Baskoniak 77-75 galdu zuen Santanderko Beceoren kontra. Eta Val de Eguesek Cantbasketi 82-76 irabazi zion. Emaita ederrak Arrasatekoen intereserako.



Dani Lorenzo, Solaresen kontra, erasoan. IMANOL SORIANO

"Baliteke etxeko zaleen aurrean agur partidua jokatu izana"

DANI LORENZO MU-KO JOKALARIA

Arrasateko taldeko joko antolatzaileak partidu ona egin zuen domekan Solaresen kontra. Arabarrak ia 24 minutu jokatu zituen eta puntu gehien egin zituen jokalaria izan zen (22). Baliteke, baina, Arrasateko zaleen aurrean azken partidua jokatu izana, Madrilerako joateko asmoz dabil eta, *streamer* lanak egitera.

Sare sozialetan argitaratu duzu seguruenik etxean jokatutako zure azken partidua izan dela...
Bai, eta aitortu behar dut pena ematen didala, gainera. Asteburuan Santanderren irabazten badugu, lauko finalean izango gara, eta ez naiz Baskoniaren kontrako azken partiduan egongo. Azken jardunaldian, lan kontuek Lugora eramango naute, baina Santanderren galtzen badugu,



GOIENA

Baskoniaren kontrakoa izango da nire azken partidua. **Horrenbestez, ez dakizu datorren denboraldian zer egingo duzun?**
Ez; zaila izango da saskibaloian jokatzeko jarraitzea, baina ikusiko dugu... Izan ere, uztailen Madrilerako bidea hartuko dut, *streamer* lanean hasteko aukera daukat, eta probatzea erabaki dut; baina, oraingoz, ez dut datorren denboraldira begira erabakirik hartu.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA O.ERREGION. GIZ. Euskalduna-Bergara Zap. 15:30. Andoain. Mondra-Urola Zap. 16:30. Mojaitegi. Eibar-Aretxabaleta Dom. 15:30. Errotazar. Aloña Mendi-Touring Dom. 16:30. Azkoagain. O. ERREGION. EMAK. Bergara (Atsedena). Tolosa-Leintz Arizmendi Zap. 18:00. Usabal. GORENGO M. IRAUPEN F. Mondra-Axular Dom. 17:30. Mojaitegi. Getariako-Antzuola Zap. 18:00. Mendibeltz. Aretx. UDA-Hernani Zap. 11:00. Ibarra. GAZTEAK, EUSKAL LIGA Aretxabaleta-Santutxu Dom. 16:30. Ibarra. ARETO FUTBOLA MAILA NAZIONALA Jarrilleros-Eskoriatza Zap. 15:30. Portugalete. Mondrate-Batzarre Zap. 16:30. Musakola.	EUSKADIKO TXAP. GIZ. Aretxabaleta-Pijaos Zap. 17:00. Ibarra. GIPUZKOAKO MAILA. GIZ. Mondrate-Donibane Zap. 18:15. Musakola. GIPUZKOAKO BIG. MAILA Ttakun-Eskoriatza Gaur. 21:30. Azkoitia. ESKUBALOIA EUSK. TXAP. GIZON Fagor P.-Txikiopolit Zap. 18:00. Zubikoa. Arrate-Mugarri Ingou Zap. 16:30. Eibar. EUSK. TXAP. EMAKUM. Ereintza-C.Aloña Zap. 11:30. Erretereria. GIP. SENIOR 1 MAILA SoraluceBKE-Egia Atzeratua. SASKIBALOIA EBA Cantbasket-MU Zap. 19:00. Santander. LEHEN NAZIONALA MU-Urgatzi Dom. 18:00. Iturripe.	GIZON. BIG. MAILA Mekalki A.-Getariako Zap. 18:00. Oñati. EMAK. BIG. MAILA San Ignacio-MU Zap. 20:00. Iruñea. ERRUGBIA La Unica-Kanpanzar Arrasate Zap. 16:30. Santander. PILOTA MAILA FEDERATUA: Aretxabaletan, gaur (18:00) bost partidu. Domekan (11:00) bi partidu. Oñatin, zap (16:30) sei partidu. Bergaran, gaur (18:30) bost partidu. Jaialdi profesionala: Dom. 17:00. Zubikoako pilotalekuan. MENDI LASTERKETAK Arrasate-Udalatx. Domeka. 10:00. Arrasateko plazatik abiatuta. Azkarrena 11:50 inguruan iritsiko da.
---	---	---

ESKUBALOIA Federazioek eman dute kolpe handiena

Espainiako Federazioaren eta Euskadikoaren arteko gaizki-uler-tze baten ondorioz, talde oñatiarrak kolpea jaso du aste barruan. Elgoibarren galdu arren (26-25), txantxikuek uste zuten oraindik ere *play-off*-erako sailkatzeko aukerak zituztela. Baina ez da horrela. Bihar, oñatiarren eta zarauztarren arteko partiduan ez da ezer jokoan egongo.



Asier Ibabe. GOIENA

PILOTA Buruz buruko txapelketan egotea dago jokoan Oñatin

Profesional mailako puntako jaialdia antolatu dute domekarako Zubikoan (17:00). Alde batetik, lehen mailako Buruz Buruko Txapelketa jokatzeko helburu duten Dariok eta Peio Etxeberriak Zubikoan dute azken geltokia. Atariko kanporaketak gaingiduta, irabazleak txapelketa jokatzeko txartela poltsikoratuko du.

Eta bigarren partidua ere ezin erakargarriagoa izango da, besteak beste, Binakako txapeldun izan berri den Altuna III.a izango da eta kantxara salto egingo duenetako bat. Gainera, Beñat Rezusta bergararra izango du bikote. Aurrean puntako kontrarioak izango dituzte, Irribarria eta Zabaleta. Sarrerak (25 euro) Aloña Mendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan eta Txokolatexan daude salgai. Internetez ere eros daitezke, webgune honetan: www.entradasfronton.com.

"Liburua irakurri, entzun eta ikusi egin daiteke"

URKO EGAÑA BERTSOLARIA ETA IDAZLEA

Urko Egañak idatzi eta Leire Derteanok marraztu du 'Geure mitologia, Potx eta Lotxen ibilerak'; bertsoak musikatuta entzuteko eta ikusteko aukera ere ematen du liburuak

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Bertsolaria da, plazetan aspaldian izaten ez bada ere; bertso asko idazten ditu eta lehiaketetan parte hartzen du. Bertsotan eta Leire Derteanorekin batera argitaratu duen bigarrena da.

Ataunen, euskal mitologiaren txoko kuttunean aurkeztu zenuten eguaztenean. Pozik?

Oso pozik! Bi urteko lanaren ostean emaitza txukuna dela esango nuke.

Nola abiatu zenuen proiektua?

Nire haurren andereño batek proposatu zidan ea animatuko nintzen kopia batzuk egitera mitologia gaia lantzeko eskolan, eta hala idatzi nituen. Eskolan landu ondoren, guraso batzuek baimena eskatu zidaten bertso horiek erabiltzeko, eta geroago, beste irakasle batek kopia horiekin liburuxka bat egiteko asmoa azaldu zidan; hori horrela, Leireri proposatuta, proiektuari heldu genion.

2012an elkarrekin egin zenuten 11 kantatzeko liburua. Nor da Leire?

Oñatiarra da. Ausardia handirik ez du izan orain arte marrazteko dohainak erakusteko, baina aurreko liburuekin eta honako honekin ere sobran erakutsi du nahi izanez gero ilustrazio arloan beste urrats bat aurrera eramanez.



Urko Egaña. A. A.



GEURE MITOLOGIA, POTX ETA LOTXEN IBILERAK

- **Idazlea** Urko Egaña.
- **Ilustratzailea** Leire Derteano.
- **Argitaratzailea** Abao Komunikazio Agentzia.

Proiektua handitzen joan da bidean; tartean, Potx eta Lotx batuta.

Hala da; lagun moduan iritzi bila joan nintzen Josu Zubia-rengana, Potxengana, ea hark proiektuari zerbait gehitu ahal zion galdetuta, eta etxeko atea zabaldu zigun. Beste mundu batean sartu ginen orduan eta ibilbide zoragarria izan duen proiektua izan da gero, bidelagun asko izan dituen.

Bertsoak musikatuta entzun ahal dira liburuan dagoen QR baten bidez. Zelan egin duzue?

Josuk hartu du musika arlo guztiaren ardura, hark sortu ditu konposizio guztiak. *Goizean goiz jeikirik* doinua erabiltzea zen Leirek eta biok genuen hasierako asmoa, baina Josuk pertsonaia bakoitzari doinu horren bertso bat eman digu gero. Arlo musikala grabatzeko Josuk bidelagun izan ditu Arantzu Jauregiartzo akordeoi-jole eta Olatz Amozarrain flauta eta piccolo-jole oñatiarrak eta baita Oriol Flores bateria-jolea ere. Bost minutuko audio hori deskargatzeko aukera dago.

Beste QR batek eramango gaitu ikus-entzunezkora. Zelakoa da?

Bertsoen audio hori Leire Derteanoren irudiekin ikusiko dugu; irudi horiei nolabaiteko bizitzak eman diegula esango nuke.



Urko Egaña, Potx eta Lotx pailazoekin Goienako platoan. ANDER MONEDERO

Marrazkiei bizia emanez

Goiena telebistako platoan grabatu dute liburuan jasota dagoen ikus-entzunezkoa. "Bertso musikatuekin eta Potx eta Lotx pailazoekin bitartez pertsonaia mitologikoen ezaugarriak ez hain beldurgarri saltzen saiatu gara", azaldu du Egaña.

Keinu hizkuntzan ere badago.

Sinbolikoki izateaz gain, moraliki ere garrantzi handia du guretzako; izan ere, euskara hizkuntza gutxitua da eta are gutxitua goa da keinu hizkuntzaren arloan, eta ezin dugu ahaztu hizkuntza hau erabiltzen duen komunitate handia dagoela. Kasu honetan, Arantxa Martinen laguntza izan dugu ikus-entzunezkoan keinu hizkuntzan jarduteko. Martinek, gainera, pertsonaiei buruzko hiztegitxo bat ere egin du.

Zelako pertsonaia daude?

Deno burura etorriko zaizkigunak daude: Tartalo, jentilak, sorginak, laminak, galtzagarriak... Baina badaude hain ezagunak ez diren beste batzuk ere; esaterako, Traganarru: itsaso haserretu baten jokaeraren adierazle moduan definitu daiteke.

Non dago liburua eskuragarri?

Hainbat modu daude erosteko: *Potxetalotx.eus* atarian, Elkar dendetan eta eskualdeko beste hainbat liburu-dendatan ere bai. **Aurkezpenean antzezlan bat egin zenuten. Gehiagotan eskaintzeko asmorik?**

Ataungo Jentil Baratza Kultur Elkartekoek proposatu ziguten elkarrekin ordu bete inguruko ikuskizun bat prestatzeko, eutsi egin genion erronkari ere eta ederra ateratu da! Gehiagotan eskainiko dugun ez dakigu, ikusi egin behar! *Geure mitologia* ateak zabalik dituen proiektua dela erakutsi dugu egindako bidean.

"MITOLOGIA GAIK LANTZEAZ GAIN, IRAKURKETA LANTZEKO ERE BALIO DU LIBURUAK"

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**ARRASATEKO
MODA DESFILEA**

APRILAREN 8AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN

BABESLEAK:



ARRASATEKO UDALAK
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE



Enbata, eguzkia, hiru urteak

GOIENA ALDIZKARIA

goiena
Zu hemen zaude.





Ines Osinaga Arrasateko musikaria, agertokian gogotsu. IMANOL SORIANO

Kubako emakumeak bidelagun, ekimen berria

Elkar argitaletxearen Joseba Jaka beka irabazi du Ines Osinagak; Arrasatekoak urtebete izango du Kubako emakume musikariengandik jaso dituen bizipenetan eta istorioetan oinarria duen 'Itsasoa da bide bakarra' proiektu musikatua lantzeko

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Elkar argitaletxeak kultura adierazpide askotariko artistendako duen beka da 1996an hasi eta 2016an biziberritu zuten Joseba Jaka sormen beka. Aurreko aldietan, literatura eta antzerki sormenerako egokitu dituzte, eta musikaren alorrera bideratu dute aurten. Hamazortzi artistak aurkeztu zuten hautagai-tza, eta asteen iragarri dute 10.000 euro –erdia dirutan eta beste erdia estudio-orduetan ordainduta– irabazi duen proiektua dela Ines Osinagaren *Itsasoa da bide bakarra* izeneko.

Proiektu "handinahia eta bizia"
Joana Barbier, Sara Zozaya eta Jon Eskisabel epaimahaiko ki-deek proiektuaren "bizitasuna" aipatu dute, "sormen prozesuko unean uneko bizipenek, gertakiek eta esperientziek forma eman eta edukiz osatuko" duten lana dela iritzita, eta "proiektu handinahia eta artistikoki interesgarria" iruditzen zaiela gaine-

